

Hizkuntzalaritza eta Psikologia: Wundten garaia*

Linguistics and psychology: Wundt's time

PELLO HUIZI

ILCLI (UPV/EHU)

LABURPENA. Lan honen helburua hizkuntzalaritzaren eta psikologiaren arteko harremanak aztertzea da, jakintza arlo zientifiko independente gisako izatearen hastapenetan. Ikerketak XIX. mendearen azken laurdena eta XX. mendearen lehen urteak hartzen ditu, bereziki, 1875etik 1920rako. Urte horiek aukeratzearen arrazoia da Wilhelm Wundt psikologia esperimentalaren sortzailea Leipziger 1875ean iritsi zela eta han egon zela 1920ra arte, hil zen arte. Wundten ideiek eragin handia zuten psikologiaren garapenean ez ezik, hizkuntzalaritzaren garapenean ere. Bere hutsuneak gorabehera, eta agian haiengatik, psikologoek eta hizkuntzalariek arteko eztabaida eta harremanak piztu zituen, eta bere lanak ikerketa eta lan asko ekarri zituen. Horregatik deitu izan zaio aldi horri “Wundten garaia”.

GAKO-HITZAK: hizkuntza; psikolinguistika; Junggramatiker; Wundten hizkuntzaren psikologia.

ABSTRACT. *The aim of this paper is to study the relationships between linguistics and psychology in the early stages of their existence as independent scientific disciplines. The study covers the last quarter of the nineteenth century and the first years of the twentieth century, more specifically, from 1875 to 1920. The reason why these years have been chosen is that the founder of experimental psychology Wilhelm Wundt arrived in Leipzig in the year 1875 and he remained there until his death in 1920. Wundt's ideas exerted an enormous influence, not only on the development of psychology, but also on the development of linguistics. Despite his gaps, and perhaps because of them, he stimulated debates and contacts between psychologists and linguists, and his work gave rise to a lot of research and writings. That is why this period has been named “Wundt's time”.*

KEYWORDS: *language; psycholinguistics; Junggramatiker; Wundt's psychology of language.*

* [Lan honen lehenagoko bertsioa hemen argitaratu zen, 2004an: *Gogoa* IV (2): 253-308.]

Lan hau egin da autorea kide den ikerketa taldeari EHUK emandako laguntza honi esker: 9/UPV OOI09.109-14449/2002. Autoreak, bestalde, eskerrak ematen dizkie lana arretaz irakurri eta zuzenketak egin dizkioten GOGOAKo ebaluatzaileei.

Nola aipatu / How to cite: Huizi, Pello (2024). “Hizkuntzalaritza eta psikologia: Wundten garaia”, *Gogoa*, 24, 33-89. (<https://doi.org/10.1387/gogoa.26058>).



Lan honetan, hizkuntzalarien eta psikologoaren arteko harremanak aztertzen dira hizkuntzalaritzak eta psikologiak jakintza autonomo bezala egin zituzten lehen urratsetan, 1875etik 1920ra bitartean zehazkiago. *Atarikoak* deitu dugun lehenbiziko atalean xehetasun batzuk ematen ditugu hemen hizpide ditugun bi diziplinen sortze-urte eta -lekuaz eta bien arteko harremanen zergatiak eta zer-nolakoak. Bigarren atala, atal nagusia, bi zatitan banatu dugu. Aurreneko zatian, begiratu bat ematen diegu XIX. mendearen hasieratik hizkuntzari eta psikologiari dagokienez garatuz joan ziren pentsabide eta ikerketa-bide batzuei. Bigarren parteak heltzen dio funtsean lan honen helburua den gaiari: nolakoak izan ziren hizkuntzalarien eta psikologoaren harremanak Wundtten eragina psikologian ez ezik hizkuntzalaritzan ere izugarria izan zen urteetan.

1. Atarikoak

a) Bateratsu jaiok

Hizkuntzalaritza eta psikologia, diziplina zientifiko berezi eta autonomo diren aldetik, bateratsu jaiok dira. Gutxienez esan daiteke mende berean sortu zirela biak, XIX. ean, nahiz baden hizkuntzalaritza moderno edo zientifikoaren sortzea XVIII. mendearen hondarrera aurreratu nahi duenik, baita XX. mendearen hasierara atzeratu nahi duenik ere. Baina, mende berean ez ezik, mende-laurden berean jaio zirela ere esan daiteke laster ikusiko dugunez, XIX. mendeko azken laurdenean, hain zuzen ere.

Psikologiari dagokionez, 1879. urtean jaio zela esaten da. Hori da psikologiaren jaiotze-urte ofiziala, gaur egun segur aski inork zalantzan jartzen ez duena. Urte hori aukeratu zen urte horretan ireki zuelako Wilhelm Wundtten Leipzigen, Alemanian, psikologia esperimentalerako lehen laborategia. Laborategi horren garrantzia ezin ukatuzkoa da; izan ere, hortik atera ziren aurreneko psikologoetako asko, Wundt gidari zutela laborategian ikerketa egiten ikasi eta doktore-gradua lortu ondoren,¹ eta hurrengo urteetan munduan barrera sortu ziren laborategi askok Leipzigezkoa hartu zuten eredutzat. Robinzen (2000) arabera, zenbait gertaera aipagarriren ondorio bereziak direla eta, data jakin batzuk probetxugarri gerta omen daitezke.² Psikologian, horrelako data bat aipatu dugun hori izango litzateke. Dena dela, psikologia berriaren, hau da, diziplina autonomo eta zientifikotzat hartzen den psikologia-

¹ Amerikarrak bakarrik, ia berrogei izan ziren Wundtten garaian (ikus, *e.g.*, Goodwin 2004), bera gidari zutela, doktore-tesia bukatu zutenek eta beste hainbatek ere gutxienez ezagutu nahi izan zuten Leipzigezko giroa.

² Robinsek, egia esateko, "beharbada" probetxugarri gerta daitezkeela dio hor eta oso konfiantzaz hartzekoa den zerbait erantzen du: pentsaera aldaketak azaltzeko ereduak ez gertakari jakin batzuetan, baizik elkarren jarraian datozen olatuetan bilatu behar dela.

ren zimenduak jartzen hasiak ziren urte asko lehenago zenbait fisiologo Alemanian, horien artean Wundt bera. Aipagarrienak Ernst Weber eta Gustav Fechner dira, eta batez ere azken hau; izan ere, Goodwinen hitzetan (2004: 92), hark egindako ikerketek eta berak asmatutako metodoek “aukera eman zieten beste batzuei Fechnerrek ikusi ez zuena ikusteko: bazegoela fenomeno psikologikoei metodologia zientifikoa aplikatzerik”. Wundtek berak, bestalde, 1862an argitara eman zuen bere lehenbiziko liburuan dagoeneko egina zuen giza esperientzia kontzientea zientifikoki aztertzekeo deia eta 1873 eta 1874an bi liburukitan kaleratu zuen bere lan nagusiaren hitzaurrean honela zioen: “Hemen aurkezten dudan liburu hau zientzia arlo berri bat mugarrizteko ahalegin bat da”.

Hizkuntzalaritza eta psikologia, biak, XIX. mendean sortu zirela esan dugu. Psikologia modernoaren mugari hartzen den urteaz ere hitz egin dugu. Hizkuntzalaritza modernoak ba ote du horrelako datarik? Galdera horri baietz erantzungo lioke Robinsek (2000). Hizkuntzalaritzaren historialari honek bi data ematen ditu: 1786 eta 1878. Lehenengoari dagokionez, Robinsen (2000: 210) arabera, 1786. urtea har daiteke “Zientzia linguistikoa-ren gaur egungo munduaren hasiera markatzen duen” urtetzat. Urte horretan irakurri zuen sir William Jones (1746-1794) Indiako Britainiar Auzitegiko epaile zenak, berak sortutako *Royal Asian Society* elkarteko kideen aurrean, hizkuntza indoeuoparren ahaidetasuna ezartzen zuen txosten aipatua. Data horren eta txosten horren garrantziari buruz, Campbell (2001), linguistikaren historialaria bera ere, ez da Robinsen irizkide. Campbellen arabera, Jones hizkuntzalaritza konparatzailearen sortzaile eta hizkuntza indoeuoparren arteko loturaren aurkitzailetzat hartzea linguistikaren historia gaizki ulertetik dator. Ehun urte lehenago, 1686an hain zuzen ere, oso antzeko gauzak idatziak zituen Andreas Jäger delako batek (ikus Campbell 2001; baita *Encyclopaedia Britannica* ere, “linguistics” sarrera). Eta aurreko gehiago ere baditu Jonesek, Campbellek erakusten duenez. Beraz, hizkuntzalaritza konparatzailea ez zuen Jonesek sortu; hark ez zuen bere garaiko pentsaera islatu baizik egin. Dena dela, Jonesen adierazpenaren eraginez edo bestela, linguistika nolabait zientifikoa XIX. mendearekin hasi omen zen; hala zioen behinik behin Koldo Mitxelenak 1970eko udan Donostian egindako hitzaldietako batean:³ “Histori liburu bat hartuz gero ikusiko duzue (oraintsu arte hala zen behintzat) 1800 arte dagoen aldi luze hori ez dela linguistikaren historian sartzen. Hura historia aurrekoa zen, prehistoria. Esandako urte horretan hasten baitzen linguistika zientzia bezala, guti gorabehera” (1990: 29). Mila zortziehun inguruan hasten dena hizkuntzalaritza historiko konparatzailea da, diakronikoa ere esaten zaiona eta helburu hauek dituena: aldaketa fonologiko, gramatikal eta semantikoak aztertzea, hizkuntzen lehenagoko aldiak berre-

³ Hitzaldiak erdaraz egin zituen Mitxelenak. J. A. Letamendiak euskaratuta, 1990ean atera ziren argitara.

raikitzea eta hizkuntzen arteko jatorri-ahaidetasunak frogatzeko metodoak aurkitu eta erabiltzea. Ramus Rask (1787-1832), Franz Bopp (1791-1867) eta Jacob Grimm (1785-1863) dira hizkuntzalari historiko nagusiak mende hasieratik 1870eko hamarkada arteraino. Hamarkada horretan, “gramatikari gazteak”, alemanez *Junggrammatiker*, zeritzen hizkuntzalari historikoez aurrekoen pentsaerarekin hautsi zuten. Baina kontu horrek Robinsen bigarren datara garamatza.

Bigarren data, 1878a, interesgarriagoa da guretzat, eta hori bi arrazoirengatik. Lehenbizikoa da autore gehienak bat datozela 1878. urtearen edo, urte jakin bat aipatu gabe, 1870eko hamarkadaren garrantziaz den bezainbatean. Salbuespena dira linguistika modernoaz Ferdinand de Saussurerekin izenarekin lotzen den linguistika sinkronikoa aditzen dutenak, Berreby (1994), Fraisse (1977 [1967]) eta Graber (2001), adibidez; horien iritzian, hizkuntzalaritza modernoa xx. mendearen hasiera aldera jaio zen, Saussurerekin *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa* (1998 [1916]), bera hil ondoren, argitara eman zenean zehazkiago. Robinsekin bat dator arestian aipatu dugun Campbell (2001), baita Anderson eta Lightfoot (2002) ere. Bigarren arrazoiak hasiera-hasieran esan dugunarekin du zerikusia, hizkuntzalaritza eta psikologia zientifikoak bateratsu jaio zirela alegia. Ontzat ematen bada 1878. urtea urte erabakigarria izan zela hizkuntzalaritza zientifikoaren sortzean, orduan ez litzateke urte baten aldea besterik egongo bi jakintzen sortzean artean. Dena dela, xix. mende osoa eta bereziki azken laurdena muntarik handienekoa izan zen hizkuntzalaritza eta psikologia zientzien mailara jasotzeko.⁴ Belinchón eta bestek (1992: 57) mendearen azken herenean jartzen dute “hizkuntzalaritza eta psikologia modernoaren sortze eta zertze prozesua”.

Esan dugun data horrek, 1878ak, edo oro har 1870eko hamarkadak, zergatik dute aitortzen zaien axola handi hori? Robinsek 1878 linguistikaren historia garaikidearen mugari hartzen du, urte horretan agertu zelako Hermann Osthoff (1847-1909) eta Karl Brugmann (1849-1919) “gramatikari gazteek” idatzitako agiri edo artikuluko programatikoa, batzuetan “gramatikari gazteen manifestua” ere esaten zaiona. Gramatikari gazteak hizkuntzalari historiko konparatzaile batzuk ziren, eskolatuak zeuden tradizio zientifikoari aurka egin ziotenak 1870eko hamarkadan. Tradizio horri eusten ziotenek jarri zieten *Junggrammatiker* (“gramatikari gazte”) izena; erdeinuz jarri ere, indarra *Jungen* ipiniz haien heldutasun falta azpimarratu nahian (ikus, e.g., Blumenthal 1987).⁵ Haiek, ordea, eder iritzi zioten mespretxuz jarritako ize-

⁴ Nolanahi ere, Blumenthalek (1987) dioenez, xix. mendean dagoeneko hizkuntzaren ikerkuntza, Alemanian *Sprachwissenschaft* esaten zitzaiona, sendo ezarria zegoen unibertsitatean sail berezi eta autonomo bezala.

⁵ Ingeleseztan *neo-grammarians* esaten zaie hizkuntzalari horiei, baina itzulpen hori engainagarria dela dio Blumenthalek (1983, 1987), hasieran *Junggrammatiker* izenak ez baitzuen hizkuntzalari horiek oso gazteak eta inozoak zirela besterik esan nahi. Bide batez esan dezagun Saussurerekin

nari eta izen hori gelditu zitzairen. Manifestuaren autoreez gainera, gramatikari gazte aipagarrienak honako hauek dira: Berthold Delbrück (1842-1922), August Leskien (1840-1916) eta Hermann Paul (1846-1921). Osthoff eta Brugmannen manifestuak hizkuntzalari horien tesi nagusia aurkezten zuen: denbora joan ahala hizkuntza baten hots-sisteman gertatzen diren aldakuntzak hots-lege erregularren lanari zor zaizkiola. Ordura arteko printzipio edo legeek, “Grimmen legea” esaten zaionak adibidez, salbuespenak zituzten, bazuetan esplizituki onartuak. Gauzak zientziaren bidetik eraman nahian gramatikari gazteek honela formulatu zuten beren doktrina: “hots-aldaketa oro, mekanikoki gertatzen denez, salbuespenik onartzen ez duten legeen arabera gertatzen da”. Ordu arteko printzipioari, “Salbuespenik gabeko erregularik ez dago”, honako beste hau kontrajarri zioten, hortaz: “Erregularik gabeko salbuespenik ez dago”. Robinsen arabera, gramatikari gazteen ikuspuntuak eraginda, pentsatzeko eta ikertzeko bide berriak urratu ziren eta, hots-aldaketaren erregularitasunaren printzipioak hasieran oso eztabaidagarria bazirudien ere, XIX. mendearen azkenerako argi zegoen hizkuntzalaritza historikoak printzipio horretan oinarritu beharra zeukala zientzia izan nahi bazuen. Anderson eta Lighfootek (2002) linguistika historiko modernoaren sortzailetzat daukate gramatikari gazteak; haiek, 1870eko hamarkadan, metodo benetan zientifikoak erabiltzen hasi ziren arte, hizkuntzalaritza zientzia enpirikoa adina filosofiaren adarra omen zen. Campbellek (2001), berriz, 1876 inguruan hasita hizkuntzalari horien eragina Alemanian izugarria izan zela dio. Ohiz kanpoko lekuko bat Giles da, XX. mendearen hasieran Filologia Konparatzailea irakasten zuena Cambridgeko Unibertsitatean, gramatikari gazteak oraindik bizi zirela eman baitzuen bere iritzia horiei buruz. Gilesen (2004 [1909]) arabera, ikertzaile gazte horien eraginez, garai berri bat hasi zen hizkuntzalaritzan, garai berria eta oso eraginkorra.

Beraz, badirudi esan dezakegula, huts egiteko arrisku handiegirik gabe, psikologia eta hizkuntzalaritza ia batera sortuak direla. Nolanahi ere, erants dezagun berehala Reber (1987) psikolinguistak bai hizkuntzalaritzaz eta bai psikologiaz dioena, hots, inork ez dakiela ziur noiz hasi ziren zientzia izaten.

b) Alemanian jaiotak

Baina psikologia eta linguistika ez dira garaikide bakarrik; horrezaz gainera, Alemanian sortuak dira biak eta, XIX. mendean behintzat, batez ere han landuak. Europako beste lurraldeetatik eta Ipar Amerikatik Alemaniara jotzen zuten hizkuntzalaritzan nahiz psikologian trebatu nahi zutenek (hizkuntzalaritzari dagokionez, ikus, adibidez, Robins (2000: 241), eta psikolo-

Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroaren euskal itzulpenean “Neogramatikari” hitza erabiltzen dela. Guk, hemen, “gramatikari gazteak” edo Junggrammatikerrak deituko diegu.

giaz den bezainbatean, Schultz eta Schultz (2000: 79), eta Goodwin (2004: 86). Jakintza horiek zergatik, jaio ziren Alemanian eta zergatik eman zituzten han aurreneko pausoak ulertzeko, unibertsitate alemanen zenbait berezitasun hartu behar dira kontuan. Hasteko, unibertsitate asko zegoen Alemanian; izan ere, 1871. urtean Bismarckek denak batzea lortu zuen arte, Alemania 38 “printzerri” autonomok osatzen zuten eta horietako bakoitzak, beste hainbat gauzaren artean, bere unibertsitate propioa nahi izan zuen eduki, beste printzerriak baino gutxiago ez izateko. Bigarrenik, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, unibertsitate alemanetan hezkuntza ulertzeko modu berezi bat zabaldu zen, *Wissenschaft* deitua, aldi berean ikerketa jasoa eta irakaskuntza-askatasuna azpimarratzen zituena. Ikasleak ere, bestalde, libre ziren unibertsitate batetik bestera ibiltzeko eta, titulua ateratzeari dagokionez, garrantzi handiagoa ematen zitzaion azterketa berezi batzuk gainditzeari eta ikerketa-tesiareen defentsari curriculum jakin bat betetzeari baino. Hirugarrenik, zientziaren kontzeptua askoz zabalagoa zen Frantzia eta Britainia Handikoa baino; izan ere, oraintxe aipatu dugun *Wissenschaft* kontzeptuak jakitearen edozein arlo organizatu esan nahi zuen eta zientzia fisiko edo naturalak ez ezik, gizarte- eta giza zientziak ere barne hartzen zituen. Azkenik, asko izateaz gainera, Alemaniako unibertsitateak ongi finantzatuta zeuden eta laborategiz eta bestez ongi hornituta. Ikertzaileek aukera handiak zituzten teknika zientifiko berriak ikasi eta erabiltzeko.

c) Zergatik harremanetan?

Hizkuntzalaritzak eta psikologiak zer dela eta egon behar dute harremanetan? Zer ikusi behar dute batak bestearekin? Hizkuntzalaritza hizkuntzaren azterketa zientifikoa da; psikologia, aldiz, giza jokabidearen azterketa zientifikoa. Dena dela, “jokabide” hitza zentzurik zabalenean hartzen da betiere; horrela, pentsatzea edo norbaiti zerbait komunikatzea ere jokabideak dira. Giza komunikazioan hizkuntza funtsezkoa da ia beti; funtsezkoa, gainera, ez bakarrik elkarrekin komunikatzeko, baizik baita nor bere buruarekin komunikatzeko ere (ikus Marina 2004a, b). Horregatik, ez luke inork psikologoaren eta hizkuntzalariren arteko harremanez harritu behar, bai haientzat, bai hauentzat hizkuntzaren izaera ulertzeak duen interesa begien bistakoa baita. Hizkuntzalarientzat hala dela ez dago zalantzarik, baina hala izan ote da beti psikologoentzat?

G. A. Miller (1994)⁶ psikologoak, “The place of language in a scientific psychology” (“Hizkuntzaren lekua psikologia zientifikoa”) izena duen lanean, galdera hau egiten du, “Hizkuntzak ba al du egiatan garrantzirik psikologiarentzat?”, eta zenbait psikologo ospetsuren erantzunak jasoz, bost ja-

⁶ Lan hau artikulu moduan agertu zen aurrena aldizkari honetan: *Psychological Science*, 1990, 1: 7-14.

rrera bereizten ditu. Hizkuntzaren garrantziaz ongi jabeturik horren inguruan zerbait egin nahi izan zutenena da aurrenekoa. Wilhelm Wundt (1832-1920) eta Karl Bühler (1879-1963) sartzen ditu hemen. Wundten *Völkerpsychologie* (*Psikologia kulturala*, 1900-1909) lan handiaren lehenbiziko bi liburukiak hizkuntzaz ari dira; Bühlerrek, berriz, *Sprachtheorie* (*Hizkuntzaren teoria*, 1934) liburuan honela dio: “etengabe gogora ekartzen den psikologiaren eta linguistikaren elkarrekiko laguntzak fruiturik emango badu, bi aldeetako espezialistek besteen ikuskeretan esku hartzeko ausardia behar dute” (Millerrek aipatua, 1994: 192). Bigarren jarrerak errezeloa eta mesfidantza ditu ezaugarri, eta William James (1842-1910) amerikar psikologia funtzionalistaren aitzindaria hartzen du Millerrek jarrera honen ordezkari; Jamesentzat, izan ere, hizkuntza huts-eragile nagusietako bat zen psikologian. Hirugarren ikuspuntua John Watson (1878-1958) behaviorismoaren sortzailearen eta Burrhus F. Skinnerren (1904-1990) ikuspuntua da; hizkuntzari garrantzia ematen zioten, baina ez zen jokabidea baizik (ikus, adibidez, Skinner 1957). Millerrek aipatzen duen laugarren jarrera Freudena (1856-1939) da, hau oraindik neurologoa besterik ez zenekoa. Mila zortziehun eta laurogeita hamaikan, Freudek monografia bat idatzi zuen hizketa eta hizkuntzarentzat giza garunean zentro bereziak zeudela ziotenen kontra. Azkenik, hizkuntza garrantzizkoa dela aitortu ondoren horretaz ahaztu egiten direnak daude. Hau omen da jarrerarik hedatuena. Millerrek hasierako Gestalt psikologoak sartuko lituzke hemen, Kurt Koffka (1886-1941) adibidez; honek, pentsamendua eta irudimena hizkuntzaren teoriarik gabe ezin zirela erabat azaldu esan ondoren, uko egin zion hizkuntza aztertzeari, gai bihurriegia zela argudiatuz. Lehen psikologoek hizkuntzaren aurrean erakutsitako jokamoldeak sailkatu ondoren, Millerrek honela bukatzen du kontu honi buruzko atala: “[J]aramonik ez egitea izan zen gure aita sortzaile gehienek eutsi zioten jarrera. Beste buru-prozesu batzuei eman zitzaizen lehenetasuna eta hizkuntza hizkuntzalari profesionalentzat utzi zen” (Miller 1994: 193). Ez da ahaztu behar, ordea, Millerrek xx. mendearen erdialdera arteko psikologo ezagunenak hartzen dituela kontuan eta, behaviorismoaren indarra 1950eko hamarkadaren erdialdera makaltzen hastearekin batera, bazterturik egon ziren hainbat gai argitara ateratzen hasi zirela. Gai horietako bat hizkuntza izan zen, hizkuntzaren psikologia zehazkiago, edo psikolinguistika, urte horietan hedatzen hasi zen izena aipatzeko. Millerrek berak, 1962an, dagoeneko egina zuen honako baieztapen hau: “giza gogamena estudiatzeko biderik onenetako bat horrek erabiltzen dituen hitzezko sistemak estudiatzeko da” (1994ko lanean aipatua, 198. orrialdean). Artetik esan dezagun ideia hori ez zela berria; izan ere, ia ehun urte lehenago adierazia zuen Wundtek (ikus Altmann 2001).

d) Zer-nolako harremanak? Zenbait iritzi

Aurreko paragrafoan psikologiaren eta hizkuntzaren arteko loturaz aritu gara, eta ez psikologiaren eta hizkuntzalaritzaren artekoaz. Baina, bistan da,

hizkuntzaz axola gutxi duenari nekez sortuko zaio hizkuntzalariaren lanaren berri jakiteko interesik, eta are gutxiago horrekin batera lan egiteko gogorik. Psikologoek eta hizkuntzalarien arteko harremanak historian zehar nola-koak izan diren aztertzea da lan honen asmoa. Hartu-eman horien gorabeherak zehatz eta zabal aztertzen hasi aurretik, ordea, gaiaren gaineko iritzi batzuk aurreratuko ditugu hemen. Eta lehenik Tomaselloren iritzia ekarriko dugu hona. Tomasello, psikologoa izanik, autore guztiak hizkuntzalariak diren liburu baten argitaratzailea da. Liburuaren izena da *The new psychology of language*. Zergatik jarri zaion izen hori, “Hizkuntzaren psikologia berria”, hizkuntzalari direnen lanez osatua dagoen liburuari? Erantzuna Tomasellok berak ematen digu hitzaurrean: hizkuntzalari horien hizkuntzara hurbiltzeko modua —hizkuntzalaritza kognitibo-funtzionala— funtsean psikologikoa delako aukeratu omen du izen hori. Tomaselloren iritzia dagokionez, hitzaurrearen lehenbiziko esaldian dago adierazita: “Psikologoek jarrera hizkuntzalaritzari dagokionez problematikoa izan da hasieratik” (1998: vii). Eta horren frogagarri, Wundten kideak eta haren ondorengo hurbilak aipatzen ditu aurrena, laborategiko metodo berriek liluraturik zeuzkatenak, eta ondoren 20. mendeko behavioristak, hizkuntza jokatibide mota bat baizik ez zela ziotenak. Fitzpatrick eta Wheeldonen (2000) arabera —hauek Chomskyren *Syntactic structures* liburuaren ondoko urteez ari dira—, ez da inoiz harreman argi eta ongi mugaturik izan teoria psikologikoaren eta linguistikoaren artean. Segalowitzi (2001) bitxia iruditzen zaio psikologiaren eta hizkuntzalaritzaren artean gertatutakoa; izan ere, biek nahi dute hizkuntzaren izaera ulertu eta, hala, elkarlanean aritu beharko lukete, duela 40 urte aritu ziren bezala, baina gauzak oso bestela dira gaur egun: psikologoek ez dituzte kontuan hartzen hizkuntzalaritza teorikoan egin diren aurrerapenak eta psikologian egin direnak ezezagunak dira hizkuntzalaritza teorikoarentzat. Beaugrandek (1996) bi jakintza hauen arteko lokarria iraunkorra, bai, baina korapilatsua eta irmotasunik gabea aurkitzen du. Azkenik, Slama-Cazazu (1972) psikolinguistaren iritziz, aspaldidanik egon dira harremanetan psikologia eta linguistika, bien arteko harremanak XIX. mendean hasi baitziren; hala ere, noizbehinka bakarrik gertatu omen dira eta batzuetan, gainera, halabeharrez. Psikologoek eta hizkuntzalariek elkarlanerako erakutsi duten zailtasuna dela eta eman diren azalpenetatik, bi eskainiko ditugu hemen oraingoz. Lehenbizikoa David Rumelhartena da (ikus Smolensky 1999). Rumelhartek arabera, psikologoak esperimenezkoak dira funtsean eta eszeptiko samarrak gehiengotan kognizioaren teoriei buruz; teoriak, psikologoentzat, aitzakia bat dira esperimentuak antolatzeko. Hizkuntzalariak, aldiz, teorianak omen dira. Bigarren esplikazioa Kathryn Bockena (1990) da. Honen ustez, denbora tratatzeko modu desberdinak azalduko luke psikologoek eta hizkuntzalarien arteko aldea hizkuntzari buruzko planteamenduetan. Hizkuntzalaritzan, denbora oztopo eta traba da; psikologian, aldiz, denbora funtsezkoa da. Hemen, hizkuntza mintzatzailerak erabiltzen duten aldetik azaldu nahi da, eta erabili, egoera jakin batzuetan egiten da; han, hizkuntza mintzatzailerak ezagutzen duten aldetik esplikatu nahi da, eta ezaguera hori estatiko samartzat hartzen da.

Aipatu berria dugun *The new psychology of language* liburuaren deskribapenean (ikus atzeko azala), hizkuntzalariek eta psikologoek elkarrekin harreman gutxi izan duten aldiak eta, modu mugatuan izan bada ere, batzuek besteen teoria eta metodoak erabili dituzten aldiak bereizten dira. Arthur Blumenthalen (1970, 1983, 1987) esan zuen aurrena, eta, hari jarraiki, beste askok errepikatatu dute gero (ikus, *e.g.*, Bechtel 1987, Carroll 1999, Kess 1991, Reber 1987), psikologiaren eta linguistikaren elkarlanak bi loraldi izan dituela. Lehen loraldia XIX. mendearen azken hamarkadetan eta XX.aren hasieran gertatu zen, Europan bereziki; bigarrena, berriz, 1960etan heldu zen, batez ere Amerikan. Lehenbizikoan, psikologiaren eragina hartu zuen linguistikak; bigarrenean, aldiz, linguistikarena psikologiak. Bi loraldi horien artean, etenaldi luzea egon zen, 1920 ingurutik 1950eko hamarkadaren azken aldera arte, hizkuntzalarien eta psikologoaren arteko harremanetan. Bigarren loraldiak, bestalde, gutxi iraun zuen, bi hamarkada gutxi gorabehera, eta ondoren berriz ere etenaldia etorri zen, oraindik ere irauten duena, hurbiltze saio garrantzizkoak badaude ere. Lan honetan, lehenbiziko loraldiaz ariko gara.

2. Wundten garaia: 1875-1920

Lehen aldia dugu hau hizkuntzalaritzaren eta psikologiaren arteko joan-etorrien historian, lehen aldia eta lehen loraldia. Lehen aldia, sortu berriak zirelako biak diziplina moderno gisa; lehen loraldia, bien arteko harremanak estuak izan zirelako hasiera haietan, harreman liskartsuak askotan, baina estuak hala ere. Blumenthalen (1983: 804) arabera, psikologoaren eta hizkuntzalarien artean batzuen eta besteen ideiak joan-etorriak ibili ziren XIX. mendearen azken hamarkadetan eta XX. mendearen hasieran; eta besteen ideiei kontra egiteko izan bazen ere hala sarritan, gutxienez bazekiten elkarren berri. Zientzialariek elkarren ikuspegiak berri jakitea zein mesedegarria den ederki adierazia du François Jacob (2004 [1997]) biologoak, euskaraz, Juan Garzia Garmendiak itzulita, atera berria den *Sagua, eulia eta gizakia* liburuan:

Eta, teoriak eta ereduak zertzeko, hobe da bi izatea bat bakarra baino. Barne-bakarrizketaren aldean, egokiagoa da noski, langintza horretarako, bestelako solasa: alegia, lankidetzan, eztabaidan, elkarren kritikan jarduten, mundua ikusteko bi modu desberdin aurrez aurre jartzen —hots, elkarrekin nahiz elkarren aurka lan egiten— ohiturik dauden bi espirituren elkarriketa, alegia. Hori, ikerketaren alderdi jostagarria ez aipatzearen, askoz atseginagoa baita biren artean bakarka baino. Izan ere, biren artean lasterragoa da gogoetaren jarioa. Solaskidez solaskide punpaka, bata bestean txertatuz doaz ideiak, zuhaitz baten adarrak bezala. Eta mamuei, berriz, ez zaie uzten oskoletik irteteko betarik ere. (Jacob (2004 [1997]): 68)

Esan gabe doa atal honen izenburuan jarri ditugun urte horiek gutxi gorabeherakoak direla. Lehenbiziko urtearen orde, 1870 jar zitekeen, edo

1878, eta, bigarrenaren ordez, 1929, Blumenthalek (1983) egiten duen bezala.⁷ Bada, ordea, arrazoirik bi urte horiek aukeratzeko; izan ere, Wundt 1875ean iritsi zen Leipzigera eta 1920an hil zen bertan. Argi utzi nahi izan dugu, horrela, bitarte horretan edo, hobeki esateko, ia bitarte horretan guztian, Wundt ez zuela gainerik izan psikologian, gutxienez Europakoan, eta psikologoaren eta hizkuntzalarien arteko harreman eta gorabeheretan ere bera izan zela erreferentzi puntu nagusia. Hori da, bestalde, aldi hau Wundt-en garaia deitzeko arrazoiak ere. Wundt-en hizkuntzaren teoriak orduko hizkuntzalari eta psikologo asko aldeko nahiz kontrako jarrera hartzera behartu zituela esan daiteke ia. Baina horretaz geroago ariko gara, Wundt-en hizkuntzaren psikologiaz hitz egin ondoren.

Aurrena, ordea, begiratu bat eman nahi diegu XIX. mendearen hasieratik hizkuntzari eta psikologiari dagokienez garatuz joan ziren pentsabide eta ikerketa-bide batzuei; eta batzuei esatean, beste batzuk kanpoan utziko ditugula esan nahi dugu, Ramus Rask, Franz Bopp eta Jacob Grimmenak adibidez, hauek ez baitute hurbileko loturarik hemen aztertu nahi dugun gaiarekin. Bestalde, Wundt berari buruz esatekoa —haren pentsaera, parte hartu zuen eztabaidak, haren aldeko eta aurkako hizkuntzalari zein psikologoak— bigarren parterako utziko dugu, XIX. mendeko gainerako agerpen teoriko nagusiak aurkeztuta daudenerako.

a) XIX. mendeko joerak hizkuntzalaritzan eta psikologian

Honako hauen ideia eta ikuspuntuak azaldu nahi ditugu hemen: Humboldt, Herbart, Schleicher, Lazarus eta Steinthal eta “Gramatikari gazteak”. Azken hauen artean, Hermann Paulen pentsaerari leku berezia eskainiko diogu.

i. *Wilhelm von Humboldt (1767-1835)*

Humboldt ez gauza hauek guztiak esaten zaizkigu (ikus, *e.g.*, Belinchón *et al.* 1992, Hutton 1995a, Menze 2001, Robins 2000, Stubbs 2002, UZEI 1982): hezkuntza erreformatzaile eta Berlingo Unibertsitatearen sortzailea izan zela, hizkuntzaren filosofoa, filologo, literatur kritikoa eta poeta, politikoa eta irakaslea, mugimendu humanista berriaren gailurra, XIX. mendeko pentsalaririk sakon eta originalenetakoa hizkuntza gaietan, XIX. mendearen hasieran interesa historian jarri ez zuten hizkuntzalari bakaretakoa, etno-

⁷ Blumenthalek beste arrazoi batengatik aukeratu zuen lan horretan 1929. urtea. Psikologiaren sortzearen mendeurrena zela eta, biren artean banatu zuten psikologiaren historiako lehenbiziko mendean psikologiaren eta hizkuntzalaritzaren artean izandako harremanen berri ematea. Blumenthali mendearen lehen erdia egokitu zitzaion, 1879tik 1929ra bitarteko aldia.

linguistikako eta ikerketa linguistiko konparatzaileetako aurrerabide modernoan aitzindaria; gainera, gaztetan zenbait hizkuntzaren —horien artean, euskararen—⁸ estudio konparatzaileak egin zituela, baita berrehunetik gora hizkuntza ikasi ere, horien artean euskara.

Humboldték hizkuntzaren alderdi hauek azpimarratzen zituen: hizkuntza, gramatikaren zein lexikoaren aldetik, sortzailea dela; hizkuntza *energeia* dela, hau da, indarra, gaitasuna, jarduera; azkenik, hizkuntzan badela “barneko” forma edo egitura linguistiko bat, *innere Sprachform* alemanez.

Badirudi Humboldtén idazki guztietan ageri dela hizkuntza sortzailea delako ideia (Robins 2000). Eta ideia horrek eramango zuen esatera hizkuntza jarduera dela eta ez ekoizpen hutsa, *energeia ergon* baino gehiago (UZEI 1982, “Humboldt” sarrera). Hizkuntza, Humboldtentzat, sortzeko gaitasuna da, hiztun-entzuleengan dagoen gaitasun bat, *energeia* edo indar bat, eta ez gauza bukatua eta hila, *ergon* edo produktu bat, hor kanpoan dagoena gramatikariék analizatzeko. Menzeren (2001: 24) hitzetan, Humboldtentzat “[h]izkuntza ez da obra hila; aldiz energia bizia da, gizakiaren eta munduaren arteko bitarteko”. *Energeia* horrek egiten du posible pentsamendua; gehiago oraindik, *energeia* horrek sortzen du barneko “norberatasuna”. “Gizakia, bere izaeraren arabera, hizkuntza-sorkaria da” (*ibid.*: 25). Humboldték, bestalde, barneko hizkuntza-forma eta kanpoko forma bereizi zituen. Kanpoko forma hotsak dira, hizkuntza guztiak eginak dauden material gordina; barneko forma, aldiz, material gordin horri ezarritako gramatikaren eta esanahiaren egitura da. Stubbsen (2002) arabera, *innere Sprachform* delakoaren ideia da Humboldtén ideiarik bereziena eta bereizgarriena, baita eztabaidagarriena ere. Autore horrek berak adierazten duenez, kontzeptu horrek gramatika baino sakonagoa eta funtsezkoagoa den hizkuntzaren alderdi bati begira jarri zituen hizkuntzalariak.

Humboldt ez zen berehala hasi eragina izaten. Bere garaiari aurrea hartu baitzion, hizkuntzari buruz zuen pentsaerak ez zuen orduan giro egokirik aurkitu. Hona, adibidez, Chomskyren iritzia:

Humboldtén ikusmoldearen kontrakoa argi eta garbi, hemeretzigarren mendeko hizkuntzalaritza orokorrean dagoen ikuspegia beharbada Whitneyk⁹ adierazi du hobekien, hots, “hizkuntza zentzu konkretuan (...) edozein gizakik bere pentsamendua adierazten duen hitz eta esaldien batura [dela]”; hizketa aztertzea ez dela hots-zeinu multzo bat aztertzea baizik. (1964; aipatua in Blumenthal 1970: 204)

⁸ Chris Huttonen (1995a: vi) arabera, batez ere euskara aztertuz sortu zitzaion Humboldtí hizkuntzalaritza orokorrarekiko interesa.

⁹ William Dwight Whitney, XIX. mendeko iparramerikar hizkuntzalaria, sanskritoaren iker-tzaile nagusietakoa izan zen bere denboran.

Dena dela, Humboldtten ikuskerak bizirik iraungo zuen eta hark utzitako ondarea mendearen bigarren partea aurreratuxea zela hasiko zen kontuan hartua izaten.

Lazarus eta Steinhalek 1860an sortu zuten *Herrien Psikologiaren eta Hizkuntzalaritzaren Aldizkariak* hiru hamarkadatan zehar zabalduko zuen Humboldttek azpimarratzen zuen hizkuntzaren alderdi sozial eta kulturala, hizkuntza jende-kolektibitateek egiten eta erabiltzen dutelako ideia, alegia. Wundt ere bat zetorren ideia horretan, hots, hizkuntza interesgarria dela herrien psikologia edo psikologia kulturalari begira, baina, aldi berean, hizkuntza banakoaren jardura delako ideari ere eutsi nahi izan zion eta, hortaz, psikologia esperimentalak baduela hor esku hartzerik. Wundt, bestalde, Humboldt bezala eta hari jarraituz, hizkuntza prozesuen izaera sortzailea azpimarratzen zuen; hizkuntzan, gainera, barneko fenomenoak eta kanpokoak bereizten zituen eta hor ere bistan dago Humboldtten barneko formaren eta kanpoko formaren arteko bereizketaren eragina.¹⁰ Ottmar Dittrich, Wundtten ikasleak, 1913an, bere *Hizkuntzaren psikologiaren problemak* liburuan egin zuen bereizketak ere Humboldtten bereizketan du oinarri; Dittrichek azaleko egitura eta oinarrizko egitura bereizi zituen hizkuntzaren sintaxian. Belinchón eta besteren (1992) arabera, Humboldtten “psikologizazioak” gramatikari gazteei ere eragin zien, hauek hizkuntzetan gertatzen diren zenbait aldaketa azaltzeko beharrezkotzat jo baitzituzten printzipio psikologiko batzuk, analogiarena nagusiki.

Hogeigarren mendean ere, bi hizkuntzalari handi zorretan daude Humboldtekin. Lehenengoa Ferdinand de Saussure (1857-1913) da. Belinchón eta beste (1992), Chomsky (1964) eta Stubbs (2002) bat datoz baieztatzean Saussurek Humboldtten eragina hartu zuela. Chomskyrentzat, adibidez, ageri-agerian uzten du hori Saussureren sisteman *terme* (hitza) eta *valeur* (balioa)¹¹ nozioek duten leku nagusiak. Bigarren hizkuntzalaria Chomsky bera da, noski. Honen bereizketa, azaleko egituraren eta sakoneko egituraren artekoa, dagoneko behin baino gehiagotan aipatu dugun Humboldtten barneko hizkuntza-formaren eta kanpoko hizkuntza-formaren jarraipena da (Stubbs 2002).¹² Bestalde, Chomskyk hizkuntzaren alderdi sortzailean ipintzen duen enfasia ere zorretan dago Humboldttek abian jarritako ikusmoldearekin.

¹⁰ Wundt bere *Die Sprache (Hizkuntza)* liburuaren 7. kapituluaren atal bat eskaintzen dio Humboldtten *innere Sprachform* kontzeptuari (ikus Blumenthal 1970: 30-31).

¹¹ Amado Alonsok (1984: 8, oin-oharra), Saussureren *Cours de linguistique generale* lanaren gaztelaniazko itzulpenaren hitzaurrean, iraultzailatzat jotzen du “balio” kontzeptua eta “ezin kalkulatzeko emankortasun zientifikoa” aitortzen dio; izan ere, dio Alonsok leku berean, hizkuntzaren funtzionamendua balioen eta horien kontrakotasunen, berdintasunen eta desberdintasunen jokoak da.

¹² Stubbsen (2002) iritziz, Chomskyk Humboldtten barneko formaren eta bere sakoneko egituraren artean ikusi nahi duen lotura eutsiezina da; kontua da, dio Stubbs, Humboldtten terminoak interpretatzea zaila dela alemanez egiten ez dutenentzat.

ii. *Johann Friedrich Herbart (1776-1841)*

Herbarti “pedagogia zientifikoaren aita” eman izan diote deituratzat hezkuntzaren zientziei egin zizkien ekarpenengatik (ikus, adibidez, Euskal Hiztegi Entziklopedikoa 1995, Encyclopaedia Britannica 2003, Gondra 1997). Baina, gainera, bera izan zen aurrena psikologia zientifiko baten alde azaltzen. Herbarten ustez, psikologia esperientzian, metafisikan eta matematikan oinarritzen den zientzia da. Hortik psikologiaren arloan berak idatzitako liburu nagusiaren izenburua: *Psikologia, zientzia den aldetik, aurreneko aldiz esperientzian, metafisikan eta matematikan finkatua* (1824-1825). *Matematikan garrantzirik handieneko hitza da hor, izenburu horretan. Izan ere, Herbartek psikologia matematikoa eraiki nahi zuen, arrazionala eta enpirikoa izango zena batera* (Patton 2004). Gogamen-bizitzaren azterketan matematika erabil daitekeela: horra hor Herbartek frogatu nahi zuena. Hara nola azaltzen zuen Herbarten teoria psikologikoak gogamenean gertatzen dena. Hor, unitate elemental batzuk daude, edo dabilta hobeki esateko, Blumenthalen (1970: 6) hitzetan “elkarri tiraka eta bultzaka” baitabilta “batzuk kontzientzian sarraraziz eta besteak ateraraziz”. Unitate elemental horiek ideiak direla esan dezakegu (*Vorstellungen* alemanez), baina ez Lockerenak bezalakoak; Herbartenak “indar” bihurtzen dira, gogamen-indar. Ideiek indarra edo intentsitatea dute bi ezaugarri hauek dituztelako: argitasuna eta aurkakotasuna. Argitasuna, aurrena. Une jakin batean, ideia batzuk argiagoak dira besteak baino, eta zenbat eta argiagoa den ideia bat, orduan eta biziagoa eta indartsuagoa da. Argitasun fisikoaren gorabeherak eta aldaketak, bestalde, formula matematikoetan adierazten badira, berdin egin daiteke ideien argitasunarekin ere. Ideien bigarren ezaugarria aurkakotasuna da; horrek esan nahi du ideia batzuk besteen kontra daudela. Ideia bat beste baten aurkakoa denean, elkarren arteko lehia sortzen da eta, hala, gogamen-bizitza etengabeko indar-jokoa da.

Ideien arteko indar-joko horretan parte hartzen duten printzipioak honako hauek dira, Herbarten arabera: iraunkortasuna, edo inertzia, fusioa, edo bat-egitea, eta inhibizioa. Printzipio horien eraginez, ideiek sistemak osatzen dituzte (asoziazionismoa) eta sistema horiek Herbartek “apertzepzio-masak” deitu zituen antolaketa koherente batzuetan biltzen dira. Masa horien ezaugarri nagusia aldatzeari gogor egitea da eta, hala, kontzientziara sartu nahi duen ideia berriari ez diote sartzten uzten haiekin bateragarria ez bada (Gondra 1997). Sartzten den ideia berria, bestalde, asimilatu egiten dute (asimilazioa). Ikuspegi mekaniko honetan, ez da “norbera” ideiaaren edukiaz jabetzen dena, baizik eduki bat beste eduki batez jabetzen dena¹³ (Baldwin 1913).

¹³ Charlotte Mason (1841-1923) hezitzaile britainiarrak, bere *A philosophy of education* (Mason 2004 [1954]) liburuan, John Adams (1857-1934) hezkuntza-irakasle eskoziarraren 1910eko *The Herbartian psychology applied to education* liburutik honako hitz hauek jasotzen ditu: “[Herbarten gogamenak] ez du inondik ere edukirik: ezta ideiak kontrolatu ere ez du egiten. Ideiek goga-

Ideiak kontzientzian sartu nahiz baztertuak izan, horien mekanika azaltzeko formula matematikoak proposatu zituen Herbartek.

Hala, bada, ideiak dinamikoak dira, eta ez estatikoak. Baina, gainera, ideiek Herbartentzat, Kantentzat ez bezala —honentzat dimentsio bakarra baitzuten, denbora— bi dimentsio dituzte: denbora eta intentsitatea. Psikologiak, horrela, bazeukan zientzia izaterik. Orain bazegoen bi aldagairen arteko lotura eta harremana aztertzerik; hori hala izanik, psikologia izan zitekeen orain enpirikoa eta matematikoa. Herbartek, hala ere, ez zuen uste psikologia zientzia esperimentalak izan zitekeenik. Zientziak, fisika adibidez, balia daitezke matematikaz eta esperimentazioaz, baina psikologia ez. Psikologiari esperimentaltasuna ukatzeko arrazoia Herbartek zuen gogamenaren ideian zetzan (Matas 2003). Haren ikuskeran, gogamena osotasun bat da eta ezin da zatitu. Metodo esperimentalak, aldiz, analitikoak da, ikergaia zatitzera jotzen baitu hura aztertu eta analizatzeko. Horrela, gogamena estudiatu nahi duen zientzia ezin da analitikoak izan.

Herbarten psikologia matematiko eta mekanizista tentagarria izan zen zenbait hizkuntzalarientzat, Paul gramatikari gaztearentzat bereziki; honen *Prinzipien der Sprachgeschichte* liburuko iritzi eta printzipioetako batzuk Herbartengandik mailegatuak dira (ikus, adibidez, Blumenthal 1983, Percival 1980). Gorago aipatu dugun liburua argitara eman eta hurrengo 30 urteetan, oso irakatsia izan zen Herbarten psikologia matematikoa; eta gero, Fechnerrek eta Wundtek psikologian esperimentazioa sartu zutenean kritika ugari jaso bazuen ere, horren eragina handia izan zen mendearen azken aldera arte. Hogeigarren mendean bazterturik egon ondoren, XXI.aren hasieran badira hori berriz aintzat hartzea nahiko luketenak; horien artean Boudewijnse, Murray eta Bandomir aipa daitezke (ikus, adibidez, Boudewijnse eta beste 2001, Murray eta Bandomir 2002). Dena dela, psikologia matematikoa eraikitzeko Herbarten ahaleginak fruitu iraunkorrik eman ez bazuen ere, berak bultzatutako beste ikerketa-bide bat, zibilizazio primitiboan azterketa psikologikoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa izango zen. Zibilizazio primitiboan estudioak bi helburu zituen: espirituaren agerpen elementalenak aurkitzea, batetik, eta agerpen horiek historian zehar izan duten eboluzio geldiaz jabetzea, bestetik. Nicolasek (2004) arrazoizko deritzo Herbart herrien psikologiaren sortzailetzat edukitzeari. Steinthal eta Lazarusek, azken hau Herbarten ikasle izana, bide hori jorratu nahi izan zuten *Herrien Psikologiaren eta Filologiaren Aldizkaria* abiatuz. Wundtek berak ere aitortzen du bereziki Herbarten eskolan, eta batez ere Lazarus eta Steinthalen lanari esker, jai zela herrien psikologia (Wundt 1904, aipatua in Nicolas 2004).

menean nahiz kanpoan nahi duten bezala egin dezakete lo; beste ideiek nahi duten bezala, hobe esan; baina gogamenak ez du ahalmenik ez ideia bati deitzeko, ez ideia bat sortu, eutsi edo gogoratzeko ere. Gauza horiek guztiak ideiek beren artean konpontzen dituzte. Gogamenak ezin du eragozpenik jarri”.

iii. *August Schleicher (1821-1868)*

Mendearen erdialdera, eta lehenago ere bai, gizarte-zientzietan ari zirentzat erakarpen handikoak ziren zientzia fisikoak. Hauen zehaztasunak liluraturik edo zeuzkan. Hizkuntzalari historiko konparatzaileek biologian ikusi uste zuten berentzako moduko eredia. Franz Boppek, 1816an, dagoe-neko adierazia zuen zein zen bere asmoa, hiru gauza hauek eskaintzea hain zuzen: “hizkuntzen organismoaren deskripzio konparatzailea, hizkuntzek dituzten kideko ezaugarri guztien bilduma eta horien lege fisiko eta mekanikoen azterketa” (aipatua *in* Blumenthal 1970: 3). August Schleicherrek, mendearen erdialdeko hizkuntzalari nagusiak, 1850ean argitaratu zuen Europako hizkuntzen gaineko monografia batean, argi eta garbi aitortzen zuen hizkuntzak berarentzat organismoak zirela, organismo guztiz naturalak,¹⁴ eta hauek deskribatzeko terminorik egokienak biologiatik hartutakoak zirela, hala nola “generoa”, “espezia” eta “barietatea”. Geroago, Darwinen eboluzioaren teoria hartu zuen hizkuntzak aztertzeke. Bere *Die Darwinsche theorie und die sprachwissenschaft (Darwinen teoria eta hizkuntzalaritza)* liburuan egin zuen hori, 1863an. Liburu horretan batere erreparorik gabe esaten zuen hizkuntzak “organismo naturalak” direla, “giza nahiak esku hartu gabe sortu, lege jakin batzuen arabera garatu, zahartu eta hil egiten direnak. (...) Horregatik, hizkuntzaren zientzia natura-zientzia da; horren metodoa beste natura-zientziena bera da oro har” (Schleicher 1863: 6, aipatua *in* Giles 2004 [1909]). Gilesek zioenez, geroztikako hizkuntzalari guztiek onartzen zuten Schleicher urrutiegi joan zela hor. Hala ere, Schleicherrekin sortu zen, Gilesen arabera, hizkuntzaren zientzia modernoak ezagututako teoriarik emankorrenetako bat, gerora haren ikasleek, Leskien, Paul eta beste *Junggrammatikerrek* garatuko zutena. Horrela, bera izan zen hizkuntza arau hertsia eta zorrotzei jarraitzen zaielako printzipioa aurrena adierazi zuena (Collinge 1995a). Bera izan zen, bestalde, hizkuntzen eboluzioa irudikatzeke zuhaitzaren itxura aurreneko erabili zuen hizkuntzalaria ere. Haren ereduak, *Stammbaumtheorie* edo familia-zuhaitzaren teoria deritzanak, taxonomia sartu zuen hizkuntzalaritzan ikerketa metodo gisa. Horren ondorioa, dio Blumenthalek (1970: 3), enfasia hitz-formetan eta hots-unitateetan jartzea izan zen, hizkuntzaren beste alderdi batzuk bazterrerara utziz. Literaturan, familia-zuhaitzaren eredia gramatikari gazteen hots-aldaketaren erregulartasunaren printzipioarekin lotzen dela dio Campbellek (2001), lotura hori beharrezkoa ez den arren. Azkenik, pentsatzeko hizkuntza beharrezkoa delako ideia, Herderrengandik zetorrena, azken muturreraino eraman zuen Schleicherrek; hizkuntzaren eta pentsamenduaren artean lotura hain estua jarri zuen, non biak gauza bera zirela baitzirudien ia (Richards 2002).

¹⁴ Organismoarena dela eta, ez da zentzugabekeria izango hona ekartzea Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*n, “landatu” sarreran irakur daitekeen esaldi hau: “Hizkuntza, gizatalde batean oinak landaturik dituen zer bizi eta sendo bat da”. Oinak eta guzti dituen organismoa da, beraz, hizkuntza.

iv. *Moritz Lazarus (1824-1903) eta Heymann (Hajim) Steinthal (1823-1899)*

Orain arte egin dugun bezala, biak batera jarri ditugu hemen ere, eta arrazoia oso sinplea da, lankide min gisa aritu baitziren biak eta elkarrekin sortu baitzuten *Psikologia kulturalaren eta Hizkuntzalaritzaren Aldizkaria*. Lazarus psikologia irakaslea zen eta Steinthal filologoa; Blumenthalek (1970) lehenbizikoari hizkuntzalari bihurturiko psikologoa esaten dio, eta bigarrenari, psikologo bihurturiko hizkuntzalaria. Steinhalek ongi ezagutzen zuen Humboldtten pentsaera, baita Herbartena ere bere lankide eta ezkon-anai Lazarusen bitartez, hau Herbarten ikasle izana baitzen, arestian adierazi dugunez. Bien artean, 1860an, *Völkerpsychologie* izeneko diziplina akademiko berriari bidea urratu eta zabaltzeko lanari ekin zioten (Diriwächter 2004). Alemanezko hitz gehiagorekin gertatzen den bezala, zaila da *Völkerpsychologie* terminoa egoki itzultzea. Horren esanahia nolabait jasotzen duten itzulpenak badirudi honako hauek direla: “herrien psikologia” (ikus Diriwächter 2004: 87) eta “psikologia kulturala” (Schultz eta Schultz 2000: 81; ikus Goodwin 2004 ere). Diriwächterrek (2004: 88) beste itzulpen bat ere ematen du, “folk psychology” (herri psikologia), baina hau ez da inola ere onargarria Schultz eta Schultzentzat (2000), ezta Danzigerrentzat ere (1980; aipatua in Diriwächter 2004: 105, 3. oin-oharra). Diriwächterrek, ordea, oin-ohar horretan bertan, itzulpen horren aldeko arrazoiak ematen ditu, baita Danzigerrek eta Schultz eta Schultzek hobesten dutenaren kontrakoak ere. Hala ere, kontuan izatekoa da Wundtekin berak kontzeptu baliokidetzat jotzen dituela, lehenbiziko aldiz 1920an Diriwächterrek (2004) gogoratzen duenez, *Völkerpsychologie* eta kulturaren psikologia. Serge Nicolasek (2004: 8), bestalde, itzulpen hauek ematen ditu frantsesez *Völkerpsychologie* hitzarentzat: “psychologie collective”, “psychologie ethnique ou socio-psychologie”. Edozein dela ere itzulpen egokia, *Völkerpsychologie* deitu zuten psikologia motaren helburua hizkuntza, mito eta ohitura berak zituzten gizataldeen alderdi psikologikoak estudiatzea zen eta beste aukera bat nahi zuen izan, pertsona-psikologia edo psikologia indibidualaz gainera (ikus Diriwächter 2004: 88).

Humboldtentzat hizkuntza, gogoratuko du irakurleak, jarduera zen, *energeia*, produktua edo *ergon* baino gehiago. Hau da, hizkuntza, moldatzen diren enuntziatu jakin batzuk baino gehiago horien azpian dauden printzipio edo erregelak dira, horiek baitute hitzuna gaitzen enuntziatu horiek eta horrelako gehiago mugarik gabe sortzeko. Humboldtnek, gainera, hizkuntzaren alderdi kulturala azpimarratzen zuen. Izan ere, egia bada ere hizkuntza giza-banakoaren baitan zertzen den zerbait dela, ez da gutxiago egia gizarte bizi-tzak ziurtatzen duela hizkuntza-formen jarraitasuna. Hizkuntza-formarenak merezi du azalpen labur bat: Humboldtten arabera, hizkuntza bakoitzak bere forma berezia du eta forma bakoitzak *Weltanschauung* edo mundu-ikuskera berezi bat islatzen du. Bestela esateko, munduari begiratzen diogun modua hizkuntzak berekin dakar, hizkuntzan itsatsia dago, zeren hizkuntza berean

mintzatzeko direnek antzeko subjektibotasuna bereganatzen baitute.¹⁵ Hizkuntza da, horrela, gizakia zer den ulertzeko giltza. Ez da harritzeko, beraz, hizkuntza gai nagusietako bat izatea *Völkerpsychologie* delakoan. Mugimendu honen bultzatzaileentzat, hizkuntzaren zientziarik gabeko psikologia zientifiko bat ezinezkoa zen, nahitaez (Blumenthal 1970, Diriwächter 2004).

Honaino Humboldtten eragina. Herbarti dagokionez, adierazi dugu gorago nola honek, bere psikologia matematikoaz gainera, zibilizazio primitiboen estudioa ere proposatu zuen. Berak idatzia da honako hau: "Jendeari bakarrik balego bezala begiratzen segitzen badu, psikologia alde batekoa edo partziala izango da beti" (Herbart 1850 [1816], aipatua in Patton 2004: 66). Lazarus eta Steinthalek oraindik urrutiago eramanez nahiko zuten argudio-bide hori. Beren aldizkariaren lehenbiziko zenbakian, gizarte eta gizabanakoa bakoitza bere aldetik ikustearen kontra ohartarazten zuten irakurlea. Gogamen indibidualaren eta gertakari historiko eta kulturalen artean errotiko elkarrekikotasuna dagoela defendatzen zuten: "[Gizabanakoaren] bilakabide espiritualak aurrez determinatuta dago oso-osorik haren jaiotzatik aurrera..." (Lazarus eta Steinthal 1860, aipatua in Patton 2004: 66). Herrien psikologiak egiteko hauek ditu: herriaren espiritua (*Volkgeist*) aztertu, herri bateko gizabanako guztiak elkarrekin dituzten ideiak berreraiki eta herriaren espirituaren adierazpide diren hizkuntza, erlijioa, teknika, artea, zientzia eta abar ikertzea (Mucciarelli 1985). Lazarus eta Steinthalen ustea zen ideiek¹⁶ eta historiak elkar determinatzen dutela. Ideiek eragina izan dezakete eta eragina dute gertakariaren ibilbidean. Hortaz, psikologiaren aztergaia historian aurkitu behar da eta ez psikologia indibidualean.

Herrien psikologia abian jarri zutenen ideia nagusiak bi hauetara bil ditzaizkegu: 1) psikologiak aintzat hartu behar ditu gizabanakoa aurkitzen den gizarte hori moldatzen duten indar historikoak eta egitura sozialak, eta 2) ez dago psikologia benetan zientifikorik hizkuntzaren zientziarik gabe. Puntu hau bukatzeko, esan dezagun Steinthal izan zela aurrenekoa hizkun-

¹⁵ Behar bada *Weltanschauung* delakoaren esanahia argitzen lagunduko du Interneten "Euskara eta sinestea" izenburupean eta X. A.k sinatuta aurkitu berria dudana lantxotik paragrafo pare bat hona ekartzeak. Honako hauek:

Hizkuntza bakoitza baditu bere berezitasunak eta bere aberastasunak. Euskarak ere bai... Gazte nintzelarik Euskal Herri barneko haur bat joan zen seminariora. Eguberriko etsamintetan izan zuen galde hau: Qu'est-ce que Dieu? Errepostua: Dieu est un esprit vide. Apezak zuzentzat hartu zuen errepostua. Herriko katiximan haurrak ikasia zuen: "Jainkoa Izpiritu hutsa da." Eta ez "gargaria" = "pur". Munduari so egiteko bi molde horiek ez dira batere berdinak.

Alde berera doa oraino beste erran molde bat. Emazte bat "esperantxetan" delarik (hitz hau ere "haurdun" baino aberatsago da, erran nahieren aldetik) galdetzen da: "Zertan da?" Errepostua: "Oraino osoa". Bere erdia ez du emana.

¹⁶ Herbarten sisteman bezala, ideiak gizabanakoaren gogamenean dauden indar batzuk bezala ulertzen zituzten.

tzari psikologiaren ikuspegitik heltzen 1850eko urteetan. Bide hori hartuko zuen Wundtek ere bere *Völkerpsychologie* izeneko obra handian. Lazarus eta Steinthalek Wundtengan eragina izan zutela dudan jarri ezin daitekeen gauza da, ezaguna baita (ikus Diriwächter 2004: 96) Wundtek irrika biziz irakurtzen zituela haien lanak. Nicolasen (2004: 8) lanean irakur daitekeenez, Wundtek 1904an honako hau idatzi zuen: “batez ere haren [Herbarten] eskolan jaio zen (Lazarus eta Steinthalekin bereziki) psikologia kolektiboa”. Wundtek, dena dela, ez zuen onartzen psikologia esperimentalta eta psikologia kolektibo edo kulturala bata bestetik banatzea. Bestalde, herrien psikologiaren eremua hiru gai hauetara mugatu zuen: hizkuntza, mitoa eta ohiturak. Historia bera, Lazarus eta Steinthalentzat *Völkerpsychologie* delakoaren funtsezko osagai zena, Wundtek ez zuen inola ere onartzen diziplina horren barnean, hori eginez gero historia psikologizatzeke arriskua ikusten baitzuen.

v. Gramatikari gazteak (Junggrammatiker)

Zenbait gauza esanak ditugu dagoeneko hizkuntzalari hauetaz. Horregatik, hemen emanda dagoen informazioa osatu eta, batez ere, Hermann Paul, hizkuntzalari talde horren teorialariaren (Alonso 1984) pentsaera aurkeztuko dugu. Paulen eta Wundten arteko eztabaidak dira Paulen sisteman arreata handiagoa jartzeko arrazoi nagusia.

Gramatikari gazte ezagunenak, atarikoetan aipatu ditugun horiek, 1840ko urteetan jaioak ziren denak. Tradizioak dio 1876an agertu zirela jendurrean talde bezala; horregatik, urte hori *Junggrammatiker* izena jarriko zioten higikundearen “*annus mirabilis*” izan omen zen (ikus Collinge 1995b: 205). Urte horretan edo urte horren inguruan talde horrek hartutako bidea 1890erako nagusi zen hizkuntzalaritzan (ikus Joseph 1995). Joseph berak dioenez, askok uste izan zuten Junggrammatikerren lanari esker egina zegoela ia hizkuntzaren benetako zientzia bat, aldi hartan nagusi zen positibismoaren arabera, finkatzeko behar zen guztia. Gramatikari gazteak bat datozen teoria linguistikoa Collingek (1995b: 205) hiru printzipio hauetara biltzen du: 1) hizkuntza “giza kognizioaren eta gizarte-elkarreraginaren alderdi bat da”; 2) uniformitarianismoa, James Hutton (1726-1797) eta Charles Lyell (1797-1875) geologoei mailegatu zieten kontzeptua eta Osthoff eta Brugmannek (1878, aipatua *in* Collinge *ibid.*), hizkuntzei dagokienez, honela formulatu zutena: “hiztuna den aldetik, gizakiaren izaera psikologiko eta fisiologikoa funtsean berdina izan da garai guztietan”; eta 3) hots-aldaketei dagokienez egoki formulatutako legeek ez dute salbuespenik onartu behar.

Printzipio horiek beren aurrekoen ideien kontra plazaratu zituzten, eta batez ere beren aurreko hurbilen ideien kontra. Lehenbiziko printzipioa, adibidez, hizkuntzak organismoak direlako Schleicherren ideari kontra-

jartzen zaio. Schleicherrentzat, hizkuntzaren historiak ez du zerikusirik artea edo literatura edo erlijioa bezalako giza asmaketen historiarekin; azken hauek ez bezala, hizkuntzak hazi egiten baitira, gero heldu eta ondoren gainbehera etorri. Hizkuntzalaritza, hortaz, natura-zientzia da, biologia eta geologia bezala. Oso bestelakoa da gramatikari gazteen pentsaera eta ikusmoldea. Hauentzat, hizkuntzalaritza ez da natura-zientzia, gizarte-zientzia baizik. Paulen *Prinzipien der Sprachgeschichte (Hizkuntzaren historiaren oinarriak)* honela hasten da: "Giza kulturaren edozein sorkariren antzera hizkuntza ikerketa historikoaren gaia da..." (Paul 1880: 1, aipatua in Percival 1980: 191). Beraz, hizkuntza ez da berez garatzen den organismo fisiko bat, baizik giza jokabide mota bat, zeinetan bi alderdi bereiz daitezkeen: agerikoa dena bata, hizketa, eta ezkutukoa dena bestea, hizketak lagun dituen gertakari psikologikoak.

Bigarren printzipioa ere, uniformitarianismoarena alegia, bateraezina da hizkuntzen historian, organismoen bizitzan bezala,aldi edo etapak bereiz daitezkeelako ideiarekin. Printzipio honen arabera, bai hizketan bai aldaketa linguistikoa parte hartzen duten prozesuak beti izan dira eta beti izango dira, horien eragile diren indarrak etengabe ari baitira lanean, etengabe eta erabateko uniformetasunez. Lehen konparatista askoren eta bereziki Schleicherren ustea zen hizkuntza modernoak historiaurreko hizkuntza perfektuen isla ahulduak zirela. Hizkuntzak "hazi", historiaurreko garaietan hazi ziren aglutinazioaren bitartez; garai historikoetan gertatzen diren aldaketek (hots-aldaketak eta analogiak), aldiz, hizkuntzen gainbehera prozesua adierazten dute.¹⁷ Ikuspuntu hori, "glotogonikoa" deitua, gogor kritikatu zuten gramatikari gazteek, "espekulazio glotogoniko" bezala salatuz (ikus, honetaz, Campbell 2001).

Azkeneko printzipioak dio hots-aldaketa erregularra dela. Printzipio aldaezena zen hori gramatikari gazteentzat: aldaketa fonetikoa hots mota jakin batean eta testuinguru fonetiko zehazki mugatuetan gertatzen da eta aldaketa ezinbestekoa da horrelako egoeretan aurkitzen diren kasu guztietan. Salbuespenak ziruditen kasuetarako bazeukaten beste printzipio bat, analogiazko eraketarena, honela formula daitekeena: gramatika-forma berriak lehendik dauden formekiko analogiaz sortzen dira.

Hots-aldaketaren erregulartasunarena da gramatikari gazteek ezarritako printzipio nagusia. Hots-legeak guztiz erregularrak direlako tesi hori hasieran zenbaitek oso eztabaidagarritzat jo bazuten ere, mendearen azkeneko onartua zegoela esan daiteke (Encyclopaedia Britannica 2004, "linguistics" sarrera). Dena dela, hotsen, eta hizkuntzen, aldatzea dela eta, Anderson eta

¹⁷ Hizkuntzen gainbeheraren ideia hori XVIII. mendetik zetorren eta honela argudiatzen zen: jendeari gero eta gutxiago axola zaio bere hizkuntza eta, hala, lehengo garaietan konplexua eta aberatsa zen hizkuntza pobretuz eta bakunduz joan da.

Lightfootek (2002) XIX. mendeko hizkuntzalaritzaz egiten duten iruzkina kontuan hartzekoa da gero ikusiko dugun Wundten eta gramatikari gazteen arteko eztabaidari begira. Anderson eta Lightfooten (2002: 6) arabera, XIX. mendeko hizkuntzalaritzaren gaia aldaketa izan zen eta aldatzen zena “hizkuntza” zen —horrela, komatxo artean, autoreek berek idazten duten bezala—, hizkuntza testuinguru horretan hitzen inbentarioa baitzen funtsean. Hizkuntzan, jarraitzen dute autore horiek, bazen, noski, besterik hitzez gainera, baina hori azaltzeko logika unibertsalera jo behar zen, edo bestela gizabanako batek bestera desberdinak diren ohituretara, eta kontu horiek ez omen zuten interes handirik orduko hizkuntzalarientzat. “Beraz, hitzen eta horien ahoskera eta esanahien historia idaztea zen hizkuntzalariaren egitekoa” (*idem*). Bide beretik doa Blumenthalek (1970: 242) Junggrammatikerrei kritikatzan diena, alegia ez zutela “inbentarioen forma fisikoa baizik estudiatzen”.

Eta psikologiak ba ote du lekurik hizkuntzaren azterketan? Zein zen horretaz gramatikari gazteen ikusmoldea? Ikerketa linguistikoak biziberritu eta zientifikoago egitea zen ikertzaile gazte hauen asmoa eta, horretarako, enpirismoa eta kuantifikazioa sartu nahi zituzten beren arloan. Eta interesik handienaz jarraitu zituzten, hala esaten du Blumenthalek (1974, 1987), sortzen ari zen psikologia zientifiko esperimentalaren lehen urratsak: Wundtek 1873 eta 1874an bi liburukitan argitaratutako *Psikologia fisiologikoaren hastapenak* eskuliburua, Wundtek berak 1879an Leipzigen irekitako laborategia eta, ondorioz, teknika berriak eta kuantifikazioa sartzea psikologian. Blumenthalen (1983) beste lan batean esaten denez, 1870 ingurutik Lehen Mundu Gerra arte, batez ere Alemaniako unibertsitateetan, hizkuntzaren ikertzaile asko ahalegindu ziren hizkuntzalaritza psikologia berriaren teorietan oinarrituz eta horren metodoez baliatuz eraikitzen. Gramatikari gazteek, adibidez, XIX. mendeko positibismo porrokatuak eraginda, Blumenthalen iritziz, hizkuntza enuntziatuen itxura fisikoaren arabera deskribatzen iritsi nahi zuten. Hala, psikologia esperimental positibista eta psikofisikako metodo zorrotzak hartu zituzten eredutzat. Baina Wundten pentsaeran laborategiko psikologia esperimentala ez zen psikologiaren parte bat baizik. Goi-mailako prozesu kognitiboak, eta horien artean hizkuntza, ezin ziren, haren ustez, laborategian aztertu. Horrela, gramatikari gazteen hasierako berotasuna, psikologia esperimental berriari buruz, laster hoztasun eta are aurkakotasun bihurtu zen. Eta hizkuntzalari horietako batzuek XIX. mendearen azken aldera Alemaniako komunitate akademikoan indartsu zen beste teoria psikologikora jo zuten, Herbarten teoria psikologiko mekanizistara alegia, hau hobeki egokitzten baitzen haien enpirismo hertsiarekin (Blumenthal 1970, 1987).

vi. *Hermann Paul (1846-1921)*

Herbarten psikologia matematiko eta mekanizistaren jarraitzaile aipagarrienetako bat Hermann Paul da, gramatikari gazteen teorialaria. Hau da,

Blumenthalen (1983) arabera, Herbarten teoriak hizkuntzalarien artean izan zuen eledunik onena. Paulentzat Herbarten psikologia matematikoa “ideiek elkarrekin duten harremanaren zientzia” da (aipatua *in* Blumenthal 1970: 32). Paul, bere *Prinzipien der Sprachgeschichte* liburuan, gogotik saiatu zen hizkuntzalaritzari Herbarten teoria aplikatzen. Liburu hori oso irakurria izan zen; 1880tik 1920ra bitartean bost edizio izan zituen, azkenekoa Paul hil baino urtebete lehenago. Askok Junggrammatiker hizkuntzalarien bibliatza daukate liburu hori (Hutton 1995b: v). Hor bildu zuen eta moldatu Paulek gramatikari gazteen ikuspegia eta, hala, XIX. mende bukaeran hizkuntzalaritzak hartutako bidea erakusten du, bi ezaugarri hauetan mamitua zegoena: hots-legeek salbuespenik onartzen ez dutelako ideia eta zientziaren filosofia positibista edo atomista. Baina, bidezkoa denez, batez ere Paulen beraren pentsaera dago bildua liburuan. Paulen hizkuntzaren teoria eta hizkuntza estudiatzeko beraren ikuspegi metodologikoa aurki daiteke hor. Ikus dezagun zein diren Paulen teoriaren alderdi nagusiak.

Paulen printzipio nagusia aipatuz hasiko gara. Printzipio horrek dio hizkuntzalaritzak historikoa izan behar duela (ikus, adibidez, Blumenthal 1970). Liburuaren izenburuan berean iragarrita dagoena, ezin argiago adierazten du —Anderson eta Lightfootek (2002: 6) diotenez, “pontifikatu” egiten du— 1880ko edizioan, 20. orrialdean: “Argudiatu izan da esanez hizkuntzaren ikuskera historikoaz gainera badagoela beste ikuskera zientifiko posible bat ere. Hori gezurtatu beharrean nago” (aipatua *in* Anderson eta Lightfoot 2002: 6). Ideia hori, hizkuntzaren estudioak historikoa izan behar duela zientifiko izan nahi badu, gramatikari gazteena zen Paulena adina (Robins 2000). Paulek eta haren taldekideek hizkuntzen bilakabide historikoan gertatzen diren prozesuak azpimarratzen zituzten.¹⁸ Baina ez *Ursprache* edo jatorrizko hizkuntza ustezko bat aurkitzeko, beren aurreko hizkuntzalariek eta bereziki Schleicherrek nahi zuten bezala, baizik hizkuntzan gertatzen diren aldaketak ulertzeko.

Hizkuntzak aldatu egiten direla ez dago dudarik. Kontua, ordea, da zergatik aldatzen diren eta zein diren hizkuntza-aldaketaren prozesuak. Nola bakartu kausak eta efektuak horrenbeste alde eta alderdi agertzen dituen hizkuntza bezalako fenomenoan? Bestalde, nola deskribatu sistematikoki hizkuntza, kontuan hartzen badira hor gurutzatzen diren era askotako errealita-

¹⁸ Konrad Koernerrek (1983) zalantzan jartzen du Paulek berak benetan hartzen ote zuen hizkuntzalaritzak nahitaez historikoa izan behar lukeelako ideia hori. Hori izan zen berak aitortu zuen asmoa *Prinzipien der Sprachgeschichte* liburuan. Baina Koernerrek Franz Misteli denbora luzean Steinthalen lankide izandakoak Paulen liburuaren lehenbiziko edizioa agertu zenean idatzitakoa dakar gogora, hots, liburuaren izenburuak ez “*Sprachgeschichte*” (hizkuntzaren historia), baizik “*Sprachwissenschaft*” (hizkuntzaren zientzia) esan beharko lukeela. Gainera, Misteliren iritziz, askotan bere burua gezurtatu egiten omen zuen Paulek berak *Sprachgeschichte* deitzen zuenaren eta “gramatika deskribatzailearen” arteko harremanaz ari zenean.

teak, hala nola hauek: soziala, individuala, psikologikoa, fisikoa? Horiek dira, Huttonen arabera (1995b), Paulen liburuan jartzen diren eta erantzun nahi zaien galdera nagusiak. Paulek honako hau eskaini nahi zuen: teoria orokor bat hizkuntza zer den eta hizkuntza aldatzea dakarten prozesuak zein diren ulertzeko. Beharrezkoa omen zen hori orduan, hala dio Percivalek (1980), eta Huttonen (1995b) iritziz garrantzizkoa izaten segitzen du gaurko hizkuntzalaritzarentzat ere.

Ikus dezagun aurrena zein irtenbide aurkitu zion Paulek hizkuntzaren izaeraren arazoari. Arazo horri psikologiaren ikuspegitik heldu nahi izan zion Paulek, Wundtek ere egingo zuen bezala, bestalde. Kontua, ordea, da bi psikologia-ildo desberdinetatik egin zutela hori. XIX. mendearen hondarrean, bi norabide nagusiren arteko lehia zegoen Alemaniako psikologia akademiakoan. Batek Herbarten psikologian zituen sustraiak. Psikologia hau kognitiboa eta mentalista zen, gogamenaren edukiez ari baitzen, baina formalista eta mekanizista ere bazen, eduki horiek bere kasa baitzebiltzan elkar erakarriz zein uxatuz. Beste norabidea Wundtena zen: honek sustraiak zenbait idealista alemanen pentsaeran zituen, lehentasuna intentzionalitateari eta borondateari ematen zien, eta Herbarten eskola mekanizista eta mentalista hutsaren aurka ageri zen. Bada, Paulek Herbarten psikologia hautatu zuen. Horrela, Herbartentzat ideiak baldin baziren gogamena osatzen zuten atomo edo unitate elementalak, Paulen hizkuntzaren psikologian hitzak ziren hizkuntza-unitateak.¹⁹ Hitzak, gainera, —hala ikusten zituen Paulek— elkartu egiten dira mintzatzailearen buruan denean artean perpausak osatzeko. Hau da, irudi edo pentsamenduak banaka datozkio burura eta mintzatzaileak hitz bat izendatzen dio haietako bakoitzari. Beraz, aurrena hitzak dira, edo hizketa-hotsak nahiago bada, eta geroago perpausa, hitzak elkarrekin jartzean sortzen dena. Blumenthalek (1987) gogoratzen digunez, Herbartek eta Paulek hartu zuten bidea gaur egungo psikologia kognitiboan behetik gorako prozesaketa esaten zaionari legokioke, non zerbait osatzen duten elementuak hartu eta osotasun koherente batean —hemen, perpaus batean— biltzen diren. Wundtek, aldiz, laster ikusterik izango dugunez, goitik beherako prozesaketaren bidea hartu zuen: aurrena irudikapen edo ideia bat sortzen da buruan, osoa dena eta bat dena, eta gero perpausa osatuko duten osagaietan banatzen da.

Bigarren arazoa, Paulek bere liburuan argitu nahi izan zuena, hizkuntzak nola eta zergatik aldatzen diren izan zen. Eta hizkuntzen aldatzeaz ari zire-

¹⁹ Blumenthalek (1987) dioenez, batzuetan hizketa-hots elementalak ziren hizkuntza-unitateak Paulentzat. Percivalek (1980) arabera, Paulek hiru elementu mota hauek aztertzeraz jo zuen: hotsak, hitzak eta perpausak, hain zuzen ere gramatika tradizionalak unitatetzat hartzen zituenak berak, Percivalek eranstean duenez. Hizketa bera fenomeno psikologikoa bada ere, psikologikoa eta akustikoa, hizketa den bezalakoa izatea eragiten duten prozesu psikologiko funtsezkoetan ipini zuen Paulek arreta. Eta oinarritzko prozesu psikologiko horiek analizatu zituen aipatu ditugun hiru elementu mota horien arabera.

nean, bai Paul, bai gainerako gramatikari gazteak, baita haien aurreko hizkuntzalariak ere, aldaketa fonologikoaz ari ziren, hau da, hots-aldaketaz, hiztetako hotsen aldaketaz. Hots-aldaketaz ari den edozein teoriari bi galdera hauek jartzen zaizkio (Auer 2004: 1) aldaketa berria nola sortzen den eta 2) aldaketa berri hori nola hedatzen den hizkuntza-komunitatean erabatekoa izan arte. Lehenbiziko galderari dagokionez, Paul ezaguna da hor gizabanakoak duen zerikusia azpimarratzen duelako. Hizkuntza-aldaketa ez da benetako aldaketa izango gizabanakoen mailaz harago ez doan bitartean, baina, hala ere, gauzak gertatu gizabanakoarengan gertatzen dira, gizabanakoa da hizkuntza-aldaketaren lekua eta analisi linguistikoaren lehen gaia (ikus, honetaz, Auer 2004, Hutton 1995b). Dena dela, Paulek ez zuen gizabanakoarengan enfasia jartzen gizabanako hori sortzeko edo berritasuna ekartzeko gaitasun berezi batez hornitua ikusten zuelako, ez behintzat hots-aldaketen arloan,²⁰ baizik orain esango dugunagatik. Paulek honela azaltzen zituen gauzak: hiltun bakoitzak bere hitz multzo propioa eratzen du, horretarako oinarri hartuz entzun dituen eta ekoitzi dituen perpausetan; enuntziatuei datxezkien artikulazio-keinuak ez ditugu zehaztasun osoz gordetzen oroimenean eta oroimenean gordeta dauzkagun beste hiltunen hitzen irudi akustikoak gauzatzerakoan horien gaineko gure kontrola ez-oso da. Tiro bakoitzean jomugatik pitin bat aldentzen den arkulariaren irudia erabiltzen du Paulek; bada, antzeko zerbait gertatuko litzateke hots jakin bat edo hots-segida bat sortzeko asmoarekin ere, ez dela behin ere bete-betean gauzatzen. Hots-aldaketa, Paulen (1889: 29, aipatua *in* Auer 2004) arabera, “geldia, ez berariazkoa eta oharkabekoa da”. Gogora dezagun, bestalde, hots-berrikuntzak ez duela salbuespenik.²¹ Bigarren arazoa hots-aldaketari dagokionez zen nola zabaltzen den hizkuntza-komunitatean. Paulentzat, hots-aldaketaren hedatzea harreman kontua da. Gizabanakoaren mintzatzeko modua eten-gabe aldatzen ari denez eta hizkuntza-komunitatea elkarri eragiten dioten gi-

²⁰ Percivalek (1980) sormen linguistikoaren aldeko Paulen jarrera azpimarratzen du, esanez XIX. mendearen erdialdeko hizkuntzalariena ez bezalakoa zela. Hauentzat, hizkuntza-garapenaren hasierako aldi sortzaileaz geroztik ez zen ezer berririk sortu, oroimenean gordeta zegoena oroimeneetik ateratzea zen kontua. Paulentzat, aldiz, gauzak bestela ziren, haren arabera etengabe gertatzen baitira berrikuntzak bai lexikoan eta bai gramatikan ere: “Uste dudanez, badugu arrazoirik esateko Europako herri zibilizatuenetako hizkuntzetan beretan ere ez zaiola inoiz utzi material berria sortzeari” (Paul 1995/1886: 141, aipatua *in* Hutton 1995b: x). Eta Paulek zerrenda luze bat ematen duela dio Huttonek (1995b), berak asmatu berri samartzat jotzen dituen hitzena. Ikuspegi horretan Humboldtten jarraitzaile besterik ez zela aitortzen zuen Paulek (1880: 68-69, aipatua *in* Percival 1980: 192). Dena dela, Blumenthalekin (1983: 810) esan beharra dago sormena nola gertatzen den azaltzeko tresna gisa “analogia” eta “jeneralizazioa” erabiltzen dituela Paulek eta honen teorian sormenari ez zaiola Wundten psikolinguistikaren ematen zaion garrantzirik ematen. Wundtentzat gogamena berez da sortzailea; Paulen kasuan, aldiz, sormenak ez du inondik ere erdiko kontrol-prozesurik eskatzen.

²¹ Huttonek (1995b), hala ere, ez du uste Paul hain zorrotz atxikia zenik salbuespenik gabeko legearen ideia horri; lanerako asumitzen zuen zerbait izango omen litzateke beste ezer baino gehiago.

zabanakoaren sare zabal bat denez, aldakuntza indibidualak norabide jakin batean pilatu ahala komunitatearen mintzatzeko modua ere nahitaez aldatzen da.

Paulena bukatzeko, haren pentsaeraren beste alderdi bat ere aipatu nahiko genuke hemen, hizkuntzaren teoriarik psikologiari aitortu beharko litzaike lekuari dagokiona, hain zuzen ere. George H. Mead psikologoaren 1904ko “The relations of psychology and philology” lanean aztertzen den gaia da hau. Meaden arabera, Paulek, Herbarten jarraitzaile koherentea izanik, ez zuen gizabanakoaz haragoko fenomeno psikologikorik onartzen. Herbarten eskolaren psikologiari jarraitzen zitzaizkion hizkuntzalarietzat, hizkuntza komunitatearen bizitzari lotua dagoen aldetik, hori aztertzea “Zientzia konparatzaile historiko eta objektibo” dagokie (Mead 1904: 376). Psikologiari gelditzen zaion aztergai bakarra hizketa da, gizabanakoaren egintza den aldetik. Psikologiak lagun dezake, adibidez, zientzia aplikatu moduan, hots-aldaketak azaltzen, baina haren azalpenek ez dute aldaketa esplikatzen gizabanakoaren esperientzia den aldetik baizik. Esperientzia hori, hotsa den aldetik, zientzia fisikoko gertakari bihurtzen da eta, hizketa den aldetik, hizkuntzalaritzako gertakari; horrenbestez gizabanakoaren izatea gainditzen duten lege unibertsalen mende dago. Alde horretatik, hizkuntza ez da psikologiaren arloan sartzen; psikologiara jo daiteke, hala ere, garrantzi gutxi aldaketak esplikatzeko. Psikologiari, hortaz, linguistikaren mirabe izatea dagokio.

Eta, XIX. mendeko hizkuntzalaritza eta psikologia nondik nora zebiltzan ikusi ondoren, hel diezaikegu Wundten garaia deitu nahi izan diogunari. Orain bai bete-betean gaude Wundten garaian. Wundt 1875ean iritsi zen Leipzigera, mendearen azken laurdenaren hasieran, eta urte hori hartu nahi izan dugu hizkuntzalariak eta psikologoak lehenbiziko aldiz elkarri begiratzeko hasi ziren garaia mugari. Izan ere, Leipzigera etorri zenetik Wundt figura nagusi eta erreferentzi puntu bilakatu zen psikologian eta baita hizkuntzalaritzan ere. Eta Wundten eta psikologiaren gailentasunari dagokionez, Wundten *Die Sprache* agertu aurreko hamarkada eta agertu ondokoa izan ziren bereziki garrantzizkoak, Blumenthalen (1970: 241) arabera. *Die Sprachen* lehen argitalpena 1900ekoa da. Laster lan asko eman ziren argitaratu hizkuntzaren psikologiari buruz. Bada, liburu horiek guztiak, hala dio Blumenthalen (*idem.*), Wundten ardatzean zebiltzan. Gauza bera esan behar da hizkuntzaren teoriaren gaineko eztabaidei dagokienez: Paul, Delbrück, Marty edo Bühlerren iruzkin eta kritikek Wundt zuten jomuga. Iritzi berekoa da Kess (1983) hizkuntzalaria ere; Bloomfielden 1914ko *An introduction to the study of language* liburuaren berrinprimaketari egindako sarreran aitortzen duenez, Wundtekin bat etorri ala ez, hogeigarren mendearen hastapenetan hizkuntzalaritzaren izaeraren berri eman nahi zuenak nekez egin zezakeen hori kontuan izan gabe Wundten ideiak hizkuntzaren psikologiari buruz.

b) Wilhelm Wundt (1832-1920): pertsona, hizkuntzaren psikologia, eztabaidak, eragina

i. *Wundtezen zigutena*

Ezin da esan bitxia ez denik Wundtekin gertatutakoa. Schultz eta Schultzek (2000: 76) “datuak desitxuratu egin ziren kasua” deitzen diote Wundten kasuari. Psikologia ikasten 1970etan hasi ginenoi Wundti buruz gauza hauek esan zitzaizkigun:

- Berak sortu zuela estrukturalismoa deritzan psikologiako lehenbiziko “eskola”.
- Wundten eskolak gogamenaren edukiak beren oinarrizko osagaietan analizatzea zuela helburu nagusi eta, horretarako, introspektzioa zeukala metodo nagusizat.
- Psikologia kulturala, edo *Völkerpsychologie* delakoa, ez zela Wundten zahartzaroko bigarren mailako hobby bat baizik izan; 10 liburukiko obra horretan landu zituen gaietan ez zegoela egiatan interesaturik.
- Wundten seme intelektuala E. B. Titchener (1867-1927) zela; honek, Leipzigen Wundtekin ikasi eta gradua lortu ondoren, Wundten estrukturalismoa zabaldu zuela Ameriketako Estatu Batuetan.
- Britainiar enpiristentzat bezala, Wundtentzat ere gogamena pasiboa zela, asoziazio prozesu pasiboen fruitu.

Esan beharra dago aurreko puntu horietan sinesten duena oker dagoela. Baldwin 1921ean idatzi zuen “In memory of Wilhelm Wundt” heriotza-oharrean gogoratzen duenez, Wundtek beti izan zuen “gaizki ulertua eta desitxuratua” izateko beldurra (Baldwin 1980 [1921]: 301, aipatua in Schultz eta Schultz 2000). Eta ez zitzaion arrazoirik falta. Baina, 1970eko urteetan, behaviorismoak behera eta psikologia kognitiboak gora egitearekin batera, zenbait historialari, horien artean lan honetan gelditu gabe aipatzen ari garen Blumenthal, Wundti hurbilagotik begiratzen hasi ziren eta aurkitu zuten bi gauza zirela tradizioz jasotakoa eta errealitatea. Orduz geroztik, kontu eta arreta handiarekin hitz egiten dute historialariek Wundten bizitzaz eta obraz. Gaur egun, ez duzu ikertzaile seniorik aurkituko goiko puntu horietan esaten direnak aipatuko dituenik, horiek ukatzeko ez bada. Datuen desitxuratze hori dela eta, zenbait galdera egin daitezke: zergatik gertatu zen hori, zergatik pasatu ziren horenbeste urte horretaz jabetu arte eta, azkenik, zer esan zuen egiaz Wundtek?

Lehenbiziko galderari dagokionez, zenbait gauza hartu behar dira kontuan. Batetik, Wundtek erruz idatzi zuen. Nekez egongo zen hark ekoiztiko guztia irakurriko zuenik.²² Gainera, haren idazlan gehienak alemanetik itzuli

²² Boringen (1950, aipatua in Kess 1983) kalkuluen arabera, 53.735 orrialde idatzi zituen 1853tik 1920ra bitartean, eguneko 2,2 orrialde.

gabe zeuden. Gauzak horrela, alemanez ez zekitenak erraz fidatzen ziren, errazegi egia esan, bestek Wundtez esandakoetan, Wundtek berak zioena jakiteaz arduratu gabe. Psikologoentzat psikologiaren historia ikasteko iturri nagusia E. G. Boringen *A history of experimental psychology* izan zen, aurreneko aldiz 1929an argitaratua eta 1950ean berrargitaratua. Boringek psikologia Edward Bradford Titchenerrengandik ikasi zuen, eta hor dago koska. Titchener ingelesa zen eta Wundten psikologiarekiko interesa Oxforden filosofia eta fisiologia ikasten ari zela piztu zitzaion. Wundten *Psikologia fisiologikoaren hastapenak* liburuaren hirugarren edizioa itzuli zuen ingelesera eta, Ingalaterran zientzia berria norekin ikasi ez zeukanez, Leipziger a jo zuen 1890ean, han Wundtekin doktore-tesia egiteko. Doktore-gradua 1892an lortu zuen eta, Ingalaterrako unibertsitateek psikologia berriari harrera onik egiten ez ziotenez, Cornell Unibertsitatean (New York estatuan) eskaini zioten katedra onartu zuen eta han gelditu zen 1927an hil zen arte.

Titchenerrek Wundten ordezkariatzat aurkeztu zuen bere burua Ameriketako Estatu Batuetan, baina haren psikologia ez zen inola ere Wundten boluntarismoa (Danziger 1990, Goodwin 2004). Titchenerrek zuen gogamenaren ideiak zerikusi handiagoa zuen Oxforden ikasi zuen John Locke eta haren oinordekoen ingeles filosofiarekin Wundten pentsaerarekin baino. Cornellen sortu eta zabaldu zuen eskola, estrukturalismoa, bere eskola zen, Titchenerrena alegia, ez Wundtena. Funtsean, Titchenerrek Wundten obraren zati bat hartu eta gehiegizko garrantzia eman zion; beste zati batzuei, aldiz, garrantzia kendu zien edo ez zituen aipatu ere egin.

Wundten obraren zatirik gehiena ingelesera itzuli gabe gelditzeko eta haren psikologiari AEBetan harrera eskasa egiteko beste arrazoirik ere bada. Aipagarriena honako hau da: Wundten izateko eta idazteko modua eta William Jamesena (1842-1910) ezin elkartzekoak zirela. James amerikar filosofo eta psikologoa zen, pragmatismoaren gidari eta aitzindaria filosofian eta funtzionalismoarena psikologian. Bien arteko haustura 1890 aldera gertatu zen, biak beren karreraren erditsuan zeudela (Blumenthal 1970). Jamesek lehengo bidaliak zizkion ikasleak Wundti eta Alemaniako psikologia berriaren goraiamenak eginak zituen. Jamesen 1890eko *Principles of psychology* (*Psikologiaren hastapenak*) liburu famatua irakurri ondoren, honako hitz hauek esan zituen nonbait Wundtek (Blumenthal 1970: 238): “Literatura da, ederra da, baina ez da psikologia”. Bestalde, Leipzigen ikasten ari zen Judd amerikarrak 1894an Jamesen idazlanak alemanera itzuli nahi izan zituenean, esan zitzaion James bigarren mailako filosofotzat zeukatela Alemanian eta ez zuela merezi haren lanak itzultzea. Ildo berekoa izan zen Jamesen erreakzioa Wundten kontra. Honen laborategian pazientzia handiarekin egiten zen lanaren kontura trufa eta burla egin zuen, esanez lan hori egiten zen lurraldekoek ez zekitelana zer den aspertzea. Eta, horrela, Jamesen eta Wundten arteko etena gertatu zen. Mendearen hasieran, Ameriketako Estatu Batuetako psikologo gehienak ez Wundten, baizik Jamesen ondotik joan ziren.

Beste galdera bat, Wundti gertatutakoa dela eta egiten genuena, honako hau da, ea zergatik ez ziren ikertzaileak lehenago ohartu horretaz. Bi arrazoi nagusik azaltzen dute hori. Batetik, 1960ko hamarkadaren hondarrean eta 1970ekoaren hasieran psikologiaren historiak berebiziko goraldia izan zuen diziplina bezala. Bestetik, 1960etan psikologia kognitiboa azaldu zen. Bestela esateko, psikologoak gero eta interes handiagoa hasi ziren jartzen urte luzeetan, behaviorismoaren eraginez, ia tabu ziren gogo-prozesuen ikerkuntza esperimentalean. Eta, hala, ikerkuntza kognitibo berrian ongi jantziak zeuden historialari batzuek, Blumenthal eta Leaheyk adibidez, loturak ikusi zituzten 1960ko urteetako psikologia kognitiboaren eta Wundten psikologiaren artean eta Wundten lana azertzen hasi ziren psikologia kognitibo berriaren argitan.

Azkeneko galdera gelditzen zaigu orain, ea zer esan zuen egiaz Wundtek. Garai batean esaten zitzaigun —eta esan edo idatzi ere egin izan dugu inoiz— Wundt estrukturalista zela, baina hori ez da egia. Egia da Wundten helburuetako bat, bere laborategiko lanari dagokionez, kontzientziaren oinarritzko osagaiak analizatzea eta horien sailkapena egitea zela. Azken batean, ikasketak medikuntzan eta fisiologian zituen eginak eta berez bezala zuen sailkapenerako joera. Baina analisiak eta sailkapenak garrantzi gutxi zuten Wundten sisteman. Gogamenak nola antolatzen dituen bere esperientziak: horra zerk arduratzen zuen nagusiki Wundt. Antolatze lan horretan gogamena aktiboa zen Wundtentzat, britainiar enpirista eta asoziazionistentzat ez bezala; hauek gogamena estimulazio-hartzailletzat zeukaten: zentzumene-tan barrena zer sartzen zen, horixe zen gogamenean zegoena, eta hor asoziazio-legeei leku berezia aitortzen zitzaien gogamena, zentzumene-tan zeharreko elementuetatik abiatuz, nola garatzen den ulertzeko orduan. Wundten ikuskeran, nahimenak edo borondateak funtsezko zerikusia zuen gogamena-ren jardueran eta, horregatik, bere sistemari *boluntarismoa* deitu zion, eta ez estrukturalismoa. Boluntarismoaren ideia Schopenhauerrengandik zetorren eta hizkuntzari, pentsamenduari eta munduari begiratzeko modu berri bat zen. Herbartek buruko irudikapen edo ideien arteko harremanak azaldu nahi izan zituen. Wundtentzat hori ez zen nahikoa; horrezaz gainera, harreman horiek ezartzen dituen egintzan ere interesatua zegoen bera. Egintza hori borondatezko egintza da eta egintza hori da gogameneko eduki zaharrei sintesi berri bat ezartzen diena.

Sistema boluntarista horretan kontzeptu nagusietako bat *apertzepzioa* zen, Wundtek Leibnitzengandik mailegatu zuena eta bere psikologiaren oinarritzko osagai egin zuena. Orrialde hau irakurtzen ari zarela, zure arreta guztia perpaus honetan eta perpaus honen esanahian dago jarria (hala espero dugu, behinik behin). Hori apertzepzioa da, erreparatzea. Bada informazio gehiagorik ere zure arretaren kanpoaldean eta informazio hori ere jasotzen duzu nolabait, baina horren apertzepziorik ez duzu; pertzepzioa bai, horren pertzepzioa gertatzen da, baina apertzepziorik ez. Apertzepzioak, gai-

nera, modu aktiboan eta esanahia duten osotasunetan antolatzen du informazioa. Horrela, “sagu” hitza ikustean, ez ditugu lau letra bereiz hautematen; guretzat esanahia duen kontzeptu bakar bat hautematen dugu. Baliteke gure ikusmenak hasieran esanahirik gabeko marrak eta sinboloak prozesatzea, baina gure gogamenak esanahia duen osotasun bat sortzen du. Apertzepzio prozesua “sintesi sortzailea” zela zioen Wundtek. Wundten apertzepzioak zerikusi gutxi zuen pasiboagoa den asoziazionismoarekin. Horretaz dudarik balego, nahikoa da McCauleyri kasu egitea honela mintzo denean: “Biek [Wundtek eta Chomskyk] kritika suntsitzaileak egin dituzte azken ehun urteotako filosofian, psikologian eta hizkuntzalaritzan gehienetan nagusi izan den asoziazionismoaren kontra...” (1987: 341).

Wundten psikologiaren beste osagai bat paralelismo psikofisikoaren printzipioa da. Printzipio horren arabera, barneko prozesu psikologikoen eta kanpoko seinale fisiologikoen artean nahitazeko lotura dago. Printzipio horretan oinarritu zen Wundt (ikus Nerlich eta Clarke 1998) adierazpen hau egiteko: pentsamendua eta beste fenomeno psikologiko batzuk ikertu nahi badira, horien emaitza adierazkor eta kolektiboen bidez, hau da, hizkuntzaren bidez, egin daitekeela hori. Hizkuntzaren estudioak, horrela, leku nagusia du Wundten psikologian.

ii. *Bizitza*

Mediku-ikasketak Tübingeneko Unibertsitatean hasi eta Heidelbergekoan jarraitu zituen. Azkeneko honetan anatomia, fisiologia, fisika, medikuntza eta kimika ikasi zituen. Medikua ez zuela atsegin ohartu zen eta espezialitate gisa fisiologia aukeratzea erabaki zuen.

Berlingo Unibertsitatean Johannes Müller fisiologo handiarekin ikasten sei hilabete egin ondoren, Heidelbergera itzuli zen eta doktore-titulua atera zuen 1855ean. Heidelbergen fisiologiako irakasle izan zen 1857tik 1864ra arte, *Privatdozent* moduan, eta Hermann von Helmholtzen laborategiko laguntzaile ere izendatu zuten. Huttonek (1995b) dioenez, Helmholtzen pertzepzioaren teoriak eragin erabakigarria izan zuen Wundtengan. Aspergarria gertatzen zitzaion ikasle hasiberriei laborategiko hastapenak irakastea; horregatik, utzi egin zuen lan hori. 1864an irakasle elkartu izendatu zuten eta beste 10 urtez aritu zen lanean Heidelbergeko Unibertsitatean.

Fisiologiako ikerketak egiten ari zela, Wundt zientzia aske eta esperimentalta izango zen psikologiaren arlo baten ideia buruan erabiltzen hasi zen. Bere ideiak *Beitrag zur Theorie der Sinneswahrnehmung (Zentzumen-pertzepzioaren teoriari ekarpenak)* izeneko liburuan aurkeztu zituen, zeina argitara eman baitzuen zatika 1858tik 1862ra bitartean. Hor, berak bere etxeko hala-holako laborategian egindako esperimentuak azaldu zituen, baita eskaini ere bere ikuspuntua psikologia berriarentzako metodo egokiei buruz. Gainera, liburu horretan erabili zuen Wundtek lehenbiziko aldiz “psikologia esperimentalta”

terminoa. Hurrengo urtean beste liburu bat atera zuen, *Gizaki eta animalien gogamenen gaineko ikasgaiak*.

1867tik aurrera, Wundtek ikastaro bat eskaini zuen Heidelbergen psikologia fisiologikoaz, ezaugarri horiekin munduan ematen zen lehenengo ikastaroa. Ikastaro horien fruitua garrantzirik handieneko liburu bat izan zen, *Grundzüge der physiologischen Psychologie (Psikologia fisiologikoaren hastapenak)*,²³ bi zatitan agertu zena 1873an eta 1874an. Wundtek, 37 urteko epean, sei ediziotan berrikusi zuen liburua; azkenekoa 1911n atera zen. Dударik gabe Wundten lan nagusia, liburu horrek sendo ezarri zuen psikologia laborategiko zientzia aske bezala, bere aztergai eta bere esperimentazio metodoekin. Urte askotan zehar, *Psikologia fisiologikoaren hastapenak* liburuaren hurrenez hurrenako edizioak informazio-iturri eta psikologia berriaren aurrerabidearen adierazgarri izan ziren psikologo esperimentalentzat. Liburuaren hitzaurrean, Wundtek esplizituki adierazten zuen zein zen bere helburua: “Zientzia eremu berri bat eratzea”. Liburu horri esker, “filosofia induktiboko” katedra lortu zuen 1874an Zuricheko Unibertsitatean; han, Huttonen (1995b) arabera, logika eta herrien psikologia (*Völkerpsychologie*) irakatsi zituen.

Wundten irakasle-lanaren parterik luzeena eta garrantzizkoena 1875ean hasi zen, Leipzigeke Unibertsitatean filosofiako katedra eman ziotenean: han 45 urtez lan harrigarria egin zuen. Iritsi eta handik gutxira laborategia sortu zuen Leipzigen eta 1881ean *Philosophische Studien* aldizkaria, laborategi berriaren eta zientzia berriaren argitalpen ofiziala, abiatu zuen. Aldizkaria, 1906an, *Psychologische Studien* bihurtu zen. Beraz, bazegoen eskuliburu bat, laborategi bat ere bai, baita adituentzako aldizkari bat ere: psikologia abian jarria zen. Wundten fama zabaltzen ari zen eta haren laborategiak ikasle sail handia erakarri zuen Leipziger, berarekin lan egitera. Horietako askok ekarpen garrantzizkoak egingo zizkioten gero psikologiari. Horien artean ipar amerikarrak ere bazeuden, gero Estatu Batuetara itzuli eta beren laborategi propioak eraikiko zituztenak. Ikasle hauen bitartez, Leipzigeke laborategiak eragin izugarria izan zuen psikologia modernoaren garapenean, eredutzat hartu baitzuten hura laborategi berri askok.

Leipzigeke laborategian fisiologiako metodoak erabiltzen ziren giza kontzientzia indibidualaren eduki eta prozesuak aztertzeko. Wundten laborategian ekin zitzairen ikerketen artean, honako hauek aipa daitezke: sentipenak aztertu eta neurtzeko esperimentu psikofisikoak, gogo-prozesuen iraupena neurtzeko erreakzio-denboraren esperimentuak eta arreta, oroimena eta ideien arteko asoziazioari buruzko esperimentuak. Esperimentu mota horie-

²³ Izenburuan “psikologia fisiologikoa” esaten bada ere, liburuaren gaiak ez du zerikusirik gaur egun psikologia fisiologikoaz ulertzen denarekin. Garai hartan, “fisiologikoa” hitza “esperimental” hitzaren sinonimo gisa erabiltzen zen alemanez. Psikologia fisiologikoa, Wundtentzat, fisiologoek erabiltzen zituzten metodo eta teknikez baliatzen zen psikologia zen.

taz gainera, esperientzia kontzienteari buruzko txostenak ere erabiltzen ziren Leipzigerko laborategian, Wundtek barne-pertzepzioa, eta ez introspekzioa, deitzen zuen metodoaren bidez. Esperimentuen berri ematen zuten hasiera haietako txostenetan gogo handia nabari zen emaitza enpirikoak xehetasunez emateko. Hona adibide batzuk, gogo-prozesuen dimentsioak zentzutan emateak sortzen zuen liluraren adierazgarri: Jastrowek (1886, aipatua *in* Fuchs eta Milar 2003) jakinarazten zuen hitz labur bat izendatzeak 0,05 segundo gutxiago hartzen zuela alfabetoko letra bat izendatzeak baino; Cattellek (1885-1886, aipatua *in* Fuchs eta Milar 2003), berriz, erakusten zuen koloreak edo margolanak izendatzeak ia bi aldiz denbora gehiago hartzen zuela letrak edo hitzak izendatzeak baino. Ez da harritzekoa Leipzigerko “gramatikari gazteak” liluraturik gelditzea zehaztasun eta berotasun horren aurrean eta zehaztasun zientifiko hori hizkuntzaren estudiora eramateko irrikatzen egotea.

Baina, laborategia eta aldizkaria ongi finkatuta zeudelarik, Wundt filosofia itzuli zen. 1880tik 1891ra bitarteko urteetan, etikaz, logikaz eta filosofia sistematikoaz idatzi zuen. *Psikologia fisiologikoaren hastapenak* liburuaren bigarren edizioa argitaratu zuen 1880an eta hirugarrena 1887an, eta bere aldizkariako artikulua idatzen segitu zuen. Wundtek bere lehenbiziko liburuan aipatua zuen bidenabar beste arlo bat, geroago bere adimen handia eskaini ziona: gizarte-psikologia bat sortzea. Proiektu horri heldu zionean, 10 liburukiko lana idatzi zuen, *Psikologia kulturala*, 1900dik 1920ra bitarteko urteetan argitaratua izan zena.

Psikologia kulturalak giza gogoaren garapenaren aldiak aztertu nahi zituen, hau da, hizkuntzan, artean, mitoetan, gizarte-ohituretan, legean eta moralean ageri den garapenaren aldiak. Lan hau idazteak lanaren edukiak berak baino ondorio garrantzizkoagoak izan zituen psikologiantzat; psikologia zientzia berria bitan banatzeko balio izan zuen: esperimentalak eta sozialak. Buru-funtzio bakunak, sentipena eta pertzepzioa esaterako, azter daitezke eta aztertu behar dira laborategiko ikerketen bidez; hala uste zuen Wundtek. Baina berak uste zuen goi-mailako prozesu kognitiboak aztertzeke metodo bakarrak behaketa naturalista eta historia zirela (Fuchs eta Milar 2003). Wundten psikologia fisiologiko edo esperimentalari “kanpoko fenomenoak” zegozkion: sentipena, pertzepzioa eta mugimendua; haren psikologia kulturalari, aldiz, “barneko fenomenoak”: hizkuntza, erlijioa, mitoa eta kultura. Goraxeago aipatu dugunez, Wundti buruz urteetan oker esandako gauzetako bat honako hau izan zen: hark ez zuela egiaz interesik psikologia kulturallean. Berri hori Titchenerrek zabaldu zuen aurrena eta haren jarraitzaile Boringek gero. Baina hori ez dela egia begien bistako gauza da. Goodwinek (2004) esaten digunez, goi-mailako buru-prozesuekiko interesa aspaldikoa zuen Wundtek eta bere bizitzako azken bi hamarkadak oso osorik eskaini zizkien. Baker eta Mosek (1979, aipatua *in* Kess 1983: xxii), berriz, Wundtek psikologia kulturalari ematen zion garrantziaz ez dute du-

darik egiten: “Wundten bizitzako (1890-1920) azken hogeita hamar urteetako idatziek argi asko adierazten dute arlo honen atzetik zebilela, berak *Völkerpsychologie* deitua zuenaren atzetik alegia”. Bloomfieldek, bestalde, 1913an egin zuen Wundten (1912) *Elemente der Völkerpsychologie (Psikologia kulturalaren oinarriak)* laburpenaren aipamenean, berebizikotzat jo zituen Wundten *Völkerpsychologie* hori osatzen zuten liburukiak eta honako hau esatera ausartu zen, hots, horrelako lana Wundtek bakarrik egin zezakeela. Koernerrek (1983: xiii), berriz, obra hori Wundten “*magnum opus*” dela dio. Baina badira bi lekukotasun Wundtentzat psikologia kulturala, edo herrien psikologia, axolarik handienekoa zela adierazten digutenak. Lehenbizikoa Wundtena berarena da. Honela zioen berak (Wundt 1904, aipatua in Nicolas 2004: 8): “badira psikologia modernoaren bi lorpen handi; bat da psikologia esperimentalta eta bestea psikologia kulturala”. Bigarren lekukotasuna Jose Migel Barandiaranena da.²⁴ Esana dugu jende asko hurbildu zela Leipziger Wundten laborategian ikerketa lanetan trebatzera. Bada, Barandiaran ere Leipzigen agertu zen 1913an Wundtek ematen zuen ikastaroa hartzeko asmotan. Eta hara joan zen berak zituen arazo eta kezkei erantzuten zuelako Wundtek irakasten zuenak. Irakasleak dagoeneko 81 urte zituen; ikasleak, 23. Barandiaranek izan zuen Leipziger laborategia ikusteko aukera, baina ez zuen han lanik egin, berak dioenez ordurako utzia baitzuen Wundtek psikologia indibiduala eta, Barandiaranen hitzetan, “espikatzen zuena ez zen psikologia (...) baizik herrien psikologia (...) azken batean etnologia zena”. Urtebete egin zuen gure Barandiaranek Leipzigen eta ez omen zitzaion damutu hara joan izana. Inpresio ezin hobea egin zion Wundtek hasieratik beretik: oso adeitsua eta xaloa zela zioen Barandiaranek. Berarekin oso ongi jokatu omen zuen eta izugarritzko eragina izan omen zuen berak hartu zuen bidean; izan ere, aholku hau eman zion: norberaren herria estudiatzea bizitza osoa eskaintzea merezi duen egitekoa dela. Aholku horrek bere izatea aldatu omen zuen. Eta hona itzulita, euskal kultura aztertzeari ekin zion Barandiaranek Wundten *Völkerpsychologie* markatzen zuen bidetik. Eskutitz bidez harremanetan segitu zuten biek, baina zoritxarrez, 1936ko gerra zela eta, Barandiaranek galdu egin zituen Wundten eskutitzak.

iii. Hizkuntzaren psikologia

Segur aski ez da oso ausarta izan behar esateko Wundtek bere psikologia kulturalan jorratu zituen gaietatik hizkuntza izan zela lehiatsukienik landu zuena. Wundten psikologian leku berezia zuen hizkuntzak. Hizkuntzaren psikologiari eskaini zion lan nagusiak, *Die Sprache (Hizkuntza)* izenekoak, eman zion hasiera 1900ean bere *Psikologia kulturala* obra handiari. Gainera,


²⁴ Jose Maria Gondra EHuko psikologiaren historiako katedradunak 1986an elkarriketa bat egin zion Jose Migel Barandiarani, hain zuzen ere Wundtekin izan zuen harremanari buruz. Elkarriketa horren berri jakiteko, ikus Gondra (1991).

bi aldiz berrikusi zuen lan hori, 1904an eta 1911-1912 urteetan, eta 1900ean 644 orrialde izatetik 1912an 1.378 orrialde izateraino iritsi zen (Kess 1983). Josephek (1995), xx. mende-hasierako linguistikaz ari dela, Wundt orduko figura gailenetakoa zela esan ondoren, haren *Völkerpsychologie*k argi eta garbi hizkuntzazko osagaia duela dio, eta Wundti itzelezko prestigioa eman ziola. Huttonek (1995b), Wundten 1901eko *Sprachgeschichte und Sprachpsychologie* lanaren berrinprimaketaren hitzaurrean, atal bat eskaintzen dio Wundten eta hizkuntzalaritzaren arteko loturari. Atalaren hasieran, hizkuntzak Wundtentzat zeregin nagusia zuela dio eta hizkuntzak Wundten pentsaeran zer erakusten zuen erasten du: hizkuntza zubi bat dela indibiduala denaren eta kolektiboa denaren artean, erkidego edo komunitate baten muga kontzeptual eta intelektualen berri ematen duela eta horren historiak aukera ematen digula nolabait ulertzeko zer-nolakoak izan diren herrien arteko eraginak. Baina hizkuntzan zuen interes intelektualaz gainera, segitzen du Huttonek, arreta handia jarri zuen, eta parte hartu ere bai, hizkuntzalaritzako eztabaidetan. Wundtek parte hartu zuen eztabaidak izango ditugu hizpide hurrengo puntuan. Wundtek, bestalde, bere oroitzapenetan jakinarazten du —hau ere Huttonen (1995b: xv) hitzaurrean irakur daiteke— berak Züricheko unibertsitatean 1875eko lehen seihilekoan irakatsitako gai bat hizkuntzaren psikologia izan zela eta hurrengo seihilekoan gai hori bera azaldu zuela Leipzigen. Wundtek hizkuntzan arreta handia jarri zuela ez dago dudarik. Zergatik zuen interes hori ere adierazi digu Huttonek. Hemen erantsi nahi duguna Altmannek (2001) gogorarazten diguna da, honako hau: Wundtentzat hizkuntzaren psikologia, edo psikolinguistika —Altmannek erabiltzen duen hitza erabiltzeko—, hizkuntzaz adina gogamenaz ari dela. Bestela esateko, hizkuntza estudiatzeak gauza interesgarriak iradoki ditzake gogamenaren zer-nolakoa ulertzeko. Ideia hori *Die Sprachen* aipatzen zuen Wundtek.

“Psikolinguistika” hitza erabiltzen du Altmannek Wundtez ari dela. Kessek (1983: xxi) *Die Sprache* Wundten “lan psikolinguistiko nagusia” dela esaten du. Blumenthalek (1970: 9), berriz, ez du eragozpenik Wundti titulu hau emateko: “the master psycholinguist”. Eta Blumenthali jarraituz, askok deitu diote Wundti psikolinguista eta haren hizkuntzaren psikologiari psikolinguistika. Hori nahasgarri gerta dakiokenez bati baino gehiagori, beziki psikolinguistika hitza noizdanikakoa den dakienari, on izango da hemen azalpenen bat ematea. “Psikolinguistika” terminoa ez da ia inoiz ageri literatura psikologikoan 1953 aurretik. Tatiana Slama-Cazacuren (1972) arabera, N. Pronko izeneko autore batek erabili zuen lehenbiziko aldiz hitz hori 1946an artikuluan izenburuan. Pronko delako hori Indiana Unibertsitatean ari zen lanean, hain zuzen 1953an zenbait hizkuntzalari eta psikologok oso aipatua den sinposiuma egin zuten lekuan. Bilera hori zela eta, Osgood psikologoak eta Sebeok hizkuntzalariak monografia bat kaleratu zuten 1954an *Psycholinguistics* izenburuarekin; horren ondorioz, “psikolinguistika” hitza berehala zabaldu zen hizkuntzaren ikertzaileen artean. Dena

dikapen oso hori bata bestearen ondoren jartzen diren hizketa-segmentuetan banatzeko. Horregatik da perpausa hizkuntzaren oinarrizko unitatea Wundten pentsaeran. Baina perpausaren kontuari berehala helduko diogu. Orain, Wundten teoria psikologiko orokorraren eta hizkuntzaren teoriaren arteko loturari dagokiona bukatzeko, beste adibide bat ekarriko dugu hona. Aipatua dugu nola Wundten arabera borondatezko egintza batek ezartzen dituen buruko edukien arteko harremanak; bada, egintza hori, hizkuntzaren mailan, “ahotsezko keinua” izango litzateke.

Wundtek hizkuntzalaritzari egindako lehenbiziko ekarpena, 1880-83ko *Logik* liburuaren bigarren partean dagoena, zuhaitz-diagrama asmatzea izan zen. Perpausen analisi gramatikala egiteko metodo bat zen eta horren azken helburua zen perpausen atzetik dauden gogo-egoerak nola dauden antolatuta azaltzea. Aurreko paragrafoan esan dugunez, Wundtentzat perpausa zen hizkuntzaren unitate nagusia. Perpausak zuen lehentasuna eta hitza bigarren mailakoa zen. Wundten ikuspegi hau ez zetorren bat gorago aurkeztu dugun Paulenarekin eta hori izan zen bien arteko eztabaidagaietako bat, gero ikusterik izango dugunez. Wundtek perpausari lehentasuna emateko arrazoia ere adierazi dugu aurreko paragrafoan. Perpausa hasieran dagoen gogo-irudikapenari, *Gesamtvorstellung* delakoari, dagokio; edo horren adierazpen da, bestela esateko. Perpausa, dio Huttonek (1995b: xix), “batasun kontzeptual bat da hasiera-hasieratik Wundtentzat”. Blumenthal (1970: 17) adibide batez baliatzen da Wundten ideia azaltzeko. Egin dezagun norbait etxe zuri bat ari dela ikusten. “Etxe zuria” irudikapen oso edo *Gesamtvorstellung* bat da hasieran, baina ikusleak, arreta orain alderdi batean eta gero bestean jarritz, zati dezake hura. Hona hori adierazten duen zuhaitz-diagrama



Zatitze horrek, tartean subjektu-predikatu erlazio logikoa ezartzen duen judizioa dagoelarik, aukera ematen digu bakarria den gogo-irudikapena hizketa-hotsetan edo bestela adierazteko; honela, esaterako: “Etxea zuria da”. Hitzak, Wundtentzat, gogo-irudikapenen analisiaren ondorio arbitrarioak dira eta hitz bat aukeratzea edo beste bat aukeratzea gogo-irudikapen bera adierazteko, gizarte-konbentzionalismoen kontua izan daiteke. Hitzunaren ikuspegitik begiratuta gogo-irudikapen osoa bada aurrena eta gero horren analisia, entzulearen aldetik begiratuta gauzak alderantziz dira. Entzuleak, iristen zaion hots-seinaleen segidaren arabera, irudikapen bat eraiki behar du eta hori da hizkuntza ulertzea. Wundten hizkuntzaren ikuspegiari hertsia deri-

tzote Nerlich eta Clarkek (1998), zeren harentzat hizkuntzaren funtzio bakarra pentsamenduaren adierazpen izatea baitzen eta, hala, haren hizkuntzaren psikologia ez zen *Ausdruckspsychologie* baizik, adierazpenaren psikologia alegia, eta ez zituen kontuan hartzen hizkuntzaren beste funtzio pragmatikoago batzuk. Honetaz berriz aritu beharko dugu beherago Bühlerrek Wundti egindako kritikak ikustean.

Azkenik, aipa dezagun Wundtek hizkuntzaren, edo mintzamenaren, jatorriaz dioena. Meaden (1904) iritziz, arazo horri aurrez aurre heldu zion bakarra Wundt izan zen eta honek eskaini zuen azalpena iraultzailea izan zen; iraultzailea, hasieran egintza bat jartzen zuelako, ahots-keinua. Ez buruan dauden “objektu” edo asoziazio-atomo batzuk, baizik “gertakari” batzuk, adierazkorrak diren keinu batzuk. Bloomfieldek ere (1913; aipatua *in* Kess 1983) bikaina zeritzon hizkuntzaren jatorriari buruzko Wundten eztabaidari eta gaineratzen zuen hori zela Wundtek hizkuntzalaritzari egindako ekarpenik handiena. Espeziearen eboluzioan jartzen zituen keinu adierazkor horiek Wundtek pentsatzen zuen balitekeela haurraren hizkuntza-jabekuntzaren hasieran ere egotea (Blumenthal 1987).

iv. Eztabaidak

Aurreko puntuan laburtu dugun Wundten hizkuntzari buruzko ikuskerak eragin handia izan zuen, baina kritikarik ere eragin zuen, eta ez gutxi. Kritikarietako batzuekin eztabaidan ere aritu zen Wundt eta eztabaida horiek izango ditugu hizpide puntu honetan. Berak erantzun ez zien edo erantzun bakanen bat besterik eman ez zien kritikak hain zuzen *Kritikak* izena emango diogun hurrengo puntuan aztertuko ditugu. Kritika horietako batzuk, ikusiko dugunez, Wundt hil eta gerokoak dira eta, noski, ezin izan zien erantzun.

Wundt Leipziger a etorri zenean, bertako kazetariak ez zuten ongi hartu unibertsitateak lanpostu berria ezagunegia ez zen gizon hari ematea. Hala ere, hizkuntzalari batzuek harrera beroa egin zioten eta haren aurreneko eskoletara joan ere joan ziren. Bere oroitzapenetan, Wundt lehen elkarganatzeko haietaz mintzo da eta gogoan du nola adoretzen zuen berak hizkuntzalaritzaren arloan lehen autoritatetzat zeukan Leskienek (ikus Blumenthal 1970). Wundten Leipziger a lehen hitzaldia pentsamenduaren eta hizkuntzaren gainean izan zen eta eztabaidan agerian gelditu zen Wundtengan Darwinek zuen eragina. Baina orduan, berehala, Leskienek eta beste *Junggrammatikerrek* espero ez zutena gertatu zen: logika formalaren bidea hartu zuen eta Humboldtren tradizioari lotu zitzaion. Bere *Logik* obraren lehen liburukia 1880an agertu zen, laborategia ireki eta handik urtebetera. Hor hizkuntza kognizioaren teoria orokorraren barnean aztertzen zuen. *Junggrammatikerrek* ez zuten onartu ikuspegi hori, haien ustez nekez etor baitzitezkeen argirik hizkuntzalaritzarentzat logika formalaren ilunpeetatik. Eta horrela eztabaidak hasi ziren.

Nerlich eta Clarke (1998) diotenez, hasieran nor bere iritziak agertzea zen kontua eta egonarrria galdu gabe egiten zuten hori. Baina gauzak okertzen hasi ziren, eta eztabaida berotzen, Paul eta Wundt gatazka bizian sartu zirenean zenbait gairi buruz, hala nola perpausaren definizioa, hizkuntzaren jatorria eta, Meadek (1904) adierazten duen bezala, psikologiari dago-kion “eskumena” hizkuntzalaritzan. Hizkuntzaren arloan Paulekin izan zuen Wundtek eztabaidarik biziena, baita luzeena ere, ia 1920ra arte iraun baitzuen, Wundt hil arte ia, beraz.

1. Wundt eta Paul

Wundten eta Paulen auzian perpausaren izaera edo definizioa izan zen eztabaidagai nagusia. Horregatik, arazo horretaz ariko gara aurrena. Perpausaren zer-nolako auzibide izaten 1880an hasi zela esan daiteke, urte horretan plazaratu baitzituzten batak zein besteak beren iritziak hizkuntzari buruz, Paulek *Prinzipien der Sprachgeschichte (Hizkuntzaren historiaren oinarriak)* liburuan eta Wundtek *Logik* lanaren lehen liburukian. Nolanahi ere, Blumenthal (1970: 32) ez du aurkitu 1886 baino lehenago Wundt Paulen eta *Junggrammatikerren* aurka ageri den testu idatzirik. Urte horretan, berak sortutako *Philosophische Studien* aldizkarian kritikatu zituen aurreneko aldiz hizkuntzalari horiek. Harritzekoa ere bada Wundtek nola pentsatzen zuen jakinda, lehenago ez adieraztea bere aurkakotasuna. Beharbada kontuan hartzekoa izango da hemen Huttonen (1995b: xv) iradokitzen zuena, hots, Wundtek baziela sinpatia zerbait gramatikari gazteei. Perpausaren auzira itzuliz, Paulen arabera perpaus bat ekoizten denean, horrek esan nahi du hiztunaren buruan bi ideia, edo gehiago, elkartu direla. Hitzeko adierazpena eta buruko irudikapena isomorfoak dira. Horrela, perpausak sortzeko nahikoa da loturak edo asoziazioak ezartzea banakako hizketa-osagaien eta banakako gogo-osagaien artean, hau da, hitzen eta ideien artean. Paulek (1886; aipatua in Blumenthal 1970: 34) honela definitu zuen perpausa bere *Prinzipien* liburuaren bigarren edizioan: “Zenbait ideia edo ideia sail mintzatzailearen buruan elkartuak izan direla erakusten duen hizkuntzako adierazpena, edo sinboloa, da perpausa”. Eta ondoren gaineratzen du: “Bada entzulearen gogamenean ideien elkartze bera berregiteko bidea ere”. Geroxeago, perpausa osatzen duten bi zatiez ari dela, subjektuaz eta predikatuaz alegia, honela dio: “Subjektu psikologikoa hiztunaren kontzientzian aurrenik presente dagoen ideia da; horrekin ondoren bigarren ideia bat elkartzen da eta da predikatu psikologikoa”. Hitzak eta ideiak daude, beraz, hizkuntza eta pentsamendua, alegia, eta horien arteko harremanak. Harreman horiek Saussureren sisteman nolakoak diren azaltzen ari dela, Amado Alonsok (1984) harreman horiei buruzko haren ikusmoldeari *Junggrammatikerrena* baino askoz sakonagoa deritzo, azken hauena asoziazionista hutsa baita. Gero, oin-ohar batean, harreman horietaz Paulek pentsatzen zuena adierazten digu. Paulentzat harreman horiek “irudi akustikoa (hitza) ideiarekin elkartze hutsean” dautza (9. or., 1. oin-oharra).

Eta badaezpada gogorarazten digu ideiak, Herbarten psikologia asoziazionistan, existentzia autonomoa duela.

Esan gabe doa Paulen ikuspegi hau eta Wundtena, aurreko puntuan azaldu duguna, ez zetoze bat. Esan bezala, Wundtek honela ikusten zuen perpausaren eta, oro har, hizketaren ekoizpena: aurrena, pentsatze prozesu oso bat dago eta gero pentsamendu hori hurrenez hurren antolatutako hizketa-segmentuetara aldatzen da. Perpausak nola ekoizten edo sortzen ditugun honela azaltzen du Wundtek:

Perpaus bat eratzen dudanean, nire kontzientzian ez da aurrena kontzeptu isolatu bat sartzen niri hots bat eginaraziz hura ordezkatzeko. Ezin dela horrela izan indukzio fonetikoa deritzan fenomenoak erakusten du, zeina gertatzen baita adieraztear dagoen ahots-elementu bat dagoeneko eragiten ari zaionean une honetan ahoak den hotsaren formari. Eta, era berean, oraintxe gertatu den artikulazioak eragina du hurrengo hotsan. (...) Perpausa (...) ez da irudi bat zehaztasunez dabilena kontzientzian barrena, han hitz bakoitza edo hots bakoitza une batez bakarrik ageriko balitz bezala aurreko eta ondoko elementuak kontzientziazatik galduak diren bitartean. Aitzitik, [perpausa] osotasun gisa dago kognizio mailan esana den bitartean. Hala ez balitz, betiko galdua genuke pentsamenduaren haria. (Wundt 1912, aipatua in Blumenthal 1970: 21)

Paulen ikuspegiaren kontrako argudio bat perpausen analisisan sortzen zitzaizkion arazoena zen, hitz-ordenak eragiten zituen efektuena adibidez. *Prinzipien* 1909ko edizioan, Paulek entzulearen jarduna jarri zuen bere ikuspegiaren aldeko froga ezin argiagoa bezala. Izan ere, zioen, entzuleak nahitaez behar ditu hitzak bata bestearen ondoren entzun. Wundten erantzuna izan zen entzulearen gogamena hiztunarena bezain aktiboa dela eta ulertu, bere gogo-irudikapen osoak hiztunak dioenaren arabera egokituz eta zuzenduz ulertzen duela (Blumenthal 1970). *Die Sprachen* 1912ko edizioan, azkeneko edizioan beraz, Wundtek espresuki aipatzen du Paul eta gogor kritikatzeko du honen perpausaren definizioa. Wundten arabera, aski da definizio hori antzinako gramatikarienekin konparatzea berehala ohartzeko haien artean zaharrena denari heldu diola Paulek, hots, perpausa hitzen kateatze hutsa bezala ikusten duenari. Eta hori gutxi balitz bezala, honako hau ere esatera ausartzen da Wundt: ikuspuntu batetik definizio zaharra Paulena baino hobea dela, zeren kanpokoa baita soil-soilik eta ez baitu ezer esaten hiztunaren buruan gertatzen denaz. Paulen definizio psikologikoak, aldiz, hori egiten du perpausa ideiak elkarrekin lotzea dela dioenean eta horrek esan nahiko luke perpausaren elkartu diren kontzeptuak perpausa osatu baino lehenago ere bazirela bakoitza bere aldetik. Hori gezurtatzeko, adibide hau jartzen du: “Belarra berdea da”. Perpaus hori hitz-kate bat dela esaten bada, ez da ezer sakonik esaten, baina ezer okerrik ere ez. Baina kontzeptu-kate bat dela esaten bada, orduan definizio hori okerra da dudarik gabe. Izan ere, jarraitzen du Wundtek, bi ideia horiek, *belar* eta *berde*, ez ziren bata bes-

tetik bereiz existitzen, gero bien artean osotasun bat sortzeko. Biak elkarrekin batean ziren hasiera-hasieratik, belarraren irudia eta horren berdetasuna ezin bereizizkoak baitira lehen begiratuan (Wundt 1912; ikus Blumenthal 1970: 38-39). Huttonek (1995b: xix) ongi dioenez, eztabaida horren atzetik psikologia ulertzeko bi modu zeuden: Herbartena bata, Paulek bere egin zuena, eta Wundtena bestea, Herbartenaren aurka zegoena.

Hizkuntzaren jatorriaz ere izan zuten eztabaidarik. Paulek uniformitarianismoaren ikuspegitik begiratu zion hizkuntzaren jatorriaren gaiari eta, hala, haren ustetan, funtsean faktore berak zeuden tartean hizkuntza guztietan eta aldi guztietan. Alde horretatik, sortzea hizkuntzan amairik ez zuen prozesua zen. Eta sortzearena aipatu dugunez, artetik baizik ez bada ere, esan dezagun sormenaren arazoak ez zuela Paulen sisteman Wundtenean zuen garrantzia. Paulek ez zuen ikusten sortze lanaren kontrola eramango zuen erdiko prozesu baten beharrik. Wundtentzat, aldiz, giza gogamena funtsean sortzailea zen. Gogo-egoerak eta horien adierazpenak buru barnean lantzen dira eta eraikitzen, eta lan hori erdiko kontrol prozesu sortzaile baten kontrolpean dago. Hizkuntzaren jatorriari dagokionez, Meaden arabera (1904) psikologia asoziazionistaren ikuspegia hartzen duenak ia ezinbestean pentsatu behar du hizkuntza asmaketa bat izan zela eta hizkuntza hasteko aurretik zegoen egoera ohiz kanpoko zela. Wundtek era honetan azaldu nahi izan zuen hizkuntzaren hasiera: jendeak bere barnean duena adierazi beharra edo adierazi nahia sumatzen du; bada, adierazteko bulkada primitibo horrek azalduko luke hizkuntzaren jatorria. Ikuspegi horri honako abantaila hau ikusten dio Meadek: psikologia hemen gertakari batzuei buruz ari dela eta ez atomo psikologiko batzuei buruz, Herbarten edo Paulen teorian bezala. Zuzena izan dadin edo ez, Wundten teoria gutxienez psikologikoa dela eransten du Meadek.

Paulen eta Wundten arteko beste auzibide edo eztabaidagai bat psikologiari hizkuntzalaritzan aitortu behar zaion sarbideaz izan zen. Edo bi iker-tzaile hauen kasuan zuzenago litzateke esatea eztabaidaren gaia honako hau izan zela, hots, zein psikologia motari aitortu behar zaion sarbiderik hizkuntzalaritzan. Hizkuntzalaritzak psikologia kontuan hartu behar duen ala ez, arazo horren gainean Wundten irizkide ez zena Delbrück zen, laster ikusterik izango dugunez. Paul eta Wundt bat eginik ageri zaizkigu hizkuntzaren interpretazioan psikologiak zeresanik baduelako ideian. Biek jotzen dute psikologiara, Wundtek gehiago Paulek baino hala ere ulergarria denez, beren hizkuntzaren teoriak eratzerakoan. Baina, gorago ohartarazi dugunez Paulen ikuspuntuen berri eman dugunean, hark ez zuen beste psikologiarik onartzen hizkuntzalaritzaren esparruan psikologia indibiduala baizik. Horrela, adibidez, hots-aldaketa zela eta, gizabanakoarengan jartzen zuen enfasia Paulek. Honen ideia zen psikologiak, ez emaitza edo ondorioei, baizik gizabanakoen egintzei begiratu behar diela eta zuzeneko behaketara mugatu behar duela. Paulen arabera, *Völkerpsychologie* delakoak aztertzen dituen giza-

banakoen arteko harremanak ere baliabide fisikoen bitartezkoak dira, ez zueneko harremanak. Honela zioen berak (Paul 1920; aipatua in Alonso 1984: 23, oin-oharra):

Arima batek [gogamen batek, alegia; Paulek, Herbartek bezala, *Seele* edo "arima" hitza zerabilen], beraren baitan jaio den irudikapen multzo bat beste norbaitengan iratzartzeko, ezin du besterik egin, mugimen-nerbioen bitartez produktu fisiko bat sortu baizik; honek, berriz, beste gizabanakoen sentimen-nerbioak kitzikatuz, berari dagozkion irudikapenak eta hauekin elkaturik daudenak iratzartzen ditu haien arimetan. Helburu horietarako baliagarri diren produktu fisikoetatik garrantzizkoenak mintza-hotsak dira.

Wundt, noski, bat zetorren, gizabanakoaren gogamenean existitzen den zerbait den aldetik hizkuntza psikologiaren aztergaietako bat dela, baina ez zuen uste psikologiaren egitekoa hizkuntzari dagokionez hor bukatzen zenik. Wundten ikuspegian, hizkuntzaren arloko fenomeno handiak ez dira gizabanakoen kontzientzian gertatzen direnak. Hizkuntzak baditu bi ezaugarri gizabanakoaren kontzientzian gertatzen direnetatik desberdintzen dutenak: batetik, ez dago gizabanakoaren bizialdiaren mendean eta, bestetik, belau-naldiz belaualdi aldatuz doa (ikus, honetaz, Mead 1904). Nerlich eta Clarkek (1998: 182) honela azaltzen dute Wundten pentsaera. Honentzat, hizkuntza gizabanakoen ekintza eta elkarrekintzen propietate emergente gisa sortzen da, gizabanako mailako fenomeno gisa, alegia. Baina hizkuntzak, behin agertuz gero, forma objektiboa hartzen du eta gero parte hartzen du gure ekintza indibidualei forma ematen. Eta Wundten esaldi hau aipatzen dute: "Herri baten arima, hortaz, bera osatzen duten arima indibidualen fruitua da, baina hauek ez dira gutxiago parte hartzen duten herriaren arimaren fruituak" (Wundt 1900/1911; aipatua in Nerlich eta Clarke 1998: 182). Beraz, psikologia indibiduala eta psikologia kulturala elkarren osagarri dira, ez elkarren baztergarri. Wundtek herriaren arimaz hitz egiten zuenez, Paulek uste izan zuen hura benetako existentzia duen substantzia moduko batez ari zela. Ez zegoen, noski, horrelakorik; gizabanakoek aurrez prestatuak aurkitzen duten eta berek parte hartzen duten zerbait adierazi nahi zuen Wundtek horrela hitz egitean. Nerlich eta Clarkek (*idem*) ematen duten interpretazioaren arabera, Wundtek hizkuntza, fenomeno sozial eta objektiboa den aldetik, aski bereiz eta aske ikusten zuen gizabanakoen bizitza fisiologikoetatik eta, horregatik, hura aztertzeke fisiologikoa ez zen psikologia mota bat landu nahi izan zuen, psikologia kulturala. Baina Wundtek ez omen zuen asmatu, hala diote aipatu berri ditugun autore horiek, gizabanakoaren eta hizkuntza den fenomeno sozial horren artean lotura estuagoa jartzen; bestela esateko, ez zen iritsi hizkuntza gizarte-elkarrekintza edo interakzio sozialaren ikuspegitik aztertzeraz. Wundten hizkuntzaren psikologiaren hutsune hori betetzen ahaleginduko ziren Bühler eta Mead. Baina horretaz geroxeago hitz egingo dugu.

Psikologiaren eta hizkuntzalaritzaren arteko harremanak direla eta, galdera bat zen zer onura atera dezakeen hizkuntzalaritzak psikologiatik eta bestea zer irabaz dezakeen psikologiak hizkuntza aztertetik. Lehenbiziko galderari dagokionez, esana dugu gorago nola Herbarten eskolako hizkuntzalariek, Paul barne, psikologiari zerbitzariaren egitekoa ematen zioten. Wundtek oso bestela ikusten zituen gauzak, noski. Wundten ikuspegia zen, hizkuntzaren erabilera edo performantzia azaldu nahi bada, beharrezkoa dela ulertzea hizketa aurretik, hizketa bitartean eta hizketa ondoren buruan gertatzen diren prozesuak. Hala, Wundten hizkuntzaren teoria psikologikoa zen eta haren printzipio linguistikoak printzipio psikologikoen ondorio ziren. Bigarren galdera psikologiari hizkuntzalaritzak egin diezazkiokeen ekarpenez da. Wundtek esana zuen (ikus Hutton 1995b, Nerlich eta Clarke 1998) psikologiak atera zezakeela intuiziorik, baita lege psikologiko orokorrik ere, hizkuntzaren arloko gertakariak aztertetik. Nerlich eta Clarkek (1998) eransten dute hori zela Wundten hizkuntzaren psikologiaren helburua. Paulek dudan jarri zuen Wundten baieztapena. Psikologia, bai, Paulen iritziz beharrezkoa zen hizkuntzalarientzat hizkuntzaren garapena ulertzeko, baina hizkuntzalaritza historikoak ezin zion ezer eskaini psikologiari.

Beste eztabaidagairik ere izan zuten Paulek eta Wundtek, esate baterako hots-aldaketak zergatik gertatzen diren edo zein den analogiari eman behar zaion garrantzia hizketa moldatzearen printzipio gisa. Hots-aldaketei dagokionez, gogoratuko da Paulen ideia, arkulariaren analogiaz baliatzen zena: entzuten ditugun hotsak ez ditugu erabateko zehaztasunez jasotzen eta, bestalde, ekoitzi behar ditugunean ez dugu horien gainean erabateko kontrolik. Oso bestelakoa da Wundten azalpena. Wundten iritzian, hotsak aldatzen dira gero eta azkarrago hitz egiten delako. Meadek (1904) zioen 1904an hizkuntzalariek ez zutela onartu Wundten hipotesia eta beharbada ezin eutsizkoa izango zela, baina gutxienez psikologikoa zela. Analogiaren printzipioaren auzian, Wundtek ez zion gauzak azaltzeko baliorik aurkitzen Paulek garrantzizkotzat zeukan printzipio horri. Wundtek zioen perpaus berri bat lehenagoko beste baten antzekoa izateak ez duela azaltzen nola sortu den hori.

2. Wundt eta Delbrück

Delbrückek 1901ean liburu bat idatzi zuen, Blumenthalek (1970) dioenez oso irakurria izan zena eta funtsean Wundten *Die Sprachen* iruzkina eta kritika izan nahi zuena. Liburuak izen hau zuen: *Grundfragen der Sprachforschung; mit rücksicht auf W. Wundt's Sprachpsychologie (Oinarrizko galderak hizkuntzaren ikerkuntzan; W. Wundten hizkuntzaren psikologiaren inguruan)*. Liburuan Wundten hizkuntzaren gaineko pentsaeraren zenbait alderdi aztertzen zituen, hala nola keinu-hizkuntza, hizkuntzaren jatorria, hots-aldaketa eta perpausaren definizioa. Delbrückek hor egiten zuen Wundten hizkuntzaren psikologiaren aipamena nahiko aldekoa eta are laudoriozkoa zela diote bai Huttonek (1995b) bai Blumenthalek (1970) eta, kritikak egiten zizkio-

nean ere, hitzak kontu handiz aukeratuak zirela eta beti gizabidetsu agertzen zela. Wundt bera ere, Delbrücki urte berean eman zion erantzunean, adeitsu eta esker oneko ageri zen hizkuntzariaren azalpen zorrotz eta zehatzagatik. Hala ere, kontuan hartzekoa da Huttonen (1995b: xx) oharra, zera esaten duenean: Delbrück estratega abila eta maltzurra zela eta Wundt goratu, gero ezarian eta bestela bezala lur azpian sartzeko goratu zuela. Esate baterako, bere kritika bukatzerakoan, Wundten psikologia gomendatzen die bere lagun hizkuntzalariei, baina berehala ziurtatzen die horren eta Herbarten psikologiaren artean ez dagoela funtsezko alderik.

Esan bezala, Wundten hizkuntzaren psikologiaren alderdi batzuk ukitzen ditu Delbrückek bere liburuan. Baina gai nagusia beste bat da, psikologiak hizkuntzalaritzan duen lekuarena hain zuzen. Delbrückek, Herbarten eta Wundten psikologien azalpen labur bat egin ondoren, garrantzi eta eragin handiko baieztapen hori egin zuen, oraintxe bertan adierazi duguna, alegia Wundten teoria psikologikoari heldu edo Herbartenari, horrek ez duela axolarik hizkuntzalariaentzat, hizkuntzalaritza, sistema formal abstraktuez ari denez, aske baitago psikologiatik. Hizkuntza sortzen duen kaxa beltza nolakoa den eta hizkuntzaren jakitea zertan datzan garrantzi gutxiko kontuak dira hizkuntzalariaentzat. Herbarten ideia masen orde, elkarrekin harremanetan dauden eta kontzientziaren atalasea gainditu nahian borrokan ari diren ideia horien orde alegia, Wundtek antolaketa psikikoa jartzen du, baina helburu praktikoetarako ez da ezer aldatu, izena izan ezik. Hizkuntzalariek ez dute zertan kezkatu, nahiz Herbarten psikologia aukeratu (Paulek egin zuen bezala), nahiz Wundtena. Delbrücken hitzak hizkuntzalaritzaren independentziaren adierazpentzat hartzen ditu Blumenthalek (1987). Antzeko interpretazioa egiten du Kessek (1983) ere; honen arabera, Delbrücken aholkua zen hizkuntzalaritzarena zenari begiratzeko psikologian gertatzen zenari kasurik egin gabe. Arestian adierazi dugun bezala, Delbrücken baieztapenak eragin handia izan zuen. Huttonen (1995b), adibidez, xx. mendeko hizkuntzalaritzak hartutako norabidean zerikusi handia izan zuela dio. Blumenthalek (1987), berriz, Delbrücken adierazpenaren arrakastaz hitz egiten du, hizkuntzariengan eragin askatzailea izan zuenez. Adibide gisa, Leonard Bloomfield amerikar hizkuntzariaren kasua aipatzen du; Bloomfield, izan ere, Wundten jarraitzaile sutsu izatetik hizkuntzalaritzaren autonomiaren aldeko izatera pasatu baitzen. Bloomfieldek (1933; aipatua in Kess 1983: xxii),²⁵ segur aski Delbrück zeukan gogoan honako hau idatzi zuenean: “orduz gerotik [1914an *An introduction to the study of language* liburua idatzi zuenetik, alegia] nahasmendu ugari izan da psikologian; guk, dena dela, gure maisuetako batek orain dela hogeita hamar urte susmatu zuena ikasi dugu,

²⁵ “Klasikoak” bilduman 1994an Bloomfielden *Language* euskaraturik agertu zen, baina eskal itzulpenean ez zuten sartu jatorrizko bertsioren hitzaurrea; horregatik, testuan aipatzen duan pasarte, itzuli gabe zegoenez, neronek itzuli behar izan dut.

hots, hizkuntza aztertzen jardun dezakegula inolako doktrina psikologikorik aipatu gabe...". Egia esan, badirudi Delbrückek ez zuela horrelakorik esan, baizik beste honako hau, Bloomfieldek berak liburu bereko beste leku batean ongi jasotzen duenez: "Wundtek, bere aldetik, bere sistemaren arabera adierazpen psikologikoari ematen dio garrantzia, Delbrückek, hizkuntzalari batek aukeratzeko duen psikologia-ereduak garrantzirik ez duela ihardesten diolarik" (1994: 42).²⁶

Wundten erantzuna ere liburu labur batean etorri zen: *Sprachgeschichte und Sprachpsychologie; mit rücksicht auf B. Delbrück's Grundfragen (Hizkuntzaren historia eta hizkuntzaren psikologia; B. Delbrücken oinarrizko galderen inguruan)*. Wundtentzat hizkuntza prozesu psikologikoen ondorio da eta, horregatik, hizkuntzalaritzaren azterketak eta psikologiarik ez zuten egon beharko lukete. Eta bere *Völkerpsychologie* obra osatzen duten liburukiek argi uzten dute berarentzat giza antolaketa arloko fenomeno guztiak azken batean psikologikoak direla. Delbrückek bere liburuan ateratzen zuen ondorioa, berdin zitzaiola Herbarten psikologia edo Wundtena, honentzat psikologia arbuizatzea zen; ez psikologia hau edo hura, baizik psikologia erabat harturik. Wundtek, izan ere, ez zuen dudatan jartzen bere sistemaren nagusitasuna. Horrela, Delbrücki emandako erantzunean berak irmoki sinesten zuen zenbait adierazpen berretsi zituen, hala nola hauek:

- Hizkuntzalari batek hizkuntza gogo-prozesutzat badauka eta hizkuntzan gertatzen diren aldaketak esplikatzen diren performantzia oinarritzen bada, orduan hizkuntzalari hori psikologo bihurtzen da.
- Perpausak judizio psikologikoak hartzen duen kanpoko itxuratzat dauzkaten hizkuntzalariak ere psikologia beren lanaren oinarri onartzen ari dira.
- Haurra hizkuntzaz nola jabetzen den ere axolazkoa izan daiteke hizkuntzaren teoriarentzat, baina horrek axola gutxi du hizkuntzalarientzat.

Bigarren adierazpen horren arabera, adibidez, dagoeneko askotan aipatua dugun *Prinzipien* liburua, Paulena, Wundtek hizkuntzaren psikologiaren saillean sailkatzen zuten. Bestalde, Delbrückek iradokitzen zuen Wundten pentsamenduaren interpretazioa okertzen jotzen zuten honek. Bere lehen interesa hizkuntzaren eremuko gertakariak estudiantuz ezaguera psikologikoak lortzea zela zioen Wundtek, eta ez hizkuntzalaritza psikologiara mailegu eske etortzen ikustea. Eta eransten zuen bere sistema psikologikoa berak hizkuntzaren arloan egindako lanaren ume zela. Dena dela, hizkuntzalari gehienek, batzuek berehala eta beste batzuek geroago, alde bat utzi zituzten Wundten eta Paulen arteko eztabaidak eta Delbrückek esandakoa egin zuten.

²⁶ Pasarte hau "Klasikoak" bildumako liburuaren itzulpenetik jasoa da; beraz, itzulpena liburuaren itzulpen Itziar Lakarena da.

Laudorioak eta eskerrak gorabehera, salaketarik ere egin zioten elkarri Delbrückek eta Wundtek. Delbrückena zen Wundten *Völkerpsychologie*, *Volkseele* edo “herriaren arima” kontzeptua erabiltzen zuenez, Humboldt-en kolektibismoaren azken arnasa zela. Goraxeago ikusi dugu zer esan nahi zuen Wundtek herriaren arimaz edo *Volkseele* delakoaz hitz egiten zuenean. Wundtek, bere aldetik, kritika hau egiten zien Delbrücki eta hizkuntzalariei oro har: oraindik ez zutela lortu gramatikaren kategoria arauemaile eta logikoetatik askatzea.

v. Kritikak

Puntu honetan batez ere Nerlich eta Clarkeren (1998; ikus baita Nerlich eta Clarke 1996 ere) lanean oinarrituko gara. Hogeigarren mendearen hasieran, hizkuntzalari askok ez zuten begi onez ikusten Wundtek beren arloan eskua sartzea. Hala iruditzen baitzitzaie, Wundt bidegabeki eskua sartzen ari zela beren diziplinako auzietan; mutur-sartze eta intrusismotzat zeukaten haren jokabidea, baita mehatxutzat ere. Hemeretzigarren mendearen erdialdean hasita, hizkuntzalaritza psikologizatuz joan zen. Steinthal izan zen horren eragilea hasieran; Steinhalek hizkuntzalaritza eta psikologia estuago lotuak nahi zituen eta helburu horri eskaini zizkion zenbait liburu, baita Lazarusekin batera abiatu zuen aldizkaria ere. Steinhalek ahaleginak, ordea, ez zituen hizkuntzalariak kezkatzen; Wundten asmoek, edo asmo ustekoek, aldiz, bai. Steinhalek asmo bakarra zen Humboldt-en eta Herbarten ideiak konbinatuz berak moldatutako *Völkerpsychologieren* bertsoia hizkuntzaren estudioari aplikatzea. Wundten kasuan gauzak oso bestela ziren, edo ikusten ziren. Blumenthalek (1970: 39) aditzera ematen duenez, hizkuntzalarien irudipena zen “psikologiako apaiz nagusia hizkuntzalaritza bere diziplinaren partetzat ari zela erreklamatzeko”. Huttonen (1995b: xvi) arabera, Wundtek, 1904ko saiakera batean, “Olinpiar ikuspuntua” hartzen zuen, bera hizkuntzalaritzako azken mugimenduak ebaluatu eta iruzkintzeko goi maila batean balego bezala. Wundt Steinthal saiatu ez zen zerbait egiten saiatu zela diote Nerlich eta Clarke (1998); izan ere, hizkuntzalaritza historikoari zegozkion arazoetan parte hartu zuen eta uste zuen, hizkuntzalari historikoen beren aldean, psikologiak nagusitasuna izan zezakeela arazo horiei aurre egiteko zereginen. Egia esan, hizkuntzalariek ere jo zuten psikologiarantz zenbait intuizio eta ideia mailegatzeko, analogiarena adibidez. Izan ere, garai hartan normala zen psikologian laguntza bilatzea hizkuntzalaritzako problemei irtenbidea aurkitzeko (ikus, e.g., Koerner 1983). Baina, hala ere, garbi zegoen psikologia eta hizkuntzalaritza bi zirela. Wundtek, ordea, bi diziplinen arteko bakezko bizikidetzara hori nahasi egin zuen, hizkuntzalari askoren ustez. Hauetako batzuek, Paul eta Martyk adibidez, ezin txarragozat jo zuten Wundten eragina hizkuntzalaritzan. Dena dela, on izango da hemen gogoratzea Baker eta Mosek (1979; aipatua in Kess 1983: xxiii) diotena: Wundten eta Delbrück hizkuntzalariaren arteko hitz-trukatzeen analisiak agerian jartzen du Wundtek

ederki ezagutzen zuela literatura linguistikoa eta, ezagutzeaz gainera, errespetua ere baziola.

“Intrusismoa” izan zen hizkuntzalariak Wundt gaitzesteko arrazoi bat. Beste bat, hizkuntzalariak ez ezik hizkuntzaren psikologoak eta hizkuntzaren soziologoak ere haren kontra jarri zituen, haren hizkuntzaren psikologiaren beraren hutsuneak izan ziren. Hutsune nagusia Wundtek hizkuntzaz zuen ikuskera zen, haren aurkariek hertsiegia aurkitzen zutena eta horregatik gaitzetsi zutena. Hizkuntza pentsamenduaren adierazpen hutsa bezala ikustea egozten zioten, hizkuntzak bestelako funtziorik izango ez balu bezala. Hizkuntzalariak 1902an dagoeneko hasiak ziren Wundt arbuiatzen. Urte horretan, Philipp Wegener hizkuntzalariak Wundten eta Delbrücken arteko eztabaidari buruzko iruzkin bat idatzi zuen eta hor Wundten hizkuntzaren teoria kritikatzeko zuen. “Monologikoa” izatea zen teoria horri aurkitzen zion akatsa, norabide bakarrekoa izatea alegia, hiztunarengandik entzulearenganako bidea besterik egiten ez zuena eta alderantzizko bidea, entzulearengandik hiztunarenganako, aintzat hartzen ez zuena. Beraz, teoria horretan ez zegoen egiazko dialogorik. F. N. Hales filosofoak, berriz, 1903an *Mind* aldizkarirako idatzi zuen Wundten *Völkerpsychologieren* kritikan salaketa hau egiten zuen liburu horren kontra: hor esaten zena psikologia sozialekoa baino gehiago psikologia orokorrekoa zela. Zergatik zioen hori erraz ulertuko da kontuan hartzen bada *Die Sprachek* eman ziola hasiera Wundten *Völkerpsychologie* obrari eta honek psikologia sozial moduko bat edo izan nahi zuela. Wundtek hizkuntzari buruzko bere liburu idatzi zuenerako Wegener hasia zen hizkuntzaren alderdi sozial eta dialogikoa lantzen, baina egiteko hori bere gain hartu zutenak, urte batzuk geroago, Karl Bühler (1879-1963) eta George H. Mead (1863-1931) izan ziren. Hauetako “Wundten ondarearen defendatzaile kritikoak” deitzen diete Nerlich eta Clarke (1998). Hizkuntzaren psikologian Bühlerrek errespetatu eta aldi berean ahuldu egin zuen Wundten ospea. Gauza bera egin zuen Meadek hizkuntzaren soziologian.

Bühlerrek eta Wundtek izan zuten eztabaida bat elkarrekin, baina ez hizkuntzari buruz. Bühlerrek bere *Habilitationsschrift* edo habilitazio-tesiaren lehen parte argitaratu zuen 1907an. Gaia pentsatze prozesuen psikologia zen eta berak Würzburgen bertako psikologia-eskolaren barnean egindako esperimendu batzuen berri ematen zuen hor. Würzburgeko Eskola zeritzana Wundten ikasle eta laguntzaile izana zen Oswald Külpek sortua zen. Wundtek ez bezala, eskola horretako psikologoek uste zuten pentsamendua baze-goela esperimenterik aztertzerik. Bühlerren esperimenduen aztergaia ere pentsamenduak ziren. Lanaren bigarren parte agertu baino lehenago Wundtek Bühlerren esperimenduen kritika idatzi zuen urte berean. Ondorio honetara iristen zen Wundt: Bühlerren esperimenduak itxuraz bakarrik zirela esperimenduak, metodologia zientifikoaren zentzuan ezin zirela esperimendutzat hartu. Bühlerrek 1907an 28 urte zituen; Wundtek, aldiz, 75, zuen izenaz eta prestigioaz gainera. Hala ere, Bühler ausartu egin zen Wundti erantzutera.

Eta Bühlerri psikologian ezaguna izatea ekarri zion eztabaidan parte hartzeak.²⁷ Dena dela, Wundten kritika merezi izan zuten esperimendu haiek Bühlerren aurreneko eta azkeneko esperimenduak izan ziren. Hizkuntzari dagokionez, Wundten teoria, esan dezagun berriz, adierazpenaren teoria zen, hau da, hizkuntzari funtzio bakarra aitortzen zion, pentsamenduak adieraztearena. Wundten teoriak, honela zioen Bühlerrek (1926, aipatua *in* Blumenthal 1970: 54): "... iritsi naizen ondorioa da semantika-tresnen garatze eta desberdintzea askoz paraleloago doala gizarte bizitzaren antolaketa mailari gizabanakoaren gogo-garapenaren mailari baino. Puntu garrantzizko honetan gainditu dugu gaur egun Wundt". "Gaur egun" esatean, badirudi Bühlerrek zera adierazi nahi zuela: orain guk egiterik izan duguna Wundtentzat ezinezkoa zen, haren prestakuntza eta haren garaiko giro intelektuala kon-tuan hartzen badira. Izan ere, ez da ahaztu behar Wundt hemeretzigarren mendeko psikologoa zela; Bühler, aldiz, hogeigarrenekoa. Hogeigarren mendeko lehen hogeit urteak, bere bizitzako azken hogeiak, Wundt bere hamar liburukiko *Völkerpsychologie* argitaratzeari emana egon zen. Bien bitartean, Bühler bere psikologia lantzen eta eraikitzen ari zen, hizkuntzaren psikologia barne. Wuntez gainera, beste autore asko irakurri zituen, antzinakoak eta garaikideak, hauen artean Wundten kritikoak, Wegener eta Marty esaterako. Horrela, Wundtek ez bezalako aukera izan zuen beste ikuspegi batzuk ere sartzeko bere hizkuntzaren teorian.

Eta zergatik ez zen Wundt gauza izan adierazpenaren teoriak harago joateko? Hara nola azaltzen duten hori Nerlich eta Clarkek (1998). Wundtek Leibnizen paralelismo psikofisikoaren printzipioan sinesten zuen. Printzipio horrek honela dio: "Aldez aurretik ezarritako harmoniaren indarrez, gertakari psikikoak eta fisikoak serie independenteak baina, aldi berean, paraleloak" dira (UZEI 1987, "paralelismoa" sarrera). Printzipio horren arabera, "prozesu fisiologiko bakoitza prozesu psikologiko bati dagokio" (Wundt 1922 [1896], aipatua *in* Nerlich eta Clarke 1998: 189). Printzipio hori hizkuntzari aplikatuz, adierazpen-mugimenduak, nahiz keinuzkoak nahiz hizkuntzazkoak, gogamen egoeren sintomatizat hartzen dira. Gauzak horrela ikusita, ezin pasatu adierazpenaren teoriatik komunikazioaren mailara. Paralelismo psikofisikoaren definizioan "aldez aurretik ezarritako harmoniaz" hitz egiten da. Bada, *Volkseele* edo herriaren arimaz zuen ideiak (ikus gorago) Wundt eraman zuen uste izatera keinuen —ahots-keinuen— eta esanahien artean aldez aurretik ezarritako harmonia moduko bat zegoela. Bühlerrentzat, aldiz, baita Meadentzat ere, esanahia gizarte-elkarrekintzaren fruitu da. Wundtentzat esanahia komunikazioa hasi aurretik ezarrita dago. Orduan, esanahia finkatuta badago, ez dago inolako arazorik gogo-irudikapenak hitzen bidez adierazteko, ezta hitz horiek entzutean gogo-irudikapen bat sortzeko ere. Hiztun ba-

²⁷ Eztabaida honetaz xehetasun gehiago nahi izanez gero, Hoffmann eta Stocken (2004) lanera jo dezake irakurleak.

tetik bestera, edo, berdin, entzule batetik bestera, ez dago alderik. Beraz, ez dago zertan aintzat hartu hiztunak eta entzuleak esanahia eraikitzeko egiten duten elkarlana.

Bühlerrek eta Meadek garbi zeukaten esanahia gizarte bizitzan eraikitzen dela; izan ere, gizarte bizitza bera ez al da elkarri argibideak ematea eta elkar gidatzea? Esanahia, Bühlerrentzat, hizkuntzaren funtzio sozial horretan zegoen oinarritua, hizkuntzak duen elkar gidatzeko funtzio horretan. Mintzaztaileak moldatzen dituen perpausak entzuleari ematen dizkion argibideak dira, honek haien esanahia berreraiki dezan. Hizkuntzak, hortaz, badu dei-egite funtzio bat ere: hiztunak, kontuan dituelarik testuingurua eta entzuleak alde aurretik dituen pentsatzeko tresnak edo gogo-eskemak, dei egiten dio honi, gonbidatu egiten du, berak dioenaren esanahia berreraikitzen. “Psikologiaren krisia” izenburuarekin 1927an idatzi zuen artikulu aipatuan, hizkuntzaren teoria berri baten giltzarri egiten zuen “dei-egite” edo eragite funtzio hori (ikus Nerlich eta Clarke 1996). Lan horretan bertan garbi utzi zuen Wundt oker zegoela pentsatzean gogameneko mugimendu orok behala bere ordaina duela keinu mailan. Barneko mugimendua kanpoko mugimendu bihurtzea beharrezko da “komunitateko beste kide batzuen jokabidea moduren batean gidatu beharrean aurkitzen direnentzat” (Bühler 1927, aipatua in Nerlich eta Clarke 1998: 192). Era horretan, Wundten paralelismo psikofisikoaren printzipioa baztertzen zuen Bühlerrek: “Wundten paralelismo psikofisikoaren axioma zuzena balitz, ez luke mereziko semantikaren jatorriaz galdetzea” (*idem*). Baina ikuspegi berriak badauka galdera hori egite-rik eta erantzuna, Bühlerren ustez, honako hau da: “... semantikaren jatorria ez gizabanakoan, baizik komunitatean bilatu behar dugu. (...) Semantika ez da animalia nahiz gizakien gizarte bizitzaren azpiproduktu bat, baizik horren *osagaietako* bat” (*idem*). Urte gutxi batzuk geroago, 1933an, berriz heltzen dio Bühlerrek Wundten adierazpenaren teoriari. Wundtek keinuen eta ahots-keinuen artean ez zuen mailazko diferentzia baizik ikusten, denak sartzen baitziren imitazio-keinuen kategorian. Bühlerrek, aldiz, diferentzia kategoriazkoa zela zioen, ahots-keinua mimetikoak ez ezik, sinbolikoak ere badirenez. Bühler Wundten hizkuntzaren psikologiaz 1934an aritu zen azkeneko aldiz, hizkuntzaren teoriak argitara eman zuen liburuan. Liburuaren azpitituluan hizkuntzaren irudikatze funtzioa aipatzen zen. 1927an dei-egite edo eragite funtzioaz aritua zen Bühler eta 1933an adierazte funtzioaz. 1934an, hizkuntzaren irudikatze funtzioari heldu zion, hau da, hizkuntzaren funtzio sinbolikoari. Edozein zeinu, Bühlerren arabera, aldi berean hiru gauza hauek da: (1) sintoma edo adierazlea, bidaltzailearen barne-egoera adierazten duenez, (2) seinalea, hartzaileari dei egin eta haren jokabidea kontrolatzen duenez, eta (3) sinboloa, gauzak eta munduko egoerak izendatzen dituenez. Bühlerrek bere teoriaren eta Wundtenaren arteko aldeak azpimarratzen zituen berriz. Wundtek hizkuntza imitazioaren pare zeukan, gainerako keinu eta mugimendu adierazkorren pare. Bada, Bühlerrek hor ikusten zuen Wundten

teoriaren sendotasuna baina baita horren aldebakartasuna ere. Izan ere, hizkuntzak badu beste alderdi bat ezin atera daitekeena mugimendu adierazkorretatik, ezta mintzatzailearen eta entzulearen arteko harremanetik ere; alderdi hori oinarrিতua dago hizkuntzazko sinboloek irudikatzen eta ordezkatzan dituzten gauza eta egoerekin duten loturan. 1929an Bühler irakasle gonbidatu gisa egon zen Chicagoko Unibertsitatean, hain zuzen Mead soziologiako irakasle zen unibertsitatean. Elkar ezagutzeko aukera izan ote zuten? Ezin jakin. Dena dela, elkar ezagutu edo ez, asmo bera zuten biek, hizkuntzaren eta gogamenaren teoria berri bat eraikitzea, eta teoriaren euskarriak ere funtsean berdinak ziren, esanahiaren hiru alderdi hauek: soziala, eragilea eta semiotikoa.

Wundti hizkuntzalari eta psikologoaren erasoak etortzen hasi zitzaizkionean, Meadek haren alde egin zuen, zenbait artikulutan haren psikologia soziala defendatuz. Artikulu horietan aurrenekoa dagoeneko aipatua dugun “The relations of psychology and philology” izan zen, 1904an idatzia. Mead Wundten ikasle izan zen 1888-1889ko negu parteko sei hilekoan (ikus Nerlich eta Clarke 1996). Meadek Wundten ahots-keinuaren ideia bere egin zuen eta ideia hori bere interakzionismo sozialaren giltzarri bihurtu zuen. Meadek hizkuntzaren jatorriari buruzko Wundten azalpena iraultzailatzat jotzen zuen, hizkuntzaren abiapuntuan egintza bat, ahots-keinua, jartzen zenez. Wundten arabera, ahots-keinua emozioaren oharkabeko adierazpena zen hasieran eta geroago heldu zen esanahia hartzera eta sinboliko bihurtzera. Ahots-keinua keinuen elkartrukeari esker bihurtu daiteke zeinu sozial, ideiak edo pentsamenduak adierazteko gai. Zeinuaren sortzean prozesu sozialak duen zeregina Wundtenek ez zuen erdizka baizik adierazi. Meaden gogamenaren eta hizkuntzaren teorian, aldiz, leku nagusia hartu zuen prozesu horrek. Komunikazio prozesuan Meadek (1982 [1934]) bereizi zituen bi aldi edo faseak, adibidez —oraintxe bertan aurkeztuko ditugu—, testuinguru sozial bat eskatzen dute, bi banako edo gehiago elkarri eragiten ari diren testuingurua. Komunikazio prozesuaren bi faseak honako hauek dira: (1) “keinu bidezko solasa”²⁸ eta (2) hizkuntza, edo “keinu adierazle bidezko solasa”. Bi “solasa” mota hauek oso ezberdinak ziren Meadentzat, berehala ikusterik izango dugunez. Izan ere, Meadek, Bühlerrek bezala, kritikatu egin zuen ahots-keinua eta gorputz-keinua mailaz edo graduz bakarrik desberdintzen zirelako Wundten ideia. Keinu bidezko komunikazioan, komunikatzailea ez da ohar-tzen bere keinuak bestearengan eragiten duen erantzunaz; eta ohar-tzen ez denez bestea bere keinuari erantzuten ari dela, ez da gauza bere keinuari bestearen ikuspegitik erantzuteko. Keinu bidezko komunikazioan parte hartzen ari dena komunikatzen ari da, baina ez da horretaz *jabetzen*. Beraz, keinu bi-

²⁸ Meadek erabiltzen duen hitza *conversation* da eta hemen “solasa” jarri dugu horren ordain. Gero, ordea, egokiago iruditzen zaigu keinu bidezko komunikazioaz eta ahots-keinuen bidezko komunikazioaz hitz egitea.

dezko komunikazioa oharkabeko komunikazioa da, komunikazio *ez-kontzientea*. Hala ere, hizkuntza, hau da, berariazko komunikazioa edo komunikazio kontzientea, keinu bidezko komunikaziotik sortzen da. Meadek, esan bezala, bere egiten du hemen Wundten ideia, hizkuntza keinuaren ondorio dela alegia (ikus Nerlich eta Clarke 1996). Hizkuntzak ordezkatu egiten du keinu bidezko komunikazioa, baina ez du ezeztatzen. Hizkuntza, Meaden ikuspegian, sinbolo adierazleak —*significant symbols* esaten du berak— erabiltzen dituen komunikazioa da. Sinbolo adierazlea keinu bat da, gehienetan ahots-keinua, eta horren bereizgarria da hori egiten duenaren eta hori zuzendua dagoenaren erantzun bera iratzartzen duela. Bestela esanda, hizkuntza erabiltzen duenak badaki zein erantzun eragiten duten normalean bere hitzek. Meadek, bestalde, egintza sozialtzat dauka komunikazio prozesua; izan ere, gutxienez bi (giza)banako eskatzen baititu nahitaez elkarrekin harremanetan. Esanahia hor, egintza sozial horretan, sortzen da. Komunikatzeko egintzak hiru osagai ditu: (1) prozesua abiarazten duen norbaiten keinua; (2) keinu horri beste norbaitek ematen dion erantzuna, eta (3) aurreneko keinuak abiarazi duen egintzaren emaitza. Esanahia komunikazio egintzan erakitzen da, bi gizabanako edo gehiagok elkarri eraginez parte hartzen duten egintza horretan. Beraz, Meaden arabera, esanahia ez zaigu egina ematen, baizik egin egin behar dugu elkarrekin komunikatzen ari garenon artean. Bestela esateko, ez dago, Wundtek nahi zuen bezala, alde aurretik ezarritako harmonia modukorik ahots-keinuen eta esanahien artean.

Bai Bühlerrek eta bai Meadek ere zaharkituztat zeukaten Wundten hizkuntzaren psikologia eta biek, bakoitzak bere aldetik, bide berri bat nahi izan zuten ireki. Batak nahiz besteak bi alderdi zeukaten funtsezkotzat hizkuntzaren erabileran: esanahia eta elkarreagin soziala. Bi alderdi horiek Wundtek ez zituen psikologia benetan sozial baten ikuspegitik aztertu, baizik herrien psikologia historiko baten ikuspegitik. Hala ere, Bühlerrek eta Meadek, biek aitortu zuten Wundt benetan aitzindari izan zela hizkuntzaren psikologian.

Ez dugu puntu hau bukatu nahi Wundten hizkuntzaren psikologia kritikatu zuten beste hizkuntzalari nahiz hizkuntzaren psikologo batzuk aipatu gabe. Eta aurrena, Anton Marty (1847-1914) aipatu behar dugu, Blumenthal (1970) Wundten kritiko garrantzizko bezala aurkezten duena eta Pragako Unibertsitatean irakasten zuena. Bide batez esan dezagun Martyren ikasle izan zela 1926an Pragako Zirkulu Linguistikoa sortu zuen Vilém Mathesius hizkuntzalari. Marty garai hartan hizkuntzaren psikologo (alemanez, *Sprachpsycholog*) titulua ematen zitzaien bakanetakoa izan zen. Marty eza-guna egin zen 1876an hizkuntzaren jatorriaz liburu bat argitaratu zuenean. Hor, antzinatetik hasita, hizkuntzaren jatorriari buruz sortutako teoria guztiak deskribatu zituen, baita horiek bi sailetan sailkatu ere: natibistak eta enpiristak. Wundtek sailkapen horren kritika egin zuen. Handik aurrera idatzi zuen gehiena Wundten edo Steinthalen kontra idatzi zuela dio Blumentha-

lek (1970). Hau ere esaten digu Blumenthalek: Martyk, edo ez zituela ulertzen Wundten psikologiaren oinarriak edo ez zituela horiek benetan hartzen. Marty Wundten kontra agertu zen honek hizkuntzan sortzetiko printzipioak onartzen zituelako eta baita apertzepzioaren azalpenean nahimena sartzen zuelako ere. Wundtek oso gutxitan erantzun zion Martyri. Wundten aldekoen iritziz, Martyren lanek ez omen zuten kritikarik merezi (Blumenthal 1970). Baliteke, hori iradokitzen du Blumenthalek (1970), Bühlerrengan eragina izatea Martyren 1908ko *Untersuchungen (Ikerketak)* liburuak. Liburu horren aipamena izan zen Bühlerrek hizkuntzaren gainean idatzi zuen aurreneko lana.

Wundten beste bi kritikari Albert Séchehaye (1870-1946) eta Karl Vossler (1872-1949) izan ziren. Sécheyaye, Saussureren ikasle izana eta gero, Charles Ballyrekin batera, haren *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa* argitara eman zuena, Wundten kontrako eraso suhar baten egile da: *Programmes et méthodes de la linguistique théorique (Hizkuntzalaritza teorikoaren programak eta metodoak)* (1908). Wundten azalpenak saihestuko zituen eta deskribatzaile hutsa izango zen hizkuntzaren psikologia baten alde agertzen zen hor. Karl Vosslerrek, *Sprache als Schöpfung und Entwicklung (Hizkuntza sortze eta eboluzio gisa)* 1905eko lanean, Wundten psikologizatzea eta *Junggrammatikerren* joera eztabaidatu zituen.

vi. Eragina

Wundti, eta bereziki Wundten hizkuntzaren psikologiari egindako kritikak izan ditugu hizpide aurreko puntuan. Kritika horietako batzuk oso konfuntuan hartzekoak dira, Bühler eta Meadenak adibidez. Hala ere, esan beharra dago Nerlich eta Clarkerekin (1998), kritika negatibo horiek ez digute ahantzarazi behar izugarria izan zela Wundten psikologiaren eragina gizarte-zientzia guztietan. Wundten hizkuntzaren psikologiak, berriz, autore horiek berek gogorarazten digutenez, sekulako interesa eta eztabaida piztu zuen hizkuntza-zientzietan. Hala, eztabaidaren bultzagarri eta akuilagarri gertatu zen hizkuntzaren filosofian, hizkuntzalaritza orokorrean, hizkuntzalaritza historikoan, semantika historikoan, hizkuntzaren psikologian eta soziologian. Hitz gutxitan esateko, Wundten eragina nonahira hedatu zen psikologian eta hizkuntzalaritzan. Lanek aspaldi adierazi zuen, 1945ean zehazkiago, Wundten eragina ahaztu ezinezko indarra zela eta Paulek ere bere *Prinzipien der Sprachgeschichten* laugarren edizioan, 1909koan, eztabaida Wundten sistemaren kontra bideratu zuela; bosgarren edizioan, aldiz, 1920koan, “haren eraso ez inolako ‘sistema’ psikologikoren kontra, baizik Wundten *Völkerpsychologieren* kontra zegoen zuzendua” (Lane 1945, aipatua in Kess 1983: xxiii).

Wundten eragina bete-betean hartu zuten hasiera haietako idazki psikolinguistikoen artean, honako hauek aipatzen ditu Blumenthalek (1974,

1987): Ludwig Sütterlinen *Das Wesen der Sprachlichen Gebilde (Produktu linguistikoaren izaera)* 1902an, Filippo Ravizzaren *Psychologia della lingua (Hizkuntzaren psikologia)* 1905ean, Ottmar Dittrichen *Grundzüge der Sprachpsychologie (Psikologia linguistikoaren oinarriak)* 1903an eta autore horren beraren *Die Probleme der Sprachpsychologie (Hizkuntzaren psikologiaren arazoak)* 1913an, Henri Delacroixen *Le langage et la pensée (Hizkuntza eta pentsamendua)* beranduago, 1924an, eta Jacobus van Ginnekenen *Principes de linguistique psychologique (Hizkuntzalaritza psikologikoaren printzipioak)* 1907an. Hizkuntzaren psikologiaren aldetik Wundtek izan zuen ikasle nagusia Ottmar Dittrich izan zen. Honek “hizkuntzaren psikologiaren taldea” sortu zuen Leipzigen xx. mendearen hasieran eta *Grundzüge der Sprachpsychologie* liburuan Wundten sistemaren ildotik hizkuntzaren oinarri biologikoa ezarri nahi izan zuen. Beste lanean, *Die Probleme der Sprachpsychologie* izenekoan, psikologoaren eta hizkuntzalarien arteko elkarlanaren zailtasunak aztertu zituen. Jacobus van Ginneken holandesa zen eta, haren liburua aurrena nederlandera aztertu bazen ere, normalean 1907ko edizio frantsesa aipatzen da. Hitzaurrean, bere proiektua Wundten proiektutik hurbil dagoela dio, baina batez ere gertakarietan oinarrituko dela. Blumenthalen arabera, ez zen gauza izan Wundten sistema apertzepzionistaren muinaz jabetzeko; asoziazionistegia izaki, nonbait. Aurreko lan horiek guztiak Europan argitaratu ziren, baina Ipar Amerikan behaviorismoak indar hartu aurretik agertu ziren hizkuntzaren gaineko lan batzuetan ere izan zuen eraginik Wundtek. Blumenthalek (1970) honako hauek aipatzen ditu: Hans Oertalen *Lectures on the study of language (Ikasgaiak hizkuntzaren azterketaren gainean)*, 1901eko; E. P. Morrisen *Methods and principles of latin syntax (Latin-sintaxiaren metodo eta printzipioak)*, 1907koa; A. D. Sheffielden *Grammar and thinking (Gramatika eta pentsamendua)* 1912koa, eta Leonard Bloomfielden *An introduction to the study of language (Hizkuntzaren azterketaren sarrera)*, 1914an argitara emana, Saussuraren hil ondoko *Hizkuntza orokorreko ikastaroa* baino bi urte lehenago. Lau autore horietatik ezagunena, ez dago esan beharrik, Leonard Bloomfield da. Izan ere, bera ageri zaigu gailen Ipar Amerikako hizkuntzalaritzan xx. mendearen aurreneko hamarkadetan. Bloomfieldek bi testuliburu idatzi zituen hizkuntzari buruz: lehenbizikoa oraintxe aipatu duguna eta bigarrena *Language* izendatu zuena eta 1933an argitara eman zuena. Bigarren hau ezaguna da eta euskaraz ere irakur daiteke orain “Klasikoak” bilduman; *Hizkuntza* du izena 1994an argitara eman zen euskal itzulpenak. Bloomfielden 1914ko liburua berri, aldiz, askoz gutxiagok dakite, baita hizkuntzalarien artean ere, Kess (1983) hizkuntzalariek aitortzen duenez; baina oraindik gutxiago dira, hizkuntzalari nahiz psikolinguisten artean, Bloomfield hasieran Wundten jarraitzaile izan zela eta haren 1914ko liburua horren adibide dela dakitenak (Blumenthal 1970, Kess 1983). Esate baterako, erabat onartzen du hor hizkuntza zer den argitu nahi bada gogameneko egoerak eta prozesuak kontuan hartu beharrek direla. Bloomfield irakasle agregatu izendatu zuten Illinoisko Unibertsitatean 1913an filologia konparatzaileko eta alemaneko eskolak emateko.

Urte horretan bertan Alemaniara etorri eta hurrengo urtera arte Gottingen eta Leipzigeke unibertsitateetan ikasi zuen. Gauza segurua da August Leskien *Junggrammatikerraren* ikasle izan zela Leipzigen eta gauza ia segurua Wundtekin ematen zituen eskoletara ere joan zela. Dena dela, Alemaniara etorri bazen, ez zen izan Wundten hizkuntzaren psikologian sakontzeko; izan ere, 1900eko hamarkadan ingelesera itzulita zeuden Wundten lan asko eta Leipzigen Wundtekin trebatu ondoren itzultitako jende ezagunik ere bazen Ipar Amerikako unibertsitateetan. Bloomfieldek berak bere ikasle bati aitortu zionez, Europara etortzeko arrazoi nagusia honako hau izan zen: Ipar Amerikako aleman fakultate batean mailaz igo nahi zuenarentzat ia nahitaezkoa zela Alemanian ikasten egonaldi bat egina izatea. Bloomfieldek Europara etorri aurretik bazekien ongi Wundten berri; hori frogatzen duen datu bat 1913an *American Journal of Psychology* aldizkarian idatzi zuen Wundten 1912ko *Elemente der Völkerpsychologie (Psikologia kulturalaren hastapenak)* liburuaren aipamena da. Aipamen horrek agerian uzten duela dio Koernerrek (1983) zenbateraino zegoen Bloomfield interesatua Wundtekin hizkuntzaz esaten zituen gauzetan. Bestalde, *An introduction to the study of language* bera ere, 1914an agertu zen arren, Europara abiatu zenerako bukatua omen zuen, Hockettekin (1970; aipatua in Koerner 1983) baieztatzen duenez.

Bloomfieldeen bi testuliburuaren artean alde nabarmenak daude; hain dira nabarmenak, biek autore bera dutela sinesteak ere lanak dauzka jakinaren gainean ez dagoenarentzat. Hizkuntzalari eta psikolinguistentzat, 1933koa ezagunagoa eta interesgarriagoa bada ere, 1914koak interes ukazina du. Izan ere, liburu horretatik hainbat gauza ikas ditzakegu, hala nola garai hartan nola pentsatzen zen hizkuntza kontuetan, nolako aldaketa gertatu zen berebiziko eragina izan zuen hizkuntzalari baten ibilbide teorikoan, nolako aldaketak izan diren hizkuntzalaritzaren beraren historian eta nolako giroa bizi zen orduko hizkuntzalaritzan. Eta giro hori moldatu zuten faktoreetako bat da hemen kontua, Wundten psikologia alegia. Horregatik, Wundten garaia dugunez hizpide lan honetan, Bloomfieldeen 1914ko liburuaz ariko gara hemen. Wundten psikologiaren eragina Bloomfieldek berak aitortzen du liburuaren hitzaurrean:

Begien bistako gauza izango da, batez ere, nire psikologian, orokorrean zein linguistikoan, Wundten mende nagoela erabat; espero dut ez dudala gaizki interpretatu izango haren doktrina. Joanak dira ja gogozientzien ikertzaileak, buruan gertatzen denari buruzko beren iritzietarako, beren irudimenera edo "herri psikologiara" jo zezaketen garaiak. (1914, aipatua in Kess 1983: xxii)

Liburuaren aurreneko kapituluetakoa batzuetan ere argi ageri da Wundten eragina, lehenbizikoan eta hirugarrenean esaterako. Lehenbizikoak "Hizkuntzaren izaera eta jatorria" du gaia eta hirugarrenak "Hizkuntzaren gogamenoinarria". Kontuan hartzen bada bigarren kapituluaren gaia "Hizkuntzaren oi-

narri fisikoa” dela, hizkuntzaren oinarri fisikoa eta psikikoa hain garbi bereizteak agerian uzten du garai hartako Bloomfielden ikuspegi mentalista. Keinu-hizkuntzaz eta hizkuntzaren jatorriaz ari denean, Bloomfieldek gertutik jarraitzen dio Wundten pentsaerari. Bestalde, badirudi erabat onartzen duela psikologia hizkuntzalaritzarentzat zientzia propedeutikoa delako Wundten ideia. Honela dio berak 1914ko liburuan (aipatua *in* Kess 1983: xxiii):

hizkuntzalaritza psikologiari lotua egotea, alde batetik, bigarrenak gogame- zientzien artean duen funtsezko lekuan inplizituki adierazita dago. Zientzia horiek, gizakiaren askotariko jarduerak aztertzen dituztenez, neurri desberdinetan baina, hala ere, denek etengabe eskatzen dute interpretazio psikologikoren bat (...) Hizkuntza denez bere formetan gogoeta gutxien eskatzen duen giza jarduera, azalpen arrazionalizatzaileak inon baino lekuz kanpoago daudena, gogamen-zientzia guztietatik hizkuntzalaritza da dagoen *insight* psikologikorik onenaren gidaritzaren premiarik handiena duena urrats guztietan.

Garbi dago, beraz, hasierako Bloomfieldentzat hizkuntzalaritzak beharrezkoa zuela psikologia eta ez edozein psikologia, gainera, baizik Wundtena. Bere garaiko ume ageri zaigu Bloomfield bere lehen liburua idazterakoan. Izan ere, xx. mendearen hasiera haietan, Wundtekin bat etorri edo ez, haren hizkuntzaren psikologiari buruzko ideiak nahitaez aintzat hartu beharra zeukan hizkuntzaren arloa landu nahi zuenak. Bloomfieldek, hasieran, Wundten aldeko apustua egin zuen, gorago aipatu ditugun beste batzuek egin zuten bezala. Beste asko haren kontra atera ziren. Dena dela, Kessen (1983) arabera, orduan ez zegoen beste aukerarik: edo Wundten alde egon, edo Wundten kontra.

vii. *Bukatzeko*

Hemen amaitzen da Wundten garaia deitu dugunari eskaini diogun atala. Argi geratuko ahal zen inoren izena ematekotan Wundtena zela egokien zetorkiona garai horri. xix. mendearen bukaeran eta xx.aren hasieran, Wundten itzala alde guztietara iritsi zen nahiz psikologian nahiz hizkuntzalaritzan. Bere hutsune eta guzti, edo beharbada bere hutsuneengatik, eztabaida, harremanak, ikerketak eta idazlanak eragin zituen. Jacob biologoaren hitzez baliatuz (ikus gorago) esan dezakegu Wundtek honako hau guztia eragin zuela psikologoaren eta hizkuntzalarien artean: lankidetzeta, eztabaida, elkarren kritika, elkarrizketa eta ikuspegi desberdinak aurrez aurre jartzea.

Erreferentziak

- ADAMS, J. 1910. *The Herbartian psychology applied to education*. Boston: Heath.
ALONSO, A. 1984. “Hitzaurrea”, F. de Saussureren *Curso de Lingüística Generalen* espainierazko edizioari. Buenos Aires: Losada.

- ALTMANN, G. T. M. 2001. "The language machine: Psycholinguistics in review". *British Journal of Psychology* 92: 129-70.
- ANDERSON, S. R. eta D. W. LIGHTFOOT. 2002. *The language organ: Linguistics as cognitive physiology*. Cambridge: Cambridge University Press.
- AUER, P. 2004. *Phonological change*. <http://fips.igl.uni-freiburg.de/auer/Hdk+Sozio.pdf> [2004ko martxoaren 4an atzitu]
- BAKER, W. J. eta L. P. MOS. 1979. "Mentalism and language in (and out of) psychology". *American Psychological Association Convention* delakoan aurkeztutako lana, New Yorken, N. Y., irailean.
- BALDWIN, B. T. 1913. *History of psychology: A sketch and an interpretation (Vol. II: Chapter IV)*. <http://psychclassics.yorku.ca/Baldwin/History/chap2-4.htm> [2004ko urtarrilaren 29an atzitu].
- BALDWIN, B. T. 1980 [1921]. "In memory of Wilhelm Wundt". In W. G. BRINGMANN eta R. D. TWENEY (arg.), *Wundt studies: A centennial collection*. Toronto: C. J. Hogrefe, 280-308.
- BEAUGRANDE, R. 1996. "Psycholinguistics and sociolinguistics: Looking back and ahead". In V. PATRAS (arg.), *Socio-lingvisticke a psycholingvisticke aspekty jazykovej komunikacie*. Banská Bystrýca: Univerzita Mateja Bela Fakulta Humanitných Vied, vol. 1, 15-26. <http://beaugrande.bizland.com/Psychosociolinguistics.htm> [2004ko martxoaren 15ean atzitu]
- BECHTEL, W. 1987. "Psycholinguistics as a case of cross-disciplinary research: Symposium introduction". *Synthese* 72: 293-311.
- BELINCHÓN, M., A. RIVIÈRE eta J. M. IGOA. 1992. *Psicología del lenguaje. Investigación y teoría*. Madril: Trotta.
- BERRÉBY, D. 1994. "Figures of speech". *The Sciences* 34 (1): 44-49.
- BLOOMFIELD, L. 1913. "Review of Wilhelm Wundt's *Elemente der Völkerpsychologie*". *American Journal of Psychology* 24: 449-53.
- BLOOMFIELD, L. 1914. *An introduction to the study of language*. New York: Henry Holt. (1983an berrinprimatua Joseph F. KESSEN sarrerarekin, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.)
- BLOOMFIELD, L. 1933. *Language*. New York: Henry Holt. [Euskarazko itzulpena: 1994. *Hizkuntza*. Bilbo: Klasikoak. Itzultzailea: Itziar Laka].
- BLUMENTHAL, A. L. 1970. *Language and psychology: Historical aspects of psycholinguistics*. New York: John Wiley and Sons.
- BLUMENTHAL, A.L. 1974. "An historical view of psycholinguistics". In T. A. SEBEEK, *Current trends in linguistics* (12/2 liburukia). The Hague: Mouton, 1105-35.
- BLUMENTHAL, A.L. 1983. "Psychology and Linguistics: The first half-century". In S. KOCTT eta D. E. LEARY (arg.), *A century of psychology as science*. New York: McGraw Hill, 804-824.
- BLUMENTHAL, A. L. 1987. "The emergence of psycholinguistics". *Synthese* 72: 313-23.
- BOCK, K. 1990. "Psycholinguistics, in time and on hand". *Contemporary Psychology* 35: 479-80.
- BORING, E. G. 1950. *A history of experimental psychology*, 2. edizioa. New York: Appleton Century-Crofts.
- BOUDEWIJNSE, G. J. A., D. J. MURRAY eta C. A. BANDOMIR. 2001. "The fate of Herbart's mathematical psychology". *History of Psychology* 4: 107-32.
- BÜHLER, K. 1907. *Tatsachen und probleme zu einer psychologie der denkvorgänge*. Leipzig: Engelmann.

- BÜHLER, K. 1926. "Les lois générales d'évolution dans le langage de l'enfant". *Journal de Psychology* 25: 597-607.
- BÜHLER, K. 1927. *Die krise der psychologie*. Jena: Fischer.
- BÜHLER, K. 1934. *Sprachtheorie: Die darstellungsfunktion der sprache*. Jena, Alemania: Fischer.
- CAMPBELL, L. 2001. "The history of linguistics". In M. ARONOFF eta J. REES-MILLER (arg.), *The handbook of linguistics*. Oxford: Blackwell, 81-104.
- CARROLL, D. 1999. *Psychology of language*, 3. edizioa. Pacific Grove, CA: Brooks/Cole.
- CATTELL, J. M. 1947 [1885-1886]. "On the time required for recognizing and naming letters and words, pictures and colors". In A. T. POFFENBERGER (arg.), *James McKeen Cattell: Man of science* (1. lib.). Lancaster, PA: Science Press, 13-25.
- CHOMSKY, N. 1964. "Current issues in linguistic theory". In J. A. FODOR eta J. J. KATZ (arg.), *The structure of language: Readings in the philosophy of language*. Englewood Cliffs, N.J.: Prentice-Hall, 50-118.
- COLLINGE, N. E. 1995a. "History of comparative linguistics". In E. F. K. KOERNER eta R. E. ASHER (arg.), *Concise history of the language sciences: from the Sumerians to the cognitivists*. Cambridge, UK: Cambridge University Press, 195-202.
- COLLINGE, N. E. 1995b. "History of historical linguistics". In E. F. K. KOERNER eta R. E. ASHER (arg.), *Concise history of the language sciences: from the Sumerians to the cognitivists*. Cambridge, UK: Cambridge University Press, 203-12.
- DANZIGER, K. 1980. "The history of introspection reconsidered". *Journal of the History of the Behavioral Sciences* 16: 241-62.
- DANZIGER, K. 1990. *Constructing the subject: Historical origins of psychological research*. Cambridge, England: Cambridge University Press.
- DELACROIX, H. 1924. *Le langage et la pensée*. Paris: Libraire Félix Alcan.
- DELBRÜCK, B. 1901. *Grundfragen der Sprachforschung: Mit Rücksicht auf W. Wundts Sprachpsychologie Erörtert*. Strasburgo: K. J. Trübner.
- DIRIWÄCHTER, R. 2004. *Völkerpsychologie: "The synthesis that never was"*. *Culture & Psychology* 10-1: 85-109. Londres: SAGE.
- DITTRICH, O. 1903. *Grundzüge der sprachpsychologie*. Halle: Verlag von Max Niemeyer.
- DITTRICH, O. 1913. *Die probleme der sprachphilosophie*. Leipzig: Quelle & Meyer.
- FITZPATRICK, J. eta L. R. WHEELDON. 2000. "Phonology and phonetics in psycholinguistic models of speech perception". In N. BURTON-ROBERTS, P. CARR eta G. DOCHERTY (arg.), *Phonological knowledge: Conceptual and empirical issues*. Oxford: Oxford University Press, 131-60.
- FRAISSE, P. 1977 [1967]. "La psicolingüística". In J. PIAGET *et al.*, *Introducción a la psicolingüística*. Buenos Aires: Nueva Visión.
- FUCHS, A. eta K. MILAR. 2003. "Psychology as a science". In A. B. WEINER (arg.), *Handbook of psychology*. Hoboken, New Jersey: John Wiley & Sons, 1-31.
- GILES, P. 2004 [1909]. "Evolution and the science of language". In A. C. SEWARD, *Darwin and modern science; essays in commemoration of the centenary of the birth of Charles Darwin and of the fiftieth anniversary of the publication of the Origin of species*. Cambridge: Cambridge University Press. <http://www.fullbooks.com/Darwin-and-Modern-Science/2.html>. [2004ko urtarrilaren 12an atzitu].
- GINNEKEN, J. v. 1907. *Principes de linguistique psychologique*. Paris: M. Rivière.
- GONDRA, J. M. 1991. "José Miguel Barandiaran y Wilhelm Wundt". *Bol. Soc. Esp. Hist. Psicol.* 8: 8-10.
- GONDRA, J. M. 1997. *Historia de la psicología. Vol. I: Nacimiento de la psicología científica*. Madrid: Síntesis.

- GOODWIN, C. J. 2004. *A modern history of psychology*, 2. edizioa. Hoboken, NJ: John Wiley & Sons.
- GRABER, P. L. 2001. *Context in text: "A systemic functional analysis of the Parable of the Sower"*. Doktore-tesia, Emory University.
- HALES, F. N. 1903. *Völkerpsychologie* (W. Wundt) liburuaren kritika. *Mind* 12: 239-45.
- "HERBART, Johann Friedrich". 2003. *Encyclopaedia Britannica*. Deluxe Edition.
- "HERBART, Johann Friedrich". 1995. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia: Klaudio Harluxet Fundazioa.
- HERBART, Johann Friedrich. 1824. *Psychologie als Wissenschaft. Neu gegründet auf Erfahrung, Metaphysik und Mathematik. Erster, synthetischer Teil*. Königsberg: Unzer.
- HERBART, Johann Friedrich. 1850 [1816]. *Lehrbuch zur Psychologie*, 3. edizioa. Leipzig eta Hamburg: G. Hartenstein.
- HOCKETT, C. F. (arg.). 1970. *A Leonard Bloomfield anthology*. Bloomington: Indiana University Press.
- HOFFMANN, J. eta A. STOCK. 2004. *The Würzburg School*. http://www.psychologie.uni-wuerzburg.de/w_schule/WSCHOOL2a.pdf [2004ko apirilaren 17an atzitu]
- "HUMBOLDT, Wilhelm von". 1982. UZEI. *Hizkuntzalaritza. Hiztegia*. Donostia: Elkar-UZEI.
- HUTTON, C. 1995a. "Introduction (Sarrera)", W. Von Humboldten *Über die Verschiedenheit des Menschlichen Sprachbaues*, 1836, eta H. Steinthalen *Die Entwicklung der Schrift*, 1852. Londres: Routledge/Thoemmes Press.
- HUTTON, C. 1995b. "Introduction (Sarrera)", H. Paulen *Prinzipien der Sprachgeschichte*, 1886, 2. edizioa, eta W. Wundt *Die Sprachgeschichte und die Psychologie*, 1901. Londres: Routledge/Thoemmes Press.
- JACOB, F. 2004 [1997]. *Sagua, eulia eta gizakia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea [itzultzailea: Juan Garzia].
- JAMES, W. 1890. *Principles of psychology*. New York: Henry Holt and Company.
- JASTROW, J. 1886. "Experimental psychology in Leipzig". *Science* 8: 459-62.
- JOSEPH, J. E. 1995. "Trends in twentieth-century linguistics: An overview". In E. F. K. KOERNER eta R. E. ASHER (arg.), *Concise history of the language sciences: from the Sumerians to the cognitivists*. Cambridge, UK: Cambridge University Press, 221-33.
- KESS, J. F. 1983. "Introduction (Sarrera)", L. Bloomfielden *An introduction to the study of language*, 1914. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- KESS, J. F. 1991. "On the developing history of psycholinguistics". *Language Sciences* 13: 1-20.
- KOERNER, K. 1983. "Foreword (Hitzaurrea)", L. Bloomfielden *An introduction to the study of language*, 1914. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- LANE, G. S. 1945. "Changes of emphasis in linguistics with particular reference to Paul and Bloomfield". *Studies in Philology* 42: 465-83.
- LAZARUS, M. eta H. STEINTHAL (arg.). 1860. *Zeitschrift für Völkerpsychologie und Sprachwissenschaft (Herrien Psikologiaren eta Hizkuntzalaritzaren Aldizkaria)*, 1. lib. Berlin: Ferdinand Dümmlers Verlagsbuchhandlung.
- "Linguistics" *Encyclopaedia Britannica* from Encyclopaedia Britannica Premium Service. <http://www.britannica.com/eb/article?tocId=35076> [2004ko urtarrilaren 3an atzitu].
- MARINA, J. A. 2004a. *Aprender a vivir*. Bartzelona: Ariel.
- MARINA, J. A. 2004b. *La inteligencia fracasada: Teoría y práctica de la estupidez*. Bartzelona: Anagrama.
- MARTY, A. 1908. *Untersuchungen zur Grundlegung der allgemeinen Grammatik und Sprachphilosophie*. Halle: Verlag von Max Niemeyer.

- MASON, C. 2004 [1954]. *A philosophy of education*. Londres: Tyndale House Pub. <http://www.amblesideonline.org/CM/toc.html#6> [2004ko otsailaren 22an atzitu].
- MATAS, E. 2003. "Historical origins of statistics applied to pedagogy". *Revista Electrónica de Metodología Aplicada* 8 (1): 1-23.
- MCCAULEY, R. N. 1987. "The not so happy story of the marriage of linguistics and psychology or why linguistics has discouraged psychology's recent advances". *Synthese* 72: 341-53.
- MEAD, G. H. 1904. "The relations of psychology and philology". *Psychological Bulletin* 1: 375-91.
- MEAD, G. H. 1982 [1934]. *Espíritu, persona y sociedad: desde el punta de vista del conductismo social*. Bartzelona: Paidós.
- MENZE, Clemens 2001. "Hitzaurrea: Wilhelm von Humboldt, bizitza, obra, eragina". In W. VON HUMBOLDT, *Idazki hautatuak*. Bilbo: Klasikoak, 7-31. [Itzultzailea: Pello Zabaleta.]
- MILLER, G. A. 1962. "Some psychological studies of grammar". *American Psychologist* 17: 748-62.
- MILLER, G. A. 1994. "The place of language in a scientific psychology". In R. P. HONECK (arg.), *Introductory readings for cognitive psychology* (2. ed.). Guilford, CT: Dushkin Publishing Group.
- MITXELENA, K. 1990. *Zenbait hitzaldi*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- MORRIS, E. P. 1907. *Methods and principles of latin syntax*. New York: C. Scribner's sons.
- MUCCIARELLI, G. 1985. *Wundt: Antologia di scritti*. Bologna: Il Mulino.
- MURRAY, D. J. eta C. A. BANDOMIR. 2002. "The predictive validity of Herbart's mathematical psychology". *Psychologie et histoire* 3: 1-27.
- NERLICH, B. eta D. D. CLARKE. 1996. *Language, action, and context*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- NERLICH, B. eta D. D. CLARKE. 1998. "The linguistic repudiation of Wundt". *History of Psychology* 1: 179-204.
- NICOLAS, S. 2004. Histoire de la psychologie allemande au 19e siècle. http://www.bium.univ-paris5.fr/histmed/medica/psycho_all.htm [2004ko urtarrilaren 14an atzitu]
- OERTAL, H. 1901. *Lectures on the study of language*. New York: C. Scribner's sons.
- OSGOOD, C. E. eta T. A. SEBEO. 1954. *Psycholinguistics: A survey of theory and research problems*. Baltimore: Waverly Press.
- OSTHOFF, H. eta K. BRUGMANN. 1878. *Morphologische Untersuchungen auf dem Gebiete der indogermanischen Sprachen. Erster Theil*. Hildesheim: Georg Olms.
- "Paralelismoa" UZEI. 1987. *Filosofia. Hiztegia*. Donostia: Elkar-UZEI.
- PATTON, L. 2004. *Hermann Cohen's history and philosophy of science*. <http://home.uchicago.edu/~patton/Dissertation.pdf> [2004ko otsailaren 6an atzitu].
- PAUL, H. 1880. *Prinzipien der Sprachgeschichte (Hizkuntzaren historiaren oinarriak)*, lehen edizioa. Halle: Niemeyer. (Bigarren edizioa 1886an; edizio honen ingelesezko itzulpena aipatzen du Auerrek. Routledge eta Thoemmes Presse 1886ko edizioa berrinprimatu dute 1995ean, Chris Huttonen sarrerarekin. Bosgarren edizioa 1920an; hau aipatzen du Alonsok.)
- PERCIVAL, W. K. 1980. "Hermann Paul's view of the nature of language". In R. W. RIEBER, *Psychology of language and thought*. New York: Plenum Press, 187-96.
- RAVIZZA, F. 1905. *Psychologia della lingua*. Torino: Fratelli Bocca.
- REBER, A. S. 1987. "The rise and (surprisingly rapid) fall of psycholinguistics". *Synthese* 72: 325-39.

- RICHARDS, R. J. 2002. *The linguistic creation of man: Charles Darwin, August Schleicher, Ernst Haeckel, and the missing link in nineteenth-century evolutionary theory*. <http://home.uchicago.edu/~rjr6/articles/Schleicher--final.doc>
- ROBINS, R. H. 2000. *Breve historia de la lingüística* (Ingeleseko 4. edizioaren gaztelaniazko itzulpena). Madril: Catedra.
- SARASOLA, Ibon. 2007. *Euskal Hiztegia*. Donostia: Elkar.
- SAUSSURE, F. de. 1998 [1916]. *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa*. Bilbo: Klasikoak [itzultzailea: Isabel Arrigain].
- SCHLEICHER, A. 1863. *Die Darwinsche theorie und die sprachwissenschaft*. Weimar: H. Böhlau.
- SCHULTZ, D. eta S. E. SCHULTZ. 2000. *A history of modern psychology*, 7. edizioa. New York: Harcourt.
- SEGALOWITZ, N. 2001. "On the evolving connections between psychology and linguistics". *Annual Review of Applied Linguistics* 21: 3-22.
- SÉCHEYAYE, A. 1908. *Programmes et méthodes de la linguistique théorique: Psychology du langage*. Paris: Honoré Champion.
- SHEFFIELD, A. D. 1912. *Grammar and thinking, a study of the working conceptions in syntax*. New York, Londres: G.P. Putnam's Sons.
- SKINNER, B. F. 1957. *Verbal behavior*. New York: Appleton-Century-Crofts.
- SLAMA-CAZACU, T. 1972. *La psycholinguistique: Lectures*. Paris: Klincksieck.
- SMOLENSKY, P. 1999. *Principles of Dave's Philosophy. Contribution to the David Rumelhart Celebration at Carnegie-Mellon University*. (Behera kargagarria hemendik: http://hebb.cog.jhu.edu/pdf/what_i_learned_from_dave_rumelhart.pdf [2003ko abenduaren 12an atzitala].)
- STUBBS, E. 2002. *Wilhelm von Humboldt's philosophy of language, its sources and influence*. Lampeter, Wales, UK: The Edwin Mellen Press.
- SÜTTERLIN, L. 1902. *Das Wesen der Sprachlichen Gebilde. Kritische Bemerkungen zu Wilhelm Wundts Sprachpsychologie*. Heidelberg: Carl Winter's Universitätsbuchhandlung.
- TOMASELLO, M. 1998. *The new psychology of language*. Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.
- VOSSLERER, Karl. 1905. *Sprache als Schöpfung und Entwicklung*.
- WUNDT, W. 1858-62. *Beiträge zur Theorie der Sinneswahrnehmung*. Leipzig; Heidelberg: C. F. Winter'sche Verlagshandlung.
- WUNDT, W. 1873-4. *Grundzüge der Physiologischen Psychologie*. Leipzig: Engelmann.
- WUNDT, W. 1880-83. *Logik: Eine Untersuchung der Prinzipien der Erkenntnis und der Methoden wissenschaftlicher Forschung*. Stuttgart: Enke.
- WUNDT, W. 1900. *Die Sprache*. Leipzig: Wilhelm Engelmann.
- WUNDT, W. 1901. *Sprachgeschichte und Sprachpsychologie*. Leipzig: Wilhelm Engelmann. (Routledge eta Thoemmes Pressek berrinprimatu dute 1995ean, Chris Huttonen sarrerarekin.)
- WUNDT, W. 1904. "Psychologie". In W. WINDELBAND (arg.), *Die Philosophie im Beginn des 20. Jahrhunderts. Festschrift für Kuno Fischer* (1. lib.). Heidelberg: C. Winter, 1-53.
- WUNDT, W. 1912. *Elemente der Völkerpsychologie*. Leipzig: Alfred Kröner Verlag.
- WUNDT, W. 1922 [1896]. *Grundriss der Psychologie (Psikologiaren hastapenak)*, 14. edizioa. Leipzig: Engelmann.